Zu hemen zaude.
goiena
2018-06-22 EGUBAKOITZA / 777. ZENBAKIA / 18. URTEA
**DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA** GOIENA.EUS TOKIKOM



# KULTUR ANIZTASUNAREKIN, ABERATSAGO

Bertakoen eta kanpokoen arteko zubiak eraikitzeko ekintzak Arrasaten / 10

**Kolonbiatik, Marokotik, Pakistandik eta Saharatik etorritakoak berbetan Arrasateko kaleetan.** XABIER URZELAI

# Hamaikakoak aurkezten ari da Euskaraldia

'Ahobizi' eta 'belarriprest' izango diren lehen herritarrak aurkezten hasi dira herririk herri, eta ekitaldiz josita etorriko da iraila, euskaren erabilera areagotzeko / **ikus 'Herriak' saila**

## Sexu Askapenaren Eguna Aretxabaletan ospatuko da aurten, manifestazioarekin eta musikarekin / 2

## Zapatuan jokatuko den Udanako Auto Igoeran 70 pilotu izango dira; hamar, oñatiarrak / 39



**ESKORIATZAKO ETA ELGETAKO JAIAK** / 22 eta 34

**SINADURAK**


MIEL GURIDI / **18**

IRAITZ AGIRRE ARANGUREN / **6**

ANDRES OSA 'SAKONA' / **29**

ANDERE ARRIOLABENGOA / **16**

IDOIA ETXEBERRIA / **48**

+




Debagoieneko muralisten hainbat lan, erreportajean

Emilio Martin psikologoa, drogen prebentzioaz

Adur
HORTZ KLINIKA
RPS 107/16
25. urteurrena
Mila esker urte hauetan bidelagun izateagatik
Arrasate pasealekua 15, behea
20.500 Arrasate • Tel.: 943 79 95 60

# Aldarria nagusi, Sexu Askapenaren Egunean

Beste urte batez, Sexu Askapenaren Nazioarteko Egunari heldu diote ibarreko zenbait eragilek. Aurten, Aretxabaleta izango dute jardun-leku: hainbat ekimen antolatu dituzte ekainaren 28rako. Zehatz esanda, asteon aurkeztu dute egitaraua

**Iker Oñate** DEBAGOIENA

Geroago eta gutxiago falta da Sexu Askapenaren Nazioarteko Egunerako –ekainak 28–. Eta horren bueltakoak hasiak dira orduko ekintzak iragartzen. Tartean, Debagoienean ere izango da ekimenik: ibarreko eragileek ekintza sorta bateratua antolatu dute egun horretarako, Aretxabaletan, *Normaltasuna popatik hartzera* lelopean. Besteak beste, aldarrikapenaren eta festaren arteko uztarketak ezaugarrituko du ekainaren 28rako egitaraua. Hain justu, Debagoieneko LGTBIQ+ Asanbladakoek eta talde feministetako zenbait kidek esku hartu dute egunaren aurkezpen hitzorduan –astelehenean egin zuten, Aretxabaletan–.



Sexu Askapenaren Eguneko egitarauaren aurkezpena, Aretxabaletan. MIRARI ALTUBE

Besteak beste, ekimenaren bultzatzaileek "normaltasunaren ideia" dute jo puntuan. "Gaurgaurkoz, hainbat muga ditu ezarriak normaltasunaren ideiak. Badirudi harremanek gizonen eta emakumeen artekoak izan behar dutela; edo zakila duena gizona dela –eta, ostera, alua duena, emakumea–. Bada, geuk normaltasun horren mugez kanpo kokatzen dugu geure burua", argitu du Aritz Oteizak, LGTBIQ+ Asanbladako kideak. Eta, modu berean, gogorarazi du ideia horrek bizitzako gune "askotan" eragiten duela. "Besteak beste, identitatean, maitatzeko eran eta sexuaz disfrutatzeko moduan nabari daiteke horren eragina", dio.

Gauzak horrela, ekinbidekoek argi dute Sexu Askapenaren Nazioarteko Egunerako aldarria: "Aurten ere, itotzen gaituzten kate horiek haustera gatoz, heteroarauen gainetik gure ipurdi eta gorputzen plazera lehenesten dugulako".

Eta, horri lotuta, azaldu dute oraindik "lan asko" dagoela egiteke sexu askapenaren tolerantziari dagokionez: "Oro har, esan daiteke balizko normaltasunaren gaindiko jarrerak lehen baino gehiago toleratzen direla. Baina horrekin ez da aski. Oraindik hor segitzen dute *bullying* kasuek eta gorroto delituek", esan du Oteizak. Hori horrela, jakinarazi du aldarria ez dela ekainaren 28ra mugatzen. Eta, beraz, urtean zehar horren bueltan antolatzen diren hitzorduetan esku hartzeko dei egin die debagoiendarrei.

### Manifestazioa, DJ saioa...

Esan moduan, festaren eta aldarriaren arteko uztarketan oinarritu dute ekainaren 28rako antolaturiko egitaraua. Hain justu ere, 19:30ean emango diote hasiera horri, manifestazio "koloretsuarekin" –herriko plazan emango diote hasiera ekinbideari–. Eta Durana kalean egindako irakurketa poetiko-politikoarekin emango diote bukaera ekintzari.

Bestalde, egunari festa kutsua eman guran, DJ saioa ere antolatu dute; horrek emango dio bukaera egitarauari –manifestazioaren ostean hasiko da–. Eta izango da bestelakorik ere: *"Gaypririña* dastatzeko aukera egongo da, besteak beste".

### Ibarrean, hirugarrenez

Hain zuzen ere, Debagoieneko LGTBIQ+ Asanbladakoek eta talde feministetako zenbait kidek 2016an ekin zioten bailara mailako egitaraua antolatzeari –Arrasaten eta Bergaran egin dituzte gaur arteko edizioak–. Beraz, ekinbideak hirugarren aldia izango du aurtengoa.

**BESTEAK BESTE, MANIFESTAZIOA ETA DJ SAIOA EGINGO DUTE EKAINAREN 28AN, ARETXABALETAN**

## Saharako hamar haur helduko dira ibarrera datorren astean

Sagiri elkarteak hartuko ditu Saharako haurrak, Udalako Ingurumen Eskolan. Bilketa kanpaina dute martxan

**I.O.** DEBAGOIENA

Azken urteetan moduan, Saharako hainbat haurrek Debagoienean igaroko dute udaldia; aurreikuspenen arabera, astelehenean helduko dira ibarrera, eta abuztu bukaerara arte egongo dira bertan. Hain justu, Sagiri elkarteak duela urtebete heldu zion erronka berriari: Saharako hamar haur ekartzeko egonaldia antolatu gura zuten aterpetxe batean. Eta Udalaitz ingurumen eskola aukeratu dute horretarako. Besteak beste, *Oporrak bakean* egitasmoaren "beherakada" ikusita hartu zuten erabakia –neska-mutikoek harrera familien etxeetan igarotzen zuten egonaldia–. Beraz, programa horrendako "bultzada" litzateke aurtengo ekinbidea, "datorren urtean familia gehiago anima daitezen".

"Haur bakoitza harrera familia batera joatea litzateke egokiena. Baina kopuruak behera egin du azken urteetan; gaurgaurkoz, ez dago behar beste familiarik. Beraz, familia handi bat sortzea erabaki dugu. Finean, aldi batez bada ere, ahalik eta ume gehienei eskaini behar diegu Saharako kanpamentuetatik irteteko aukera", azaldu du Marta Sanchezek, Sagiriko kideak.

### Diru eta material bilketa

Hain zuzen ere, material eta diru bilketa kanpaina dute martxan jarria. "Udal batzuek ez digute finantzazioan lagundu. Oraindik bada ordaindu bako hegaldirik", aitortu du Sanchezek. Hala, gura duenak ES60 3035 0040 11 0400022569 kontu zenbakian egin dezake ekarpen ekonomikoa.

Gainera, haurren egonaldirako beharrezko duten materiala batzen dihardute –komuneko papera, garbigailurako xaboia, eta abar–. Zerrajerako –Arrasate–, Leizeagako –Bergara– eta Antzuolako Eroski dendetan dago horretarako aukera, bihar arte.

ULMA — ULMA Forja, S. Coop. — Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

**Eguna**: 2018ko ekainaren 29a
**Ordua**: 15:30ean lehen deialdia eta 16:00etan bigarrena
**Tokia**: MU Enpresagintzako auditoriuma – Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BAZKIDEAK IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. ULMA FORJA, S. COOP.-EK (SOZIETATE XURGATZAILEA) ETA ULMA LAZKAO FORGING, SL, PERTSONA BAKARREKO SOZIETATEAK (SOZIETATE XURGATUA) XURGAPEN BIDEZ BAT EGITEA
   2.1 Xurgapen bidez Bat Egiteko Proiektua onartzea
   2.2 2017ko abenduaren 31n itxitako Kooperatibaren Bat Egitearen Balantzea onartzea
   2.3 Xurgapen bidez bat egitea onartzea, Bat Egite Proiektuan ezarritako baldintzetan
   2.4 Bat Egitea erregimen fiskal berezira lotzea
3. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
4. AHALMENAK ESKUORDETZEA
5. GALDE-ESKEAK

**BAT EGITE PROIEKTUA:** [illegible]

• **Bat egiteko prozedura:** [illegible]

• **Sozietate Xurgatzailea:** ULMA FORJA, S.Coop., [illegible]

• **Sozietate Xurgatua:** ULMA LAZKAO FORGING, SL, [illegible] B-75034694 IFZ zenbakia duena.

• [illegible]

• [illegible]

• [illegible]

• [illegible]

OHARRAK: [illegible]

*KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA*
*Oñati, 2018ko ekainaren 15a*

# Sexu erasoen kontrako protokoloa landu dute

Sexu erasoei erantzun instituzionala emateko protokoloa landu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Besteak beste, bitarteko izan gura du lurraldean "fronte sinboliko komun eta kohesionatua" eraikitzeko. Hala, "baliagarri" izango da ibarreko erakundeendako

**Iker Oñate** DEBAGOIENA

Indarkeria sexistaren kontrako protokoloa aurkeztu du asteon Gipuzkoako Foru Aldundiak. Eta, besteak beste, bitarteko izan gura du lurraldeko erakunde publikoen erantzun "harmonizatu" eta "estandarizatu" bateratuarendako. Hain zuzen ere, lurraldeko zenbait alkatek eta udal hautetsik egin dute bat aurkezpen hitzorduarekin. Eta Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak eta Miren Elgarresta Berdintasunerako organoaren zuzendariak izan dute egitasmoaren nondik norakoak azaltzearen ardura.

"Besteak beste, biktimari arreta egokia eskaintzeko, erasotzailearen inpunitatea ekiditeko zein erakundearen eta inplikatu guztien arteko koordinazio egokia lantzeko tresna izan gura du protokoloak", argitu du Olanok. Eta, horri dagokionez, gaineratu du erdigunean jarriak leudekeela gizarte eragileak, "orain arte bezala, protagonismo handiz segi dezaten".

Era berean, gizarteko sektore ezberdinen "erantzun bateratua" bultzatu gura du protokoloak. "Erakunde publikoen, gizarte eragileen eta hiritar guztien inplikazioa izan behar luke erasoen salaketak. Orain arte, emakumeek eta emakume taldeek irakatsi digute zein den bidea. Uste dugu unea iritsi dela eurekin batera eraso sexistei aurre egiteko estrategiaren parte izateko. Elkarrekin jarduteko", onartu du Olanok. Eta gaineratu du sexu erasoen aurrean "azkarra" eta "sendoa" izan behar duela erreakzioak.



Erakundeetako ordezkariak, protokoloaren aurkezpenean. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## Udalerri guztiendako

Horren ildora, protokoloa lurraldeko udalerri guztientzako litzateke baliagarri –orotara, 89 udalerri daude–, egoera ezberdinetara egokituta. Hori horrela, ibarreko udalek aintzat hartua dute landutakoa eta batzuek "baliagarri" izango dute tokiko protokolorako –Oñatin eta Arrasaten, kasurako–. Hori bai, proposamena jaso berri, Aldundiak landutakoa aztertzen hastea dagokie.

Bestetik, protokoloak "erreferentzia" izan gura du zenbait herrirentzat: "Finean, tresna egokiak eskaini gura dizkiegu baliabide nahikorik ez duten Udalei, bidea erraztu, nolabait".



Auziperatutako gazteen argazkiak, manifestazioaren buruan. MIRARI ALTUBE

# Altsasuko gazteek babes zabala jaso dute Debagoienetik

25 autobus joan ziren ibarretik. Antolatzaileak "pozik" daude manifestazioak izandako harrerarekin

**I.O.** DEBAGOIENA

Altsasuko gazteei elkartasuna adierazi guran, manifestazio jendetsua egin zuten zapatuan Iruñean –Altsasuko Gurasoak taldearen esanetan, 80.000 izan ziren hitzorduarekin bat egin zuten pertsonak–. Eta, beraz, atxilotutako gazteen ingurukoak "eskertuta" azaldu dira jasotako babesarekin. "Izugarria izan zen hainbeste jende ikustea. Hunkigarria. Deialdia egin genuenean, ez genuen halako harrerarik espero. Aurreko manifestazioko kopurura iristea genuen helburu –50.000 pertsona–", aitortu du Alaitz Ramirez de Aldak, Adur Ramirez de Aldaren anaiak.

Era berean, haren esanetan, halako protestak indar iturri dira kartzelan dauden gazteendako: "Hurrengo egunean izan genuen bisita. Egunkariko azala ikusi zuen Adurrek. Eta aurpegia aldatu zitzaion. Adur –eta gainerakoak– indartzen dute halako ekimenek".

Orain, errekurtsoa dute aurkezturik. Eta epailearen ebazpenaren zain dira, "aldaketa askorik" espero ez duten arren. Hala balitz, Auzitegi Gorenera joko lukete ostean, "zerbait aldatzeko esperantzaz".

Bitartean, aurrera begira dihardute, kasuaren "bidegabekeriaz" jakitun. "Gazteen kontrako erasoa da. Ohi moduan, ausaz hartu dituzte zenbait gazte. Ez da bidezkoa. Beraz, kontra egiten jarraituko dugu geuk".

## Ibarrean, "pozik"

Bultzatzaileak "pozik" dira hitzorduak izandako harrerarekin. Orotara, 25 autobus joan ziren Iruñera: bi autobus, Aretxabaleta eta Eskoriatzatik; sei, Arrasatetik; zortzi, Bergaratik, lau, Oñatitik; bi, Antzuolatik; eta bat, elgetatik.



# 2019ko hauteskundeei begira daude alderdiak

Aurrera begira jarriak dira alderdi politikoak. Hainbat zerrendabururen izenak jakinarazi dituzte zenbaitek; aukeraketa prozesuan murgildurik dira beste batzuk; eta koalizio berria eraikitzeko ahaleginean diharduenik ere bada

**Iker Oñate** DEBAGOIENA

Legealdi erdia baino gehiago eginda, 2019ko udal eta foru hauteskundeetara begira jarriak dira alderdiak. Eta zenbaitek jada iragarriak dituzte euren hautagaien izenak. Dena den, oraindik ez dago lurralde osorako behin betiko zerrendak eginak dituen alderdirik. Besteak beste, Gipuzkoako ahaldun nagusi izateko hautagaiak aurkeztu dituzte EAJk eta EH Bilduk. Eta koalizioa eraikitzen dihardute beste zenbaitek.

Gauzak horrela, EAJk pasa den zapatuan jakinarazi zituen zenbait hautagairen izenak, Kursaalean egindako ekitaldian. Hain zuzen ere, Markel Olano aukeratu dute diputatu nagusigai –gaur egun, hura dago karguan–.

Bestetik, udal hauteskundeei begirakorik ere aurkeztu dute. Tartean, alkatetza errepikatzen saiatuko lirateke zenbait hautagai. Horien artean dira Maria Ubarretxena –Arrasate–, Elena Lete –Bergara–, Unai Elkoro –Aretxabaleta– eta Jose Ramon Zubizarreta –Eskoriatza–. Ibarreko gainerako herrietako ordezkariek, ostera, azaldu dute aukeratu barik dituztela: "Zabalik dugu prozesua. Baina oraindik ez dago ezer zehazturik. Hauteskundeak gerturatu ahala joango gara hautagaiak zehazten –eta jakinarazten–".

### EH Bilduk, prozesua abian

Bestetik, EH Bildu koalizioak ere zabaldua du udal eta foru hauteskundeetara begirako prozesua. Tartean, jakinarazia dute zein izango den Gipuzkoako Foru Aldundirako zerrendaburua: Juan Karlos Izagirre –Donostiako alkate izan zen 2011 eta 2015 urte bitartean–. Eta, gainerakoan, alkategaiak hautatzeko herriz herriko prozesua dute martxan jarria: "Herritarrek erabakiko dute nor izango den euren herriko alkategaia. Horretarako, fasez faseko hautaketa prozesua dugu martxan jarria: aurrelanketaren ostean –diagnostiko fasea eta alor ezberdinetan banatutako ekintza plana– dator alkategaia aukeratzeko prozesua".

Aurreikuspenen arabera, EH Bilduk abendu eta urtarril bitarterako lituzke herrietako hautagaiak zehazturik. Hori bai, posible litzateke zenbait herritan lehenagorako zehaztea, "herrietako lantaldeek hala erabaki badute, betiere".

### Koaliziorako ahaleginean

Eta, esan moduan, koalizio eraikitzen diharduenik ere bada. Zehatz esanda, Ahal Dugu, Ezker Batua eta Equo alderdietako zuzendaritzek ekain hasieran adostu zuten 2019ko hauteskundeetan elkarrekin aurkeztea, koalizioa eratuz. Beraz, hori "aintzat hartuta" dihardute ibarreko kideek: "Horretarako ahaleginak egingo ditugu. Dena den, ez da halabeharrezko baldintza. Herri guztietako egoera ez da berdina". Hori horrela, zehaztu barik dituzte zerrendaburuen izenak –aurreikuspenen arabera, urtarrilerako aukeratuak leudeke horiek–.

## Gaur zabalduko dute Eskoriatzako saihesbidea

Hilabetez itxita egon ostean, gaur zabalduko dute Eskoriatzako saihesbidea –GI-627 errepidea–, 13:00etan. Hala jakinarazi du Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura Departamentuak. Hain zuzen ere, udaberriko euriteek eragindako kalteak konpontzen dihardute leku horretan –horrek eragin du saihesbidearen itxiera–. Eta berdinean segituko duten arren, gaurtik aurrera irekita izango dute bide zatia. Aurreikuspenen arabera, uztailean bukatuko dituzte lanok.

Besteak beste, orain artean, mikropilote pantaila batzuk jarri dituzte hustubidearen bi aldeetan –ainguratutako bi habek indartzen dituzte horiek–. Eta, horrez aparte, aurrez fabrikaturiko hormigoizko zenbait marko jarri dituzte. Horretan geratu barik, ostera, hustubidearen goiko aldeko uretan berriztatze lanekin segitzea eta beste hainbat egokitzapen egitea da asmoa.

SAN JUAN JAIAK 2018
ZUZENEKO EMISIOA
MAKALAREN IGOERA, ERREMENTARI DANTZA, SAN JUAN SUA ETA DANBORRADA ZUZEN-ZUZENEAN
• PLAZAKO PANTAILA ERRALDOIAN
• STREAMING BIDEZ GOIENA.EUS-EN ETA ARRASATE.EUS-EN
• GOIENA TELEBISTAN, 17:45EAN ETA 21:15EAN
HEMEN DEBAGOIENA
JAIEN GAINEKO LABURPEN ZABALA
EKAINAK 25, ASTELEHENA, 18:00, 20:00, 22:00
EKAINAK 26, ASTEARTEA, 18:00, 20:00, 22:00
JAIAK: SAN JUAN JAIAK 2018
JAIEI ESKAINITAKO SAIO BEREZIA
EKAINAK 27, ASTEAZKENA, 21:00, 23:00
goiena
ZU HEMEN ZAUDE



## GUTUNAK

### Eskerrik asko!

**MAIALEN MADARIAGA MUJIKA**
BERGARAKO GURE ESKU DAGO-REN IZENEAN
BERGARA

Ez zaizkigu beti garai onean etortzen eginbeharrak. Beti ez gaitu ilusio eta indar berarekin aurkitzen lanak. Erabakitzeko eskubidearen eskean urteak daramatzagu dagoeneko.

Baina badaukagu barruan indar bizi bat, gogo berezi bat bide honi indartsu eusteko. Badakigulako lortu genezakeela. Bagenekien ekainaren 10ko argazkiek garrantzi berezia izango zutela, eta bazekiten komunikabideek ere. Urrutira iritsi da gure aldarrikapena!

Bai, egia da. Lana lana da. Baina lana ilusioz eta gogoz egitea bezalakorik ez dago. Are gehiago, emaitza handia denean, itxaropentsua denean! Eta zuekin lan egitea plazer hutsa izan da oraingoan ere.

Eskerrik asko Maltzagatik Eibarrera eskutik helduta egon zineten herritar guztiei, baina, batez ere, antolakuntzan aritu zineten herriko boluntario eta artistei. Hasiera-hasieratik aitzakiarik gabe lana gogotsu eta ilusioz egin duzuen guztioi, bihotzez, mila esker!

Inongo laguntzarik gabe, herritarron artean eskuekin landu dugu Bergararen eta Euskal Herriaren etorkizuna eta horrela jarraitu nahi dugu zuekin batera: etorkizuna erabaki arte, jende zoriontsua libre izan arte!

Eskerrik asko!

### Armak gure jaietan?

**ANE ILLARDUIA ARGANDONA**
ARRASATE

Badatoz San Juan jaiak. Berriz beteko zaizkigu kaleak jendez, musikaz, dantzaz, ikuskizun eta ekitaldiz. Hauekin batera, kanpotik ere etorriko dira jaiez gozatzera datozenak. Baita lanera eta beraien bizitza aurrera ateratzera datozenak ere. Ongietorriak guztiak!

Kaleak beteko zaizkigu salmenta postuz. Nire begirunerik zintzoena Euskal Herriko jaietan zehar arropa, elikagai, produktu, musika konpaktu, jostailu eta horrelakoak saltzera datozenei. Hala ere, bada hauen artean kontu bat gustuko ez dudana: haurrei eskainitako jostailu belikoak saltzearena. Pistolak, eskopetak, aiztoak, eskuburdinak, metrailetak… Edozein arma eta erreplika, edozein tamainatako *jostailu* bihurtuta. Eta honekin gehien mintzen duena da herriko umeak hauekin jolasten ikustea. 5, 6, 7 eta ia nerabezaroraino doazen haurrak –mutilak gehienak, heteropatriarkatuaren beste seinale bat– horrelakoak eskuetan *hiltzera* jolasean.

Eta galdera da: gurasoen baimenarekin edo kontsentimenduz erosi ote dira? Hausnartu dezagun horrelako jostailuek dakartenarekin. Pentsatu birritan, erosten ditugun jostailuak gure seme-alaben eskuetan utzi aurretik. Jostailuarekin batera zein balore transmititzen dizkiegun pentsatu. Indarkeria, sexismoa, bazterketa soziala… sustatzen badituzte, hauek ez kontsumitu, mesedez.

Bestalde, ez dakit salmenta postu hauek jartzearen baimenak nola kudeatzen diren udaletxetik. Baina beste proposamen bat izan daiteke, hauei baimena ematerakoan, gure herriko kaleetan horrelako jostailu belikoen salmentak ez ditugula onartzen esatea.

### Jauzi egin genuen Hondarribian!

**MAITANE ARIZABALETA ASTIAZARAN**
DEBAGOIENEKO MINTZAPRAKTIKA BATZORDEKO KOORDINATZAILEEN IZENEAN
DEBAGOIENA

Nabari zen handia izango zela, Euskal Herri osotik etorritako mintzalagunak autobusetatik jaitsi orduko. Arraun elkartekoek Bidasoan gora etorrita Hondarribian festa piztu orduko. *Itxeki euskarari* lepokoak jantzita, harro, Abiyuan txarangarekin kalejiran hasi ginen unetik.

Harro gaude bidelagun eta bidelariek jauzi egin genuelako kalera, mingainari lotsa barik eraginez. Mintzalagunek eta Blagankideek elkarrekin jarri genuelako dantzan Hondarribia. Kalejira, bazkari, dantza, kontzertu, kantu artean harremanak estutu eta berriak sortu genituelako. Euskaraz bizi nahi dugulako elkartu ginen.

Euskaraz hitz egiteko egin genuen jauzi. Euskaraz gainditu genituen lotsak eta lotsa barik eman genion mingainari. Eta euskaraz gozatu genuen. Eta datorren urtean ere elkartuko gara mintza taldeetan, herriz herri, auzoz auzo. Euskaraz ondo pasatzen segituko dugu eta elkarrekin emango dugu kalean, etxean, lanean euskaraz mintzatzen hasteko jauzia.

Euskaraldian horretarako aukera bikaina izango dugu, azaroaren 23tik abenduaren 3ra. Beste milaka *belarriprest* eta *ahobizi*-rekin egingo dugu jauzi, euskaltzale guztiok batuko gaituen erronka batean. 11 egunez, euskaraz arituko da Euskal Herria! Herri, auzo, familia, lantegi askotan euskaraz aritzen hasteko lehen pausoa izango da. Bidean aurrera jarraitzeko. Jauzi handi bat emango dugu elkarrekin, kalean ere euskaraz bizitzeko!

Besarkada bero bat Hondarribian saltsan ibili zineten mintzalagun, berbalagun, mintzakide, solaslagun eta solaskide guztiei. Mundialak zarete! Blagankideei, berriz, eskerrak, bidelagun finak izatearren.

Datorren urtean ere izango dugu zer ospatu. Bitartean, jarraitu dezagun jauzi egiten!

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## HANDIK ETA HEMENDIK

### Ikusezin

**ANDONI EGAÑA**
HTTPS://LABUR.EUS/IQILE
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Premiatik sortzen dira hitzak, eta beharrak hauspotzen ditu. […]

Premiak sortu eta beharrak hauspoturiko hitz batzuk maiztu egiten dira une jakin batean erabiliaren erabiliz eta horrek pobrezia dakar. Gazteleraz oro *"espectacular"* bilakatu zaie, berdin da eskubaloi partida den, den liburu bat, biziaro bat, soineko bat... Laster meza bat ere espektakularra izango da! Sentimendu edo iritzi bat adierazteko ezer-aski-ez hori guk errepikapenaren bidez konpontzeko bidea hartu dugu. Akaso ETBk izango du zerikusirik joera berrian. Orain dena da oso-oso polita, oso-oso luzea edo oso-oso nekagarria. Mila-mila esker ere ematen hasiak gaude mila gutxi izaki nonbait.

Aurten, munduko jatetxe onenen zerrendaren berri Bilbon eskaini dute, Euskaldunan bururituriko ekitaldi batean. *"50 Best"* horietan lehen postua Modenako Osteria Francescana jatetxeari eman diote. Massimo Bottura nagusiaren hitzetan, lehen postu hori lortzeak dakarren onurarik handiena da "ikusezin" zena "ikusgarri" bilakatu ahal izatea. Ez diot sinesten, gaur eta gastronomian, deus "ikusezin" denik. Hori da beste batzuek premiaz eta arrazoiz sorturiko esamoldea arrazoirik gabe bereganatzea.

## HAUXE BAI JENEROA!

**GARBINE UBEDA**





ZABALIK

IRAITZ AGIRRE ARANGUREN

# Matriuskaren paradoxa

Moskuko Izmailovsky azokan erosi nuen egongelako apalean dotore datzan Modiglianiren koadroekin apaindutako bost piezaz osatutako Matriuska. Ikusi bezain laster maitemindu nintzen euretaz, baina kontraesankorra iruditu zitzaidan margolari italiar batek egindako emakume erretratuak *souvenir* errusiar gisan etxeratzea. Azkenean, lehen bihozkadari kasu egin nion. Eta eskerrak. Ostean jakin nuen panpina hauek Japonian dutela jatorria eta XIX. mendean zabaldu zirela ezagun egin dituen herrialdean.

Matriuska edo Mamoshka. Izenaren erroa *ama*-tik dator, ardatz femeninoari erreferentzia egiten zaiolarik. Pieza guztiak enbor beretik egiten dira, tenperatura aldaketen ondorioz egurraren kontrakzioa berdina izan dadin, batera uzkurtu eta batera zabaltzeko. Bat aldatzen bada, bestea ere aldatzen da. Leinu beraren parte dira, kontakizun edo hari berdina lotzen dituen zilborreste baten gisan. Alejandro Jodorowskyri irakurri nion behin indibidualtasuna ilusio bat besterik ez dela, pertsona bakoitzaren baitan, panpina errusiar batean bezala, izaki mordoa dagoela.

**GURE BAITAKO ERREFERENTE IA GUZTIEK BIETATIK DUTE, MOLDETIK ETA 'MOLDEKATXETIK'**

Zenbat emakume daude gure baitan gordeta, beraz? Horixe galdetzen diet azkenaldian emakumeen historiaz berba egitera animatzen diren bidelagunei. Eta kuriosoa da, gure erreferenteak izen-abizen ezagunak izan barik, lantegietan, etxeko sukaldeetan, kontakizunetan, osatze eta zaintzetan, minetan eta alaitasunetan... gorpuzten direlako. Batzuk moldeetan sartu behar izandako emakumeak dira; *moldekatxak* edo molde gaitzak besteak, garaiak ezarritako moldeetan sartu ezinak.

Ederrena da gure baitako erreferente ia guztiek bietatik dutela, moldetik eta *moldekatxetik*. Horixe garela, hain justu. Eta eskerrak. Berri Txarrak-en kantuak dioen bezala, *nola esan, koherenteak* baikara gure *kontraesanekin*. Horixe baita matriuskaren paradoxa handiena, bihozkadek bezala, bata bestearen baitako kontraesanek egiten eta mugitzen gaituztela.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE




HANDIK ETA HEMENDIK

### Kontzentrazio-esparru erraldoia Europara ihes egin nahi duten migratzaileentzat?

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

HTTPS://LABUR.EUS/YQBVE

'ARGIA'-N ARGITARATUA

"Zenbat eta urrutiago, hobe" premisapean, Afrika iparraldean edo Balkanetan gune itxi bat altxatu eta zaborra bailiran Europara ihes egin nahi duten migratzaileak bertan kontzentratzea da Europar Batasunaren azken proposamena.

AEBek ume migratzaileak kaioletan nola sartzen dituzten ikaraz ikusten dugun bitartean, Europar Batasunak neurri harrigarria eztabaidatu nahi du datorren astean Bruselan: lege eta hitzarmenak berriz ere nahieran apurtuz, eta errefuxiatuen krisia beste behin –urrutiko– alfonbra azpian sartu asmoz, bere mugetatik kanpo kanpalekua sortu nahi du (Libia edo Egipto aipatu dira) eta han bertan erabaki nahi du zein diren errefuxiatu eta zein migratzaile ekonomiko.

Proposamenaren bultzatzaileek arrazoitzen dute horrela migratzaileek ez dutela euren bizitza Mediterraneoan arriskatuko [...] Izan ere, zeinek eta nola erabakiko du ihes egiten duen pertsona, errefuxiatu ala migratzaile den? Herrialde txiro eta gatazkatsuetako jendeak benetan miseriagatik ala gatazka politiko-militarragatik –edo biengatik– egin duela ihes? Zergatik da zilegi bata eta ez bestea, Europak babesa eman ahal izateko? Zenbateraino bihurtuko da urrun dagoen –eta ez ikustea errazagoa den– gune hori, kontzentrazio-esparru erraldoi bat? Turkiarekin 2016an egindako tratua aurrekari, zer emango dio ordainetan Europak, esparru hori bere lurretan hartzea onartzen duen herrialdeari? Epe laburreko adabakia ez al da etorkizunean lehertuko den presio-eltze bihurtuko?

Post gehiago 5. orrialdean.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube.
**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia.

**Sailetako arduradunak**
Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**Maketazioa**
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
**Publizitatea**
Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
*publi@goiena.eus*

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 19.000 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

# "Donostiako migratzaileak Frantziara bidean zihoazen"

**JON ANDUAGA** DEBAGOIENEKO GURUTZE GORRIKO PRESIDENTEA

**Eneko Azkarate** DONOSTIA

30 urte daroatza Gurutze Gorrian boluntario lanetan. Gaur egun, Debagoieneko presidentea da. Almeriatik Frantziara bidean, astelehenean Donostian geratu ziren 46 migratzaileri laguntzen ari da egunotan, ibarreko beste hiru lagunekin.

**Ze aurkitu duzue migratzaileen azken *uholde* honetan?**

Almeriako Gurutze Gorritik Espainia zeharkatzeko bidaia egiten laguntzen diete, eta, Frantziara heldu aurretik, autobusean zetozen 46 lagun, Malikoak ia guztiak, Donostian geratu dira. Gauza ohikoa da. Baina *Aquarius*-en kontu honekin, oihartzun mediatiko handiagoa izan du. Jaten eman, garbitzeko edo dutxa hartzeko laguntza eskaini, arropak eman… halakoetan jardun dugu. Astelehenetik hona gehiago etorri dira. Realak, esaterako, txandalak utzi dizkigu eta horiekin jantzi ditugu. Irudi kuriosoa da.



Jon Anduaga eguenean, Donostian. GOIENA

**Zenbat denbora daroatzate bidaian?**

Orain etorri diren guztiak Frantziara doaz. Ez doaz itsu-itsuan. Frantzian senitartekoak dituzte. Haiekin elkartzeko asmotan doaz. Sei edota bederatzi hilabete daroatzate bidaian. Afrikatik Europara pateretan zeharkatu dute itsasoa... Guk bidaia tramitatzen laguntzen diegu, baina Frantzian ezin diegu lagundu. Hori izan da Donostian pilatzearen arrazoia. Astelehenean etorri zirenak 16 eta 36 urte artekoak dira, baina horietatik bi adingabeak dira. Baina berriro ere diot, egoera hau ohikoa da azkeneko urteotan.

**Zer diote?**

Hizkuntza kontuak direla-eta haiekin asko hitz egiteko aukerarik ez dugu izan, baina, batez ere, eskerrak eman eta eman dabiltza une oro.

**Plan berezia duzue Debagoienean asilo politikoa eskatzen dutenak artatzeko. Zertan da?**

Debagoieneko Mankomunitatearen egoitza dagoen tokian, Arrasaten, badugu bulego bat. Gipuzkoan, Donostian eta Eibarren ere badaude. Lau etxebizitza ditugu Arrasaten eta beste bat Eskoriatzan. Egoera politiko gatazkatsuak bizi dituzten herrialdeetatik ihesi doazen migratzaileak dira. Siria, Maroko, Sahara, Venezuela… Etxea eskaini eta gizarteratzen laguntzen diegu.

**Zenbat boluntario ari zarete gaur egun Debagoienean?**

Zenbat boluntario ari zarete gaur egun Debagoienean? Orotara, 60 bat izan gaitezke, batzuk une puntualetan laguntzen dutenak; modu jarraikorrean, 25 bat boluntariok dihardugu.

HAU BE BADOGU!

## Porrotean ere, zaleak Baskoniarekin bat



ACB Ligako finala Real Madrilen aurka galdu arren, Gasteizko taldeko zaleek jarrera bikaina erakutsi dute euren taldearekin. Izan ere, jokalariak txalotzera gelditu ziren hainbat eta hainbat zale partida etxean galdu ostean.

*@patri41*: "Datorren urtean bai! Beti Baskonia!".

*@iaberasturi*: "Gutxi falta izan zaigu! Zorionak Baskonia! *#harrotasuna #GoazenBaskonia*".

*@vitoriagasteiz*: "Gaur inoiz baino gehiago Gasteiz Baskoniarekin!".

## Selekzio 'txikien' ezustekoak

Astebete darama Munduko Txapelketak martxan, eta, oraingoz, talde txikien ezustekoak izan dira sare sozialetan gehien aipatu direnak. Argentinak, txapeldunordeak, Islandiaren aurka berdindu zuen, eta Alemaniak, azken txapeldunak, Mexikoren aurka galdu egin zuen.

*@martin_kitto*: "Mexikoko futbol selekzioak Alemaniakoari gola sartzeak mugimendu sismikoa eragin zuen Mexikon. *#GolSismikoa*.

## 'Berria' egunkariaren 15. urteurrena

*Berria*-k 15 urte bete ditu aste honetan. Eguaztenean egin zuten ospakizun ekitaldia, eta, hori dela eta, *trending topic* izan da euskal txiolarien artean *#berriak15* traola:

*@joanmari*: "Zorionak! Duela 15 urte Egunkariaren lekukoa hartu eta euskal egunkari nazionalarekin segituz egindako bidea ez da samurra izan, baina bai ederra. Urte askoan iraun dezala, etengabe berrituz, euskaldunok behar dugu eta! *#GeroaZugan #berriak15*".

ITURRI ONETIK

## Zumaiako Flysh Traila, zuzenean

Igandean jokatuko den Zumaiako Flysh Trail mendi lasterketaren X. edizioaren zuzeneko emisioa egingo du Goienak. Saldutako zerbitzua izango da eta ETBrekin, Zumaiako *Baleike*-rekin eta beste batzuekin elkarlanean jardungo du. 08:30ean hasita. Lau proba jokatuko dira: maratoia, maratoi erdia eta itsuen eta kadeteen lasterketak. Laurak jasoko ditu. Horretarako, zortzi kamera eta drone bi erabiliko dira. Sarrera-helmugan, pantaila erraldoia jarriko dute eta streaming bidez ere jarraitu ahalko da.

ALBISTE IZAN ZEN

2009-06-24

## Kanpoko igerilekuak zabalik Bergaran

Bergarako kanpoko igerilekuak ireki zituzten. Egun eguzkitsua izan zen 2009ko San Juan egun hura eta 1.000 lagun sartu ziren. Gustura jaso zuten bergararrek, gazteek eta txikienek, batik bat, kanpoko azpiegitura berria, urteetako gabeziari erantzuten ziolako. Gerora, eta batez ere ondoren etorri diren arau aldaketek, txiki utzi dute azpiegitura udako bero handieneko egunetan, erabiltzaileen haserrerako.



GOIENA

# Udaltzainek suzko armak erabiltzearen kontra

Urtarrilean hainbat gertakari biolento izan ziren Arrasaten, eta, handik gutxira, Iñaki Ugarteburu udaltzainburuak eskaera ofiziala egin zuen udaltzainek suzko armak erabiltzeko; EH Bilduk uste du konponbidea "udaltzainen eredu propio bat" dela

**X.G./E.A.** ARRASATE

Armen erabilera baimentzea alkate erabaki bat da, eta, eskaera ofiziala jaso ostean, Maria Ubarretxenak sei hilabeteko epea ezarri zuen erabakia hartzeko. Tarte horretan herriko kriminaltasunari buruzko txosten bat enkargatu zion Udaltzaingoari, alderdi guztiekin elkarbanatzeko, eta datu berdinen gainean gaiari buruz posizionatzeko. Horrez gain, aurreratu zuen alderdien arteko kontsentsurik gabe ez zuela suzko armen erabilera baimenduko.

Laster agortuko da sei hilabeteko epe hori, eta agortu baino lehen, gaiari buruzko hausnarketa plazaratu du EH Bilduk. Udaltzainekin, Udaleko enpresa batzordearekin eta LAB sindikatuarekin gaia landu ostean, argi daukate konponbidea ez dela suzko armen erabilera, "udaltzain eredu propio bat" baizik. Kriminaltasunari buruzko txostena ez dago oraindik bukatuta, baina oposizioko alderdi nagusiak honako hausnarketa hau egin du pistolen erabilerari buruz: "Pistola jarri eta biharamunean zer? Horrekin zer konpontzen dugu? Are gehiago, gure Udaltzaingo ereduaren aurka doa pistola", azaldu dute.



Itxaro Artola, Eneko Barberena eta Larraitz Trojaola, EH Bilduko zinegotziak. X.G.

**Giza baliabide gehiago**

Egun, 32 udaltzain ari dira lanean, eta EH Bilduk langile kopurua handitzearen alde egiten du segurtasuna hobetzeko. "40 udaltzain inguru izatea gustatuko litzaiguke". Arrazoietako bat auzo-udaltzain figura sortzea izango litzateke. "Formakuntza bidez espezializatuko ditugu eta erreferente izango dira auzoetako eragileentzat, merkatarientzat eta biztanleentzat, segurtasunarekin eta Udalarekin lotutako edozein konturen hartzaile edo bideratzaile izateko".

**Batzordea eta kontseilua**

Segurtasuna eta babes zibila kontu politiko bezala jorratzea planteatzen dute, bi fororen bitartez: batetik, segurtasun eta babes zibilerako batzordea. Organo horren funtzio nagusiak, besteak beste, Udaltzaingoaren egitura definitzea eta bizikidetza nahas dezaketen egoeren jarraipena egitea izango lirateke. Eta, bestetik, segurtasunaren tokiko kontseilua. Organo honen zeregina batzordeari azterketa eta aholkularitza zerbitzua ematea litzateke.

## Hamaika proposamen, Monterron parkea herritartzeko

Hamaika proposamen onartu dituzte Monterron parkea herrira zabaltzeko ideia lehiaketan. Proposamen horiek ikusgai izango dira Kulturateko klaustroan, uztailaren 3tik 27ra eta irailaren 3tik 14ra. Astelehenetik egubakoitzera, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Hala, herritarrek gustukoen duten proposamena bozkatzeko aukera izango dute eta bozketa horien emaitzak kontuan izango ditu epaimahaiak, erabakitzeko orduan.

Epaimahaiak kontuan hartuko ditu herritarren iritziak, baita proposamenen bideragarritasuna eta beste zenbait baldintza ere.

## Erguingo igogailu sistemaren proiektua aurrera doa

Erguingo igogailu sistemaren proiektuaren idazketa Asmatu SLP enpresari esleitu diote, 25.000 eurotan. Igogailu bat baino gehiago jartzea aurreikusten dute udal teknikariek; beraz, aplikazio esparru zabal bat zehaztu dute igogailuen kokapenak proposatzeko. Uribarri kaleko biribilgunetik Itxaropena plazaraino doa eremu hori, tartean hainbat kale hartuz: Uriburu, Erguin, Elizalde, Udalpe eta Anboto kaleak, eta baita Gernika ibilbidea ere.

Aurrekontu parte-hartzaileetan, Erguin auzoko mugikortasuna hobetzeko igogailua jartzea izan zen bigarren boto gehien jaso zituen proiektuetako bat.

## Presoei aplikatutako "salbuespen neurriak" salatu dituzte

Josu Arkauz eta Unai Parot presoei aplikatzen zaizkien "salbuespen neurri zorrotzak" salatu dituzte presoen eskubideen alde aste honetan egin duten agerraldian. Arkauzek 27 urte daramatza espetxean, eta, "libre egon beharko lukeen arren", 2022ra arte preso eduki nahi dutela salatu dute. Murtzian dago, isolamendu egoeran. Parotek 28 urte daramatza kartzelan, Puertoko kartzelan, isolatuta, eta 2031ra arteko zigorra dauka –41 urte beteko lituzke kartzelan–. Ekainaren 25erako, manifestazioa iragarri dute, *Guriek geurera* lelopean. 19:30ean abiatuko da, Herriko Plazatik.

## OHARRAK

### Baleikeren oharra

Isunen dirua DYA eta Gurutze Gorria erakundeei bideratuko ziela jakinarazi berri du Udal Gobernuak, eta, horren harira, radarretatik batutako dirua helburu solidarioetara bideratzea euren ideia izan zela aldarrikatu du Baleikek.

### Hastapen ikastaroak

Uztailean hastapen ikastaroak eskainiko dituzte kiroldegian. Informazio gehiago, *Goiena.eus* webgunean.

### Indarkeria protokoloa

Arrasateko mugimendu feministak eraso matxisten aurrean erantzun egokia emateko protokoloa sortu du, San Juan jaien harira.






# Arrasateko natura bideen mapa sortu dute

Turismo plana oinarri, herriko natura bideak biltzen dituen mapa sortu du Arrasateko Udalak, eta Besaide mendi elkartearen laguntza izan du horretarako; herriko mendi eta auzo ibilbideak "ezagutaraztea eta horiei balioa ematea" da maparen helburua

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Herriko mendi eta auzo ibilbideak biltzen dituen mapa landu du Arrasateko Udalak, *Arrasateko natura bideak* proiektuaren baitan. "Horiei balioa emateko bitarteko da natura bideen mapa. Eta, era berean, turismoaren ikuspegitik, esan daiteke baliagarri izan dakigukeela jendea erakartzeko. Ekintza asko egin baitaitezke hemen", azaldu du Nerea Lazpiurrek, Toki Garapeneko teknikariak.

Hori horrela, era askotako edukiak eta materialak bildu dituzte: "Arrasateko mendi eta auzo ibilbideak eta informazio gehigarria daukan mapa etxe guztietan banatuko dugu; beste mapa bat da Udalatx ikono bezala daukana, eta hori BAZen eta beste zenbait tokitan egongo da ikusgai; beste panel batzuk ere sortu ditugu, osasun zentroetan eta kirolguneetan jartzeko, hain zuzen ere, osasuna eta bizi kalitatea hobetzeko kirola praktikatzera zuzendutako panelak direlako; azkenik, udal webgunean ere sortu dugu atal bat, informazio zabala eskaintzen duena: mapak *Google maps* formatuan, ibilbide guztietako interes puntu guztiak, ibilbide bakoitzaren profilak, *track* guztiak Wikiloc aplikazioan sartuta ditugu..."

Gainera, QR kodea ere erabiliko dute zenbait kasutan; horren bidez, herritarrek euren mugikorretan ikusi ahal izango dituzte zenbait xehetasun.

### Elkarlanean gauzatutakoa

Ez da egun batetik bestera sorturiko proiektua, eta aurrez landutako prozesu baten emaitza dela esan daiteke. "Alde batetik, Ingurumen Sailetik landu zen bide publikoen inbentario bat, eta hori oinarri moduan hartu dugu lan hau egiteko. Beste alde batetik, Besaide elkarteak proiektu bat aurkeztu zuen, Arrasateko auzo eta mendi ibilbideak elkartu eta haien arteko amaraun bat, eraztun berde bat sortzeko herrian. Azkenik, turismo plana ere garatu zen Turismo Sailean. Plan honetako ildo estrategiko nagusienetako bat da turismo berdea. Beraz, hiru faktore horiek kontuan hartuta, proiektu hau gauzatzea erabaki dugu", adierazi du Lazpiurrek.

Hori horrela, "elkarlanean" gauzatutako proiektu bat izan dela azpimarratu gura izan du, udaleko sail ezberdinek parte hartu dute-eta garapenean.

## Etxez etxeko langileak, greba mugagabean

Greba mugagabeari ekin diote Arrasateko etxez etxeko langileek, "negoziaketek porrot" egin dutela eta "lan gatazka oraindik ez dela konpondu" iritzita. Hori dela eta, hainbat elkarretaratze egin dituzte aste honetan, eta gaur, egubakoitza, Seber Altube plazan elkartuko dira, 12:00etan. Ute Clece Zaintzen enpresarekin kontratua duten 26 emakumeek jakinarazi dute lan baldintzak hobetzeko helburuarekin hasi dutela lanuztea.

"Lan baldintzak duintzeko borrokan aspalditik" dabiltza, baina negoziaketak apirilean hasi zituzten. Era berean, Arrasateko Udalari eskatzen diote "bere ardura har dezala", bereziki zerbitzuaren zati bat uztailean lehiaketara aterako dutelako. Enpresaren negoziatzeko "prestutasunik eza" salatu dute.

erreka
taberna - jatetxea
Ondo ibili sanjuanetan!
Zerrajera 4 behea 20500 Arrasate
Tel.: 943 53 32 72
erreka@errekajatetxea.eu



# Maiatza, urte osorako eredu

Kultur aniztasunaren hilabetea izan da maiatza, bertakoen eta kanpotik etorritakoen artean zubiak eraikitzeko ekintzaz josita egon dena. Bertan parte hartu duten lau protagonistarekin batu da GOIENA, euren iragana eta etorkizuna gertutik ezagutzeko

## "Niretzako, benetan gogorra izan zen bi seme-alabak bertan uztea"

**GLORIA CECILIA GOMEZ** KOLONBIA

Bi seme-alabaren ama da, eta horietako batekin bizi da gaur egun Arrasaten.

**Zer dela-eta irten zinen Kolonbiatik?**

Ez neukan etxebizitza ezta bizitza onik bertan, batez ere, banandutako senarrarekin arazoak nituelako. Alaba bat eta seme bat nituen, eta euren formakuntza akademikoari aurre egiteko grinak bultzatu ninduen Kolonbiatik irtetera. Zorrak nituen, baina baita bizitza hobe bat edukitzeko ilusioa ere, eta 2007an Tenerifera joan nintzen.

**Nolakoa izan zen aldaketa prozesua?**

Niretzako, benetan gogorra izan zen nire bi seme-alabak bertan uztea. Hona etorri eta bi urtera alaba ekartzea lortu nuen, eta lau urtera semea ere bai.

**Nola heldu zinen Euskal Herrira?**


XABI URZELAI

Tenerifeko lehen egonaldian, ez nuen lanik aurkitu, eta Arrasatera heldu nintzen. Lana aurkitu eta Extremadurako gizon batekin maitemindu nintzen. Nire izeba bat Tenerifen zegoen 2001a ezkero, eta hona heldu berritan lanpostu bat aurkitu zidan Tenerifen; bost izarreko hotel batean. Baina ezetz esan nion, hemen oso gustura nengoelako; lana nuen, eta, batez ere, asko apreziatzen ninduen pertsona bat nuen. Tamalez, minbiziak jota hil zen, duela zortzi hilabete.

**Zein da zure egoera orain?**

Elkarte gastronomikoak garbitzen ditut, eta oso gustura nago lanarekin. Aurretik, adindun pertsonak zaindu izan ditut hiru urtez, eta oso gogorra iruditzen zitzaidan. Etxe bat erosi berri dut eta alabarekin bizi naiz. Semea Kolonbiara itzuli zen unibertsitate ikasketak amaitzeko, baina orain, 40 eguneko oporraldia du eta ni bisitatzera etorri da, neska-lagunarekin batera. Hemen lagun ugari dauzkat, eta Arrasaten bizitzea asko gustatzen zait.

**Nola ikusi dituzu maiatzean egindako ekintzak?**

Integratzeko eta jende berria ezagutzeko balio dute. Horietako askotan parte hartu dut, eta gustatu zitzaidan dokumentala.

**Etorkizunerako erronkak?**

Ez dut Kolonbiara itzultzeko asmorik, nahiz eta asko maite dudan. Nire etxea ordainduta izan eta ahalik eta gehien bidaiatu nahiko nuke. Bizitza gozatzea, besterik ez.

## "Euskaldunek enpatia berezia dute gurekiko, eta igarri egiten dugu"

**SALEH SALEK** SAHARA

Saharaldeba elkarteko presidentea da. 42 urte ditu bi seme-alaben aita da; saharar nazionalistatzat du bere burua.

**Zerk bultzatu zintuen zure sorterria uztera?**

Nire kasua oso berezia da hona datozen sahararren %99rekin alderatzen baduzu. 11 urterekin, gobernuen arteko akordio bati esker, Kubara joan nintzen ikastera lau urterako. Hori amaitzean, beka bat lortu nuen, eta Andaluzian jarraitu nuen nire formakuntzarekin. 1998an, ikasketak amaituta, lanean hasi nintzen; lehenengo Murtzian, ostean Malagan, Balmasedara joan nintzen 2012an eta 2015ean Arrasatera.


X.G.

**Hainbeste mugitu ostean, zer dela-eta finkatu zara Euskal Herrian?**

Elkarteko presidentea naiz, eta administrazioarekin eta hainbat elkarterekin dut harremana. Hemen ez daukagu inongo kexarik; batez ere, erakundeek gu laguntzeko borondatea dutelako. Sahara naziorik gabeko herria da, eta horrek sortzen dizkigun arazoak konpontzeko ahal duten heinean laguntzen digute; paperen eta osasun txartelen kontuetan, adibidez.

**Zuentzat, zeintzuk dira paperak lortzeko arazo nagusiak?**

Ez dugunez estatu propiorik, hiru pasaporte har ditzakegu: lurralde okupatuetakoak direnek, marokoarra; kanpamentuetatik gatozenok, Algeriakoa; eta beste batzuek, mauritaniarra. Baina hauek iraungitzerakoan arazo asko izaten ditugu, enbaxadetan ez dituztelako ontzat ematen. Herrialdetik irteteko ematen dizuten dokumentua da, baina behin-behineko izaera duena. Hori dela eta, hiru urte egon gaitezke pasaporterik gabe, bidaiatu gabe.

**Hala ere, saharar izatea abantaila bat dela diozu. Zergatik?**

Zapaldutako herria garenez, jendeak besoak zabalik hartzen gaitu. Euskaldunek enpatia berezia dute sahararrekiko, eta guk igarri egiten dugu. Jaso dugun laguntzari esker, 2015etik aurrera aberrigabezia eskubidea eska dezagu gure egoera normalizatzeko.

**Zeintzuk dira, zure ustez, integrazioa lortzeko gakoak?**

Hizkuntza jakitea da horretarako oinarririk sendoena, eta, ostean, ezbairik gabe, borondatea; esfortzua egiten baduzu, lortuko duzu.

**Nola baloratzen dituzu maiatzean egin diren ekintzak?**

Niretzako, administrazioa eta elkarteak ez dira ezer bertako pertsonen bihotz ona gabe, eta hori ikusi dut nik maiatzean.

ad Ibabe
GARAJEA
TXAPA. PINTURA ETA MEKANIKA
Gora sanjuanak!
Gesalibar auzoa 31
Tel.: 943 79 99 61 • Faxa: 943 79 13 90

eya
Ondo pasatu sanjuanak!
Etxetresna elektrikoak eta dekoraziorako lanparak
Iturriotz 21 Tel.: 943 79 03 84 Faxa: 943 77 20 51
ARRASATE

Nua
ESTETIKA ZENTROA
GORA, SANJUANAK!
Sebero Altube plaza 7
ARRASATE
943 79 62 14
oihane@nuaestetika.com

# "Euskarari esker irribarre asko erakarri ditut"

**OUIAME OUCHEN** MAROKO

Tangerko bereberra da, eta 33 urte ditu. Ezkonduta dago eta hiru seme-alaben ama da.

**Zer dela-eta utzi zenuen sorterria Euskal Herrira etortzeko?**

Nire kasuan, senarrekin bizi ahal izateko izan zen, Eskoriatzan bizi baitzen 2000 ezkero. Ezkontza batean ezagutu genuen elkar, eta lehen kolpean maitemindu nintzen harekin. Distantzia handiegia zenez, erabakia hartu behar izan genuen, eta hona etortzearen alde egin nuen.

**Nolakoa zen zure bizitza hona etorri aurretik?**

Nahikoa baliabide zituen familia batekoa naiz. Batxilergoa ikasi ostean, Frantziako Zuzenbidea ikasten aritu nintzen hiru urtez. Amaitu aurretik, ordea, lanpostu bat aurkitu nuen frantziar multinazional batean, eta bertan lanean nenbilen zuzendaritza laguntzaile postuan.

**Erabaki erraza izan zen?**

Asko kostatu zitzaidan erabakia hartzea. Nire ibilbide profesionalean lehen urratsak egiten ari nintzen, eta nire familia ere bertan zegoen. Baina arriskatu beharra zegoen, eta Euskal Herrira etortzea aurrera egiteko aukera bat bezala hartu nuen. Hona etorri aurretik, Tangerko Cervantes institutuko gaztelaniazko eskoletara joaten hasi nintzen. Lanetik irten, eta gaztelania ikasten nuen 20:00etatik 22:00etara. Ezkondu ondoren, bisa eskuratu nuen 2006an, eta 2007an etorri nintzen hona.



X.G.

**"GUTAKO BATZUEK KARGA HIRUKOITZA DUGU; TXIROAK, KANPOTARRAK ETA EMAKUMEAK GARELAKO"**

**Nola gogoratzen dituzu lehen egunak?**

Iraila zen eta senarra gauez lanean zebilen. Eguraldia oso txarra zen; hotza, ekaitzak... gogoratzen dut euriaren zaratak beldurra ematen zidala. Hala ere, senarrak eta haren lagunek asko lagundu zidaten. Heldu eta gutxira, ikasten jarri nintzen erizain laguntzaile izateko. Titulua lortu nuen, eta nahiko nota onekin, gainera, eta neure buruarengan konfiantza hartzen hasteko balio izan zidan.

**Zein zailtasun izan dituzu integrazio prozesuan?**

Batzuek karga hirukoitza dugu; txiroak, kanpotarrak eta emakumeak garelako. Ikasketak egin eta jarraian praktikaldia egin nuen adindun pertsonak zaintzen, eta bertan esperientzia txarren bat edo beste izan nuen. Lankideen atzetik ibili behar nuen ogibidea ikasteko, eta, adibidez, gela batera sartu eta atea parez pare ixtea tokatu izan zait. Soberan zaudela sentiarazten ahalegintzen dira, baita lantokitik kanpo ere. Tokatu izan zait ere curriculuma eramatea, eta, zuzenean, ez hartzea, edo lanpostuan beloa kentzera behartzea. Baina, nire kasuan, erreakzio itsusi horiek aurrera egiteko motor bezala hartu ditut. Horrelakoa naiz.

**Eta erraztasunik izan duzu?**

Hemengo elkarteek eta erakundeek integrazioaren alde sekulako lana egiten dute; benetan txalogarria da. Horren adibide garbiena maiatzean ikusi dugu. Aniztasun kulturala jendarteratzeko hainbat ekintza egin dira, eta gehiago egiten jarraitu beharko genuke. Hasieran, ez nuen elkarte horien berri, baina asko lagundu didate nire istorioa beste batzuekin partekatzeko eta beste pertsona batzuekin erlazionatzeko. Ez dut izenik aipatu nahi, baina benetan pertsona zoragarriak dira.

**Euskara jakiteak gauzak erraztu dizkizu?**

Ikasten ari naiz, eta haurrekin ere asko ikasten dut. *Agur* edo *eskerrik asko* batekin jendearen aurpegiak aldatu egiten dira, eta euskarari esker irribarre asko erakarri ditut. Ni bereberra naiz, eta badut hizkuntzarekiko sentsibilitate hori.

**Nola irudikatzen duzu etorkizuna?**

Nire negozioa zabaltzeko aukera aztertzen ari naiz. Beraz, bertan lanean, eta gaur egun dakidana baino euskara gehiagorekin.

# "Badaude janzkeragatik munstro bat bezala begiratzen dizutenak"

**SAMINA KAUSAR** PAKISTAN

Samina pakistandarra da, eta 2012an etorri zen Euskal Herrira. Ezkonduta dago, 29 urte ditu eta bi seme-alabaren ama da.

**Zer dela-eta etorri zinen Pakistandik hona?**

Senarra Eibarren bizi zen, eta harekin bizitzearren etorri nintzen. Ni 2012an etorri nintzen, eta hura 2010a ezkero zegoen hemen.

**Zein zen zuen egoera Pakistanen?**

Nire kasuan, nahiko ona zen. Nire familiak nahiko baliabide izan ditu beti, eta ez zitzaidan ezer falta. Batxilergoa egin ostean, Irakasle ikasketak egin nituen, eta bi urtez aritu nintzen irakasle, hona etorri aurretik. Baina nire senarraren kasua ezberdina zen. Haren aitak lan egin arren, ez zuen askorik irabazten eta baliabide gutxi zituzten. Haren osaba batzuk Leonen bizi ziren, eta haiei esker hartu zuen Eibarrera etortzeko erabakia.

**Nola gogoratzen dituzu lehen egunak hemen?**

Lehen astean pozez txoratzen nengoen, urtebete baino gehiago neramalako senarra ikusi gabe. Baina ostean, bakardade handia sentitzen nuen senarra lanean zegoenean, ez nuelako beste inorekin harremanik. Handik gutxira, haurdun geratu nintzen. Haurdunaldi gogorra izan zen, eta semea gaixotasun arraro batekin jaio zen. Hanka bat bestea baino handiagoa du, eta askotan joan behar izan genuen medikuarengana. Nire bizitzako etapa zailena izan zela uste dut, semea gaixo zegoelako eta nire aita eta ama urrun zeudelako. Bigarrena goiztiarra izan zen, baina guztiz osasuntsu dago.



X.G.

**Egoera horretan integratzea ez da erraza izango...**

Batzuek begi onez ikusten zaituzte, baina janzteko eragatik badaude munstro bat bezala begiratzen dizutenak. Hizkuntzarik ez jakitea muga handi bat da. Gogoratzen dut azukrea erostera joan nintzela denda batera, eta arroza erosi nuela. Nire kasuan, etxetik ikasten nuen, Internet bidez, eta baita medikuengana egiten nituen bisitetan ere. Euskara jakitea ere gustatuko litzaidake. Aurrekoan, medikuarenera joan nintzen 3 urteko alabarekin, eta hura eta medikua euskaraz komunikatzen ziren.

**Zein egoeratan egon nahiko zenuke hamar urte barru?**

Senarra lan gabe dago, eta beste leku batera mugitzea pentsatzen ari gara. Baina semeak oso gustura daude hemen, eta baita ni ere. Biok lana aurkitzea eta hemen jarraitzea nahiko nuke.







# Txarra sutara, eta batu festara

Gaurtik martitzenera arte, San Juan jaiak izango dira Arrasaten. Punta-puntako musikariak, entzierroak, entzierro alternatiboak, herri bazkariak, haurrentzako ekintzak eta zilarrezko eztei berezi bat izango dira 2018ko sanjuanetan

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Bezperaren bezpera izan arren, gaur egingo dute eztanda San Juan jaiek, txosnen irekierarekin. Udalak, txosna batzordeak eta herriko beste hainbat eragilek esfortzu berezia egin dute jaietan ezer falta ez dadin, eta dei berezia egin dute indarkeria matxistarik gabeko festak izan daitezen: "Ez, ezetz da!".

**Zezenen presentzia, bolo-bolo**

Orain arte, zezenketak eta entzierroak jaietako ezinbesteko elementu izan dira Arrasaten, baina hasi dira era horretako ospakizunen aurkako ahotsak entzuten. Uluak talde antiespezista sortu zenetik, eztabaida hori gizarteratzeko ekintzak ikusi izan dira santamasetan, eta San Juan jaietan euren aldarrikapenekin jarraituko dute. Jaietako egitaraua aurkeztu aurretik, herritarren artean zezenik egongo ez zen zurrumurrua hedatu da, eta, Udalak egindako jaien aurkezpen ofizialean, eztabaida hori izan zuen hizpide Ubarretxena alkateak:

"Aurten zezen-plaza eta errekortadoreak mantendu egingo ditugu. Jaietan animaliekin egiten den erabilera gizarteratu beharreko eztabaida dela uste dugu. Hori dela eta, Uluak talde antiespezistarekin elkartu gara, eta jaietako programan euren espazioa izatea adostu genuen. Hain zuzen, txosna batzordearekin batera, ekainaren 24an, 08:30ean, zezenketa alternatiboa egingo dute".

**'Zeuk iñ zeuk jan'-ek, behera**

Urtetik urtera hazkunde ikusgarria izan duen ekimen horrek jende gutxiago hartuko du aurten. Iaz, aurreikuspenak gainditu zituen eta 1.100 lagunek eman zuten bertan parte hartzeko izena. Aurten, aldiz, 853 pertsona apuntatu dira, 66 kuadrillatan banatuta. "Iaz, domeka baten egin zen, eta aurten, astelehena tokatu da. Beraz, hori izan daiteke faktoreetako bat", azaldu dute Udaleko Kultura Saileko ordezkariek.

Ekainaren 24an, 80 urtetik gorakoen omenaldian 152 lagun batuko dira eta dragoi-janerako txartelen salmenta "erritmo onean" doala jakinarazi du AED elkarteak –txartelak egunean bertan ere erosi ahalko dira, aurretik agortzen ez badira–".

**Errementari dantzak, 25 urte**

2018ko sanjuanak bereziak izango dira, errementari dantzak zilarrezko ezteiak beteko ditu eta. Herriko dantzariak eta musikariak suaren baitan batzen dituen ikuskizunean sorpresaren bat edo beste izango dela aurreratu dute, inongo pistarik eman gabe; beraz, ikusleek adi-adi egon beharko dute.

**Musika eskaintza zabala**

Gaurko txosnetako kontzertuetatik Izaroren azken akorderaino, mota askotako zuzeneko musika emanaldiak izango dira sanjuanetan.

Glaukoma taldeak astelehenean emango duen kontzertuarekin txosnagunea jendez betetzea espero dute antolatzaileek, eta eurekin batera arituko dira Anita Parker taldekoak. Gaur, kantu afaria eta gazteen kontzertuak izango dira; bihar, Demode Quartet taldearen ahots erakustaldia Monterronen; eta jaiei amaiera emateko, Izaroren zuzenekoa Herriko Plazan.

## Haurren Eguna, berrikuntzekin

Ekainaren 25eko protagonistetako bat Eguzkilru famatua izaten da, hori izaten baita haurren eta gaztetxoen festa eguna.

Aurten, hainbat berritasun izango dira. Lehena, kokapenarekin lotuta. Orain arte, Biterin eta Zaldibarko frontoian egin dira egun horretako ekintzak, baina aurten, Zaldibar Monterronekin ordezkatu dute, eta, besteak beste, bertako urmaeletan ur-jolasak egingo dituzte.

Bestalde, ekainaren 25a ez denez asteburuan tokatu, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizun arrakastatsua haurren egunean egingo dute –19:00etan, Monterronen–.

## Jarraipen berezia Goiena TBn

Aurten ere pantaila erraldoia jarriko du Goienak Herriko Plazan. 17:45ean hasi eta 01:00ak arte zuzeneko emisioa egingo da pantailatik eta streaming bidez ere makalaren igoera eta errementari dantza ikusi ahal izateko –telebistan 17:45etik 18:15eara eta 21:15etik 01:00etara ikusi ahal izango da zuzeneko emisioa–.

Ekainaren 25ean eta 26an, jaien gaineko laburpen zabala ikusi ahal izango da *Hemen Debagoiena* saioan –18:00etan, 20:00etan eta 22:00etan–.

Eguaztenean, aldiz, jaiei eskainitako saio berezia emango du Goiena TBk, 21:00etan eta 23:00etan.










Izozkitegia
Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia
San Juan jai zoriontsuak!
Iturriotz 7 • Tel.:943 79 81 68
ARRASATE

JOSE MARI SALEGI
HARATEGIA • URDAITEGIA
Euskal okela eta etxean egindako hainbat produktu ( txorizo, tripakiak...)
943 79 45 55
Olarte kalea 20
ARRASATE
SAN JUAN JAI ZORIONTSUAK!

# Sanjuanak 2018: Egitaraua



## OSTIRALA 22

**18:00** Txosnen irekiera.

**19:30** HERRIXA DANTZAN Seber Altube plazan, Portaloi elkarteak antolatua.

**21:30** KANTU AFARIA Jose Letona plazan SEI PISTOLS ETA TRABUKO BAT taldearekin.

**22:00** Txosnagunean talde gazteen KONTZERTUA: Libertad Condicional eta Nafarroa 1512.

## ZAPATUA 23

### SAN JUAN BEZPERA

**12:00** Txosna batzordeak antolatuta TXUPINAZOA. Ondoren, triki-poteoa.

**14:30** Herri BAZKARIA Uarkape pilotalekuan. Txosna batzordeak antolatuta.

**16:30** ETXAFUEGOAK Herriko Plazatik. Ondoren, Seber Altube plazan PATATA TROPIKALA taldearen AZKEN EGUZKILOREA izeneko haurrentzako emanaldia.

**17:00** TXOPO-POTEOA INCANSABLES txarangaren laguntzarekin.

**18:00** Herriko Plazan MAKALAREN IGOERA.

**18:30** ERREKORTADORE GAZTETXOEN TXAPELKETA (8-15 urte) eta ondoren gaztetxo guztientzako zezentxoak eta poneyak. Antolatzailea: Bergarako Zezenak.

**19:00** San Juan Bailatzailearen parrokian SALBE SOLEMNEA

**21:00** ERREMENTARI DANTZA Arrasateko euskal musika eta dantza taldeek parte hartuko dute, eta aurten sorpresak izango dira, 25 urte betetzen dituelako.

**22:30** SAN JUAN SUA Herriko Plazan.

**23:00** Biteri Plazan hasita eta herriko kaleetan zehar NAGUSIEN DANBORRADA, SUDCek antolatuta.

**23:00** Erromeria txosnagunean Garilak 26 taldearekin.

## DOMEKA 24

### SAN JUAN EGUNA

**08:30** DIANA ARRASATEKO GAITEROEKIN.

**08:30** Izenbako txarangak girotuta zezenketa alternatiboa, txosna batzordeak eta Uluak talde anti-espezistak antolatuta.

**09:00** ENTZIERROA Ibilbidea: Erdiko kalea, Kanpatorpea, Zerkaosteta eta Jose Maria Arizmendiarrieta. Gero, zaleentzat bigantxak zezen-plazan.



**11:00** San Juan Bataiatzailea parrokian, MEZA NAGUSIA.

**12:00** Arrasateko Kilikien eta Erraldoien KONPARTSAren KALEJIRA.

**11:00** Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDArekin KALEJIRA. 11:30ean Seber Altube plazan elkartuko dira konpartsakoekin eta gaiteroekin.

**12:00** Herriko Plazan ohorezko aurreskua eta San Juan zortzikoa.

**12:30** Etxaluzen (Abaroa) OMENALDIA 80 URTETIK GORAKO NAGUSIEI.

**13:00** Monterron parkean KONTZERTUA Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDArekin.

**17:00** Herriko kaleetan zehar STREET BOULDER txapelketa, txosna batzordeak antolatuta.

**18:00** OLINPIADAK txosnagunean.

**19:00** Rukula taldearen KONTZERTUA Irati tabernan.

**19:30** ERREKORTADOREEN ERAKUSTALDIA zezen-plazan.

**19:30** KALEJIRA erdiguneko kaleetan zehar Arrasateko gaiteroekin eta Arrasate Musikaleko haize taldearekin.

**21:00** Herriko Plazan DRAGOI JANA. Plazan erretako dragoia hantxe bertan dastatzeko aukera. Txartelak egunean bertan ere salduko dituzte; betiere, ez badira aldez aurretik agortzen.

**23:15** Santa Barbaratik SU ARTIFIZIAL ikusgarriak, Astondoa pirotekniaren eskutik.

**23:30** Monterron parkean DEMODE QUARTET taldearen azken ikuskizuna: Musikal guztiak ia-ia.

**23:30** Herriko Plazan OIHAN VEGArekin DISKOFESTA.

**01:00** DJak txosnagunean: The Big Mac.

## ASTELEHENA 25

### HAUR ETA GAZTETXOEN FESTA EGUNA

**08:30** DIANA ARRASATEKO GAITEROEKIN.

**09:00** ENTZIERROA. Aurreko eguneko ibilbidea; gero, zaleentzat bigantxak zezen-plazan.

**11:00-14:00** Biteri plazan, ikusmenarekin jolasten, bizitza eskuetan, gurpil aulkiaren magia, sormen-gunea, puzgarriak, aurpegi margotzea... Monterronen, ipuin kontalariak, Saharako jolasak, oihaletatik zintzilik, ur zirkuitua...

**12:00** Karaokea Biterin.

**12:00** Azokan *Zeuk iñ zeuk jan* BAZKARIAren prestaketa.

**12:30** Arrasateko Trikitixa Eskolarekin KALEJIRA.

**12:45** EGUZKILARUren ongietorria eta makal txikia jasotzea Biteri plazan.

**13:00** APAR FESTA Biterin.

**13:00** HERRI KALEJIRA txistulariekin.

**14:30** *Zeuk iñ zeuk jan* kuadrillen arteko HERRI BAZKARIA Azoka plazan. Udalak sagardo-kupel bat jarriko du parte hartzaileentzat.

**17:30** Txosna batzordeak antolatuta, Eonian elektrotxaranga, azokatik.

**19:00** SONIDOS DE MEXICO mariatxi taldearekin KALEJIRA.

**19:00** PIRRITX, PORROTX eta MARIMOTOTSen *Borobilean* ikuskizuna Monterronen.

**20:00** BERTSO JAIALDIA Seber Altube plazan, AEDK antolatuta. Partaideak: Unai Gaztelumendi, Oihana Bartra, Maddalen Arzallus eta Iñaki Viñaspre. Gai jartzaileak: Oihana eta Haizea Arana.

**22:30** Herriko Plazan SONIDOS DE MEXICO mariatxiaren KONTZERTUA.

**23:00** KONTZERTUA: GLAUKOMA eta ANITA PARKER taldeak txosnagunean.

00:30 DJ LOROren musika Iluntz tabernan.

## MARTITZENA 26

**08:30** DIANA ARRASATEKO GAITEROEKIN.

**09:00** ENTZIERROA. Aurreko eguneko ibilbidea. Gero, zaleentzat bigantxak zezen-plazan.

**11:00** Arrasateko Erraldoien eta Kilikien Konpartsaren kalejira.

**12:00** Herriko Plazan EUSKO LABELEKO produktuak DASTATZEA, Goikobalu abesbatzaren laguntzarekin.

**18:00** MARKELIÑE taldearen CHEF NATURE ikuskizuna Biteri plazan.

**19:00** Seber Altube plazan Lore Gazteak taldearen DANTZA EMANALDIA.

**20:00** KONTZERTUA Herriko Plazan: IZARO. Arrasateko gaiteroekin.

Jose Ramon Otamendi
harategia
SAN JUAN JAI ZORIONTSUAK GUZTIOI!
Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491
BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com
Proiektuak · Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak
21 K KALITATEA

EUSKARALDIA



Euskaraldiari babesa eman dioten herritarrak, astelehenean. MIRARI ALTUBE

# Gertu dago hamaikakoa erronkari heltzeko

'Ahobizi' eta 'belarriprest' izango diren lehen herritarrak aurkeztu dituzte, eta horiek izango dira gainerako aretxabaletarrak Euskaraldira batzera animatuko dituztenak. Izan ere, ekitaldiak irailean abiarazi arren, euskarari heltzeko ez dago itxaron beharrik

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Astelehenean aurkeztu zituzten Euskaraldiaren Aretxabaletako hamaika enbaxadoreak; hona hemen: Paloma Martinez, Goio Arrieta, Pili Muñagorri, Neida Gabilondo, Andoni Miguel, Matilde Garai, Jose Ramon Quintanilla, Iñaki San Miguel, Xubane Garai, Lur Garai eta Kepa Errasti. Arkupen egindako ekitaldi xumean, Errastik aurkeztutakoan, hain zuzen ere, "pozik" agertu ziren guztiak, eta "erronkari heltzeko" gertu.

**Izen-ematea, irailean**

"Hamaika lagun horiek lanean hasteko gertu daude, eta orain, etor daitezela hamabigarrena, hamahirugarrena… Txapa mordoa ditugu gertatuta, eta horiek jantziko dituzten *ahobizi*-ak eta *belarriprest*-ak behar ditugu", dio Larraitz Berezibar dinamizatzaileak.

Herritar talde batek hartu du ekimena bideratzeko ardura, eta Berezibarrek aurreratu du irailean hasiko dituztela ekitaldirik garrantzitsuenak: "Izena ematea ko epea irailaren 20an zabalduko dugu; Internet bidez egin ahal izango da, baita herriko hainbat gunetan ere. Emango dugu horren guztiaren berri". Era berean, jakinarazi du San Migel jaietan Euskaraldiaren 24 orduko entsegu bat egin gura dutela: "Jende asko izango da kalean, eta esperientzia hori bizitzeko aukera eman gura dugu".

**Gonbidapena herritarrei**

Iraila iritsi bitartean, motorrak berotzen jarraituko dute, "tantaz tanta" herritar guztiengana iristeko, Euskaraldian parte hartzeak zer esan gura duen jakinarazteko eta rolak zeintzuk diren ezagutzera emateko. Hala, aretxabaletar guztiak gonbidatu ditu ekimenera: "Euskaraz ulertzeko gai bazara, animatu *belarriprest* izatera. Euskaraz berba egiteko gai bazara, izan *ahobizi*, baita hizkuntza ohiturak aldatzeko gertu bazaude ere. Hortaz, animatu guztiok!"



**NEIDA GABILONDO**
KUTXAKO LANGILEA

"*Ahobizi* izango naiz eta horrek dakar hartuta ditudan ohitura batzuk aldatzea; hain zuzen, hori da euskaldun zaharrok dugun erronka handiena".



**JOSE RAMON QUINTANILLA**
ERRETIRATUA

"*Belarriprest*-a naiz ni; hortaz, euskaraz egin niri. Saiatzen naiz berba ere euskaraz egiten egunerokoan: lagunartean, senideekin…".



**KEPA ERRASTI**
AKTOREA

"Ekimen benetan interesgarria iruditzen zait, kontzientzia hartzeko baliagarria guztiontzat. Ni beti saiatzen naiz lehenengo berba euskaraz egiten".



**XUBANE GARAI**
IKASLEA

"Gustura hartu dut ardura; izan ere, euskaraz bizi naiz ni, eta ez da aparteko lana izango. Ea lortzen dugun gazteen artean euskara sustatzea".

## Elkarrekin bazkalduta agurtu dute ikasturtea Auzokokoek

Hogei lagunetik gora elkartu dira urtean zehar, eta egindakoarekin eta ikasitakoarekin "pozik" bukatu dute

**M.A.** ARETXABALETA

Sahararrak, marokoarrak, pakistandarrak eta beste hainbat jatorritako lagunak –hogeitik gora– elkartu dira aurten ere Loramendi elkarteak gidatzen duen Auzoko egitasmoaren bueltan. "Aparteko giroa" izan dute, beste behin, Nerea Zubillaga dinamizatzailearen esanetan, eta, "arrankatzea kosta" egin bazitzaien ere, ondoren martxa polita izan dute eratutako bi taldeek.

"Helburua da euskarara gerturatzea era informalean, baina aurtengo taldeek jolasak baino gehiago gura izan dituzte, ikasteko gogoz etorri dira eta", dio Zubillagak. Hori horrela, irudihiztegi bat egin diete, eta harekin "gogotsu" jardun dute lanean; herria ezagutzeko ginkana jolasa ere antolatu zuten.

Ikasturtea elkarrekin bazkalduta bukatu dute: "Datorrenera begira ordu gehiago eskatzen dabiltza; hortaz, zerbait pentsatu beharko dugu".



Ikasturteari agur esateko elkartutako lagunak. M.A.

# Drogen ondorioak ezagutzeko egonaldia

UDAk eta San Juan de Dios ospitaleak abian jarritako proiektuaren barruan, beste pauso bat eman dute lau jokalarik: ospitaleko hainbat pazienterekin egonaldia Arespalditzan (Araba). Pozik itzuli dira handik, eta dagoeneko hasi dira lanean datorren urtera begira

**Mirari Altube** ARETXABALETA

"Arespalditzara joateko boluntarioak eskatu zituzten, eta segituan eman genuen izena", diote Josu Aizpuruak eta Eñaut Beltran de Herediak, 17 urte dituzten UDAko futbol jokalariek. Ondoren, beste biak konbentzitu zituzten: Markel de Cesero eta Unax Barrainkua. UDAk eta San Juan de Dios ospitaleak irailean abian jarritako drogen gaineko proiektuaren baitako esperientzia izan da; laurendako "esperientzia ahaztezina" eta berriz ere errepikatuko luketena.



De Cesero, Aizpurua, Beltran de Heredia eta Barrainkua. MIKEL ZUMALDE

**Jokalariak, taldeen gidari**

San Juan de Dios ospitaleko Emilio Martin psikologoak gidatu zuen egonaldia. Arespalditzan (Araba) elkartu ziren lau jokalari aretxabaletarrekin batera Madrilgo Nebrija unibertsitateko hamabost ikasle –erizaintzakoak eta fisioterapiakoak– eta San Juan de Dios ospitaleko bederatzi paziente. Jokalariek dagoeneko ezagutzen zituzten paziente horietako batzuk, urtean zehar hainbat jarduera landu dituztelako haiekin; gainerako guztiekin lehenengoz elkartu ziren. Hiru talde osatu zituzten eta jokalari bakoitza talde horietako baten gidari izan zen –talde batean bi egon ziren–. "Batez ere, jatorduak gertatzeko izan ziren talde horiek; gosariak, bazkariak eta afariak taldean gertatu ditugu, txandaka", diote.

**Ariketak eta kirol jarduerak**

Ekain hasieran egindako lau eguneko egonaldian, hainbat jarduera izan zituzten: ariketak taldean; drogen gaineko hitzaldia, ertzain batek emana; eta naturaz gozatzeko jarduerak. "Taldeko ariketak interesgarriak izan ziren, baina benetan elkar ezagutzen atsedenaldietan hasi ginen, kontu-kontari jardun genuenean", diote. Lana bakarrik ez, kirol jarduerak ere izan zituzten:

**"EUREK BIZITAKOAK KONTATU DIZKIGUTE PAZIENTEEK ETA ZER PENTSATUA EMAN DIGUTE HORIEK"**

"Errekan behera jaitsi ginen, eta oso ondo pasatu genuen. Hasieran, pazienteren batek edo bestek ez zuen egin gura izan, baina oso pozik bukatu zuten guztiek".

**Datorren astean, partidua**

Bizitakoarekin oso pozik itzuli dira gazteak: "Aurreiritzi askorekin joan ginen, eta ikusi dugu gaixotasun bat duten pertsonak direla, besterik ez", adierazi dute, eta gaineratu: "Bizi izandakoaren berri ematea oso gustuko zuten eta sekulakoak kontatu dizkigute; horrek zer pentsatua eman digu". Zer nabarmendu galdetzerakoan, argi dute laurek: "Bertako giroa. Oso harreman ona sortu da gure artean". Hortik abiatuta, datorren astean futbol partidua jokatuko dute, Ibarra futbol zelaian: "Ez da izango elkarren aurka, nahastuta baizik. Seguru asko, ostegunean jokatuko dugu".

Arespalditzako egonaldiak, baina, soka luzea ekarri du; Aizpurua eta Beltran de Heredia, esaterako, beste proiektu batzuetan sartu dituzte, beste kide batzuekin batera: "Drogen gaineko aplikazio bat sortzen lagunduko diegu Madrilgo ikasleei. Hainbat hitzaldi emango ditugu, gainera, ikastetxeetan –Arrasaten, Elorrion...– eta gurasoen aurrean. Eta 2019ko Arespalditzako egonaldia ere gertatuko dugu; begirale lez joango gara!".

## Dokumentala asteburuan

Nerabeen eta drogen gaineko dokumentala egin du Goienak: *Batekin hasten da beti*. Atzo estreinatu bazen ere, berriro emango da: gaur (19:10), bihar (12:30, 16:00, 18:15) eta domekan (21:30). Bestetik, Emilio Martin elkarrizketatu dute gaurko *Puntua*-n.

## San Juan zortzikoa eta tantaia, biharko protagonistak

Santa Ageda neska-mutil izango direnek, 2000n jaiotako gazteek, berritasunak iragarri dituzte

**Mikel Zumalde** ARETXABALETA

Udako solstizioari ongietorria egiteko egitaraua gertatu du Udalak San Juan bezpererako. Leizarra musika eskolakoek *Plaza dantza* ekitaldiarekin hasiko dituzte ospakizunak (18:00) eta ondoren, Bergarako konpartsako buruhandiek eta erraldoiek girotuko dituzte kaleak. Dantzaldiari ekingo dio, gero (21:00), Gabezin taldeak. San Juan zortzikoa dantzatu ostean (22:30) isiotuko dute aurtengo sua.



Tantaia Herriko Plazan jarrita, iaz. M.A.

**Ohitura berreskuratu**

Datorren urtean Santa Ageda neska-mutil izango direnek, 2000n jaiotako 70 neska-mutilek, tantaia igoko dute. Horretarako, Izurieta auzoko pinudira joango dira botatzera. Hainbat berritasun iragarri dituzte, gainera. Lehenengoz megafono bat erabiliko dute, tantaia igotzen ari diren bitartean "giro egokia" sortzeko, eta segurtasuna bermatzeko aurrelanak egin dira. Gainera, azken urteetan galdutako ohitura bat berreskuratuko dute: tantaia igo ostean, irasagarra eta gazta banatuko dizkiete elkartutakoei.

## Igartua-Eraña, txapeldun

Debarro Txapelketako finalak jokatu zituzten joan den egubakoitzean Arrasaten, eta, kadete mailan, UDA elkarteko Unax Igartua eta Amets Eraña bikotea izan zen txapelduna. Hain zuzen ere, Aloña Mendiko Mikel Ugarte eta Xabier Jauregi izan zituzten aurrean, eta 22-19 hartu zituzten mendean, oso partidu parekatua jokatuta.



UDA

## Transexualitatearen gaineko hitzaldia dago martitzenean

Haurren eta gazteen transexualitatearen gainean berba egitera joango dira Chrysallis elkarteko kide Bea Server eta Elaia Jimenez datorren martitzenean, ekainaren 26an, Arkupera (18:00). Hain zuzen ere, hainbat adarri helduko diete hitzaldian, baina, bereziki, honako gai hau zehaztu dute: *Ez da nire gorputza, zure begirada da*.

Mobiliario Arenaza
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

# Konposta auzoetan, bakoitzak bere erara

Formakuntza saioa egin dute Arexolan, eta, auzotar gehienek lehendik ere egiten duten arren, hainbat argibide interesgarri jaso dituzte Ingurumen teknikariaren eskutik; etxean konposta egiten dutenen zerrendan izena emateko ere gomendatu die

**Julen Iriondo** ARAMAIO

Hondakinen kudeaketan aurrerapausoak emateko Aramaioko Udalak duen planaren barruan, auzoetan etxeko konposta egiten dutenentzako –gehiengoa– edo egin ahalko luketenentzako formazio saioa eta material eskaintza egiten ari dira azkenaldian.

Gorbeialdeko Ingurumen teknikari Jon Toña izan zen eguaztenean Arexolako elkartean auzotarrei azalpenak ematen. Datu orokor batzuk eman zituen aurrena, han bildutakoak Arabako egoeraz jabe zitezen; azaldu zuen, adibidez, Araban 418 kilo hondakin sortzen direla pertsonako urtean, eta kopuru horren %70 errefus moduan jasotzen dela, sailkatu gabe. Sailkatu gabe jasotzen den horretatik, berriz, %50 organikoa da. Horrek esan nahiko luke frakzio horren kudeaketa onak nahikotxo hobetuko lukeela kudeaketa panorama orokorra.

Ez dira Aramaiokoen moduko inguruneak –landa auzoak-eta– organikoaren kudeaketa ezegokiaren erantzule; horri dagokionez, Toñak Gasteizko kasua azaldu zuen: edukiontzi marroia jarri zutela, baina informazio kanpaina kaxkar bat eginda eta haren erabileraren kontrolerako inolako neurririk gabe –txipak, adibidez–. Horrek dakar organiko asko eta asko beste hondakin batzuekin nahastuta jasotzea, eta zati handi batek zabortegian amaitzea, ondorioz.

Aramaiokoak bezalako auzoetan, etxe asko eta askotan euren lurretan kudeatzen dute sortzen duten organikoa; ortuko pareta kontra batean, batzuek, eta bada etxean egindako konpostagailua erabiltzen duenik ere; etxeko animaliei jateko emanda ere desagerrarazten dute.

Egiten den hori hobetzeko tartea beti egoten da, ordea, eta Jon Toñak argibide interesgarriak eman zituen eguaztenean: adibidez, ez dela komeni belarra kopuru handian konposterako erabiltzea, geruza bat sortu, prozesua eten eta usainak sorrarazi ditzakeelako.

Bestalde, Toñak animatu zituen auzotarrak etxean konposta egiten duten zerrendan izena ematera, etorkizunean hobariren bat jasotzeko modurik balego, adibidez, lana aurreratuta izate aldera. Konposta egiteko materiala eskatzeko aukera ere badute auzotarrek bilerotan.



Etxean egindako konpostagailua, Arexolako ortu batean. JULEN IRIONDO

## "Oiloek jaten dituzte barazki hondarrak"

**MIGEL LOITI**
AREXOLAKO AUZO ALKATEA



J.I.

Formakuntzaz eta auzoaz dihardu.

**Zer iruditu zaizu saioa?**
Egin beharrekoak dira halakoak. Aukerak baditugu hondakinak sailkatzeko, baina askotan ez dugu egiten, eta lan egin behar da; eta, bestetik, hondakinen prebentzioa dago. Organikoaren gaineko azalpenak egokiak izan dira.

**Zein da Arexolako errealitatea organikoari dagokionez?**
Hemen ez dago konpostagailurik duenik, uste dut. Badago, adibidez, egurrezkoren bat, norberak egina; eta beste batzuk pareta kontran egiten dute konposta. Hori bai, gaur Jonek azaldutako detaileak ezagutu gabe. Eta, bestetik, hemen ganadu gutxi dago, baina oilo asko. Eta haiek jaten dituzte barazki hondarrak, letxuga orriak, tomate soberakinak eta horrelakoak.



Ikuskizunean parte hartuko dutenetako batzuk. LARRAITZ ARRIOLABENGOA

# Papargorri abesbatzaren antzerki musikatua, eguenean

Beste urte batzuetakoarekin alderatuta, formatu desberdina izango du jaiak hasi bezperako saioak

**J.I.** ARAMAIO

Hilabeteak daramatzate Papargorri abesbatzako kideek datorren egueneko saioa prestatzen. Saio berezia izango da, ez da abesbatzaren ohiko kontzertu bat izango, eta bai "nahikoa muntaia handia", abesbatzakoen arabera.

*Eta orain zer?* da ikuskizunaren izenburua, baina Papargorrikoek ez dute hori baino zehaztasun askoz gehiago eman nahi izan, kultura etxera ikusi eta entzutera doazenei –19:00etan hasiko da– ezustekoa eman nahi diete eta: antzerki musikatu bat izango dela, hori bai, eta, abestiez gain, agertokiko atrezzoa, mozorroak, eta abar eurek prestatutakoak direla. Baita, adin tarteka banatu gabe, aurtengo saioa denek batera egingo dutela ere.

Ilusio handiz hartu dute abesbatzakoek aurtengo erronka, eta, horren erakusle, apirileko azken asteburuan Ozetako aterpetxean egon ziren denak emanaldia prestatzen.

Hiru saio garrantzitsuenetako bat da jaietakoa abesbatzarentzat, Gabonetakoarekin eta Arabako Haur Abesbatzen Egunekoarekin.



NIRE USTEZ

**ANDERE ARRIOLABENGOA**

## Inongo lekuak

Azkenean iritsi da 26 jatorri desberdinetako 629 etorkin zeramatzan *Aquarius* itsasontzia Valentziako portura. 629 bihotz, 629 amesgaizto, 629 itzulerarik gabeko porturatze.

Gurean, 46 etorkin abandonatu zituzten Donostiako autobus geltokian. Ustez, Almeriako Gurutze Gorriak artatu eta autobus batean sartu zituen inongo helmugarik gabe.

Zenbat ez ote dira gelditu munduko hilerri handiena bihurtu den Mediterraneo itsasoko uretan. Eta iristen direnak ez dira inoiz hemengoak izango. Izateari utzi baitzioten bere sorterria atzean utzi zuten momentuan. Ez dira ezer eta ez dira inongoak.

Sarrionandiak ederto ezagutzen ditu inongo lekuak. *Geratu egiten gara ala joan. Hala ere, geratzen garenean ez al gara apur bat joaten? Eta joaten garenean ez gara geratu egiten? Ezinbestekoa al da abiatzea eta ailegatu ezinean geratzea? Abiatzen dena ez da egundo inon geratuko? Ala itzuliko da? Baina, itzultzen dena abiatu zeneko lekura itzultzen da ala?*

# Hiru bat metroko txondorra egingo dute

Herriko hiru ikastetxeek antolatu dute elkarrekin azken urteetan San Juan sua, baina aurten Udalak hartu du antolaketa. Hain zuzen ere, Mikel Biain alkateak emango dio su txondorrari eta Oñatzekoek dantza egingo dute, erromeria hasi aurretik

**Oihana Elortza** OÑATI

Gaur, ekainak 22, goizean hasiko dira udal brigadako langileak San Juan suko txondorra prestatzen. "Lurzorua zaintzea oso garrantzitsua da, eta kontuan hartu behar da hori. Horretarako, hondarra botatzen dugu lehenengo, blokeak jartzen ditugu gero, eta horien gainean txapa handi bat. Txondorra xafla horren gainean egiten dugu, egurrarekin. Tronkoen azalak ere erabiltzen ditugu; txondorraren buelta osoan jartzen ditugu, egur pilari forma emanez", azaldu du Andoni Beristainek, Udaleko brigadaburuak.

Txondorrak hiru bat metroko altuera izango du eta inguruan hesiak jarriko dituzte.

**Alkateak**

Zapatuan, San Juan bezperan, piztuko dute txondorra, 22:30ean. Mikel Biain alkateak emango dio su aurten. Udako solstizioaren jaia, baina, iluntzean hasiko da ospatzen Oñatin, 18:30ean herriko txorimalo eta buruhandiekin egingo den kalejirarekin. 22:00etan, eta sua piztu bitartean, alde batera utzi gura diren gai zaharrak orri batean sutara botatzeko aukera izango da.

San Juan sua piztuta dagoen bitartean, Oñatz dantza taldeko dantzariek urteko dantza egingo dute aurten ere: San Juan Sua izeneko dantza. Foruen plazan izango da hori, txondorraren bueltan. Aita Madina txistulari taldeko txistulariak izango dituzten ondoan. 23:00etan, erromeria hasiko da Erromeria taldearekin.

Laixan euskara elkartea hasi zen San Juan sua ospatzen eta azken urteetan herriko hiru ikastetxeek antolatu dute elkarrekin. Baina iazkoa euren azkena izango zela iragarri zuten ikastetxeek eta aurten Oñatiko Udalak hartu du antolaketaren ardura.



Joan den urteko San Juan sua. MIREN ARREGI

## "Horeietatik babesteko egiten dira sanjuanetako lore sortak"

**MAIXOL BOLINAGA** HERRITARRA



GOIENA

San Juan lore sorta nola egiten den erakutsiko du gaur, Lagun Leku elkartean, Maixol Bolinaga araoztarrak, 17:00etan.

**Zer lorek osatzen dute sorta berezi horiek?**

Guk ikusi dugu etxean lau lore eta landare hauek izan behar dituztela ezinbestean: zinta-belarra, espartinak, sanjuantxoak eta aneta. Horiek hartu eta momentuan etxean dauden beste edozein landare gehitu dakizkioke sorta horri: arrosak, berakatz buru bat, kipula, gereziak, mahats hosto bat, garia... Kotoizko sokak erabiltzen ditugu, gero, sorta ondo lotzeko.

**Etxe atarian jartzeko izaten dira?**

Bai, horeietatik babesteko. Baserri batzuetan, esaterako, horeia dagoenean lore sortako lakatz batzuk erreten dituzte.

**Ze iraupen du sortak?**

Urtebete irauten du. San Juan bezperan erretzen dira eta berria San Juan eguneko mezan bedeinkatzen da.

**Araotzen eta Arantzazun ondo mantentzen den ohitura ei da.**

Bai; batez ere, Arantzazun. Han San Juan egunez, aste barruan tokatuta ere bai, meza berezi bat egiten da eta auzotar asko joaten dira lore sortak bedeinkatzea. Gazteei erakusten ere saiatzen gara, ohitura gal ez dadin.

## Hamaikakoa 19:30ean aurkeztuko dute, Foruen plazan

Euskaraldiko hamaikakoa iluntzean ezagutuko da eta ekimena herrian zabaltzen lagunduko dute

**O.E.** OÑATI

Gaur, egubakoitza, 19:30ean Foruen plazan egingo den herritar guztiendako ekitaldian aurkeztuko da Oñatin Euskaraldiaren hamaikakoa osatuko duten pertsonen zerrenda. Horietako batzuek betidanik ezagutu, maitatu eta hitz egin dute euskara; beste batzuek, ez hain aspalditik. Edozelan ere, denak ere prest agertu dira Euskaraldiak iraungo duen hamaika egunetan eredu izateko.

Bi rol nagusi beteko ditu hamaikako horrek: *ahobizi*-ek ulertzen dutenei euskaraz egingo diete. Baita ezezagunei lehen hitza ere. *Belarriprest* izatea erabaki dutenek, berriz, eurei euskaraz berba egiteko konpromisoa hartu dute, ulertzen dutelako.

Euren konpromisoa publiko eginez, Oñatin ekimena zabaltzen lagunduko dute herritar horiek. Izan ere, kide bakoitzak beste hamaika laguni Euskaraldian parte hartzeko gonbita egingo die. Eta orduan, 121 *ahobizi* eta *belarriprest,* gutxienez, izango dira Oñatin.

### Zumaiako parroko oñatiarra hil da, auto istripuan, Nafarroan

Mikel Biain, abade oñatiarra, auto istripu batean hil zen atzo, eguena, Nafarroako Itza herrian. Guardia Zibilak jakinarazitakoaren arabera, 10:00ak inguruan gertatu zen ezbeharra; oñatiarra zihoan autoak zisterna-kamioi baten kontra egin zuen talka. Mikel Biainek 43 urte zituen eta 2016ko urritik Zumaiako parrokoa zen.

### Udaleku irekietako bilerak eguaztenean egingo dituzte

Aurtengo udaleku irekietan parte hartuko duten umeen gurasoendako bilerak datorren eguaztenean, ekainak 27, egingo dira, gaztelekuan; 18:00etan gazteleraz eta 19:00etan euskaraz. Aurtengo udalekuak uztailaren 2an hasiko dira, eta zer egitarau prestatu duten eta taldeak nola antolatu dituzten jakinaraziko zaie gurasoei.



O.E.

## Historiako kale erakusketa

*Oñati, denboraren oinatza* du izena Elkar Heziko DBHko 2. mailako ikasleek egin duten kale erakusketak. Oñatiko antzinako argazkiz eta azalpenez osaturiko panel informatiboak jarri dituzte herriko hainbat gunetan: Olakuan, Etxaluzeko iturrian, Foruen plazan, Kale Zaharrean, Bidaurretan... Ekainaren 29ra arte egongo da ikusteko moduan erakusketa hori.



Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleen emanaldia 2016ko ekainean. O.E.

# Musika ikasleek irekiko dute Kalean egitasmoa

Jose de Azpiazu musika eskolak iluntzean egingo du kurtso amaierako emanaldia Foruen plazan eta horixe izango da Kalean egitasmoko lehen ekitaldia. Zirika Zirkus, Gari & Maldanbera, Juan Valls, Ventos de Saudade eta Ganbara ere egitarauan daude

**Oihana Elortza** OÑATI
Arratsaldean, 18:30ean, egingo dute kurtso amaierako emanaldia Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleek. Herbehereetan maiatzean egin zen Europako musikari gazteen jaialdian parte hartu zuen taldeak egingo du emanaldia. "Talde bakarra da, baina instrumentu asko entzungo ditugu: eskusoinua, perkusioa, haizezkoak... Beste urte batzuetan, talde gehiagok parte hartu izan dute amaierako ekitaldian, baina aurten, aurretik ere egin ditugu kontzertuak eta *Afrika* ikuskizuna ere ikasturte amaiera aldera egin dugu", azaldu du Aitor Madinak, musika eskolako zuzendariak.

Gaurko emanaldia egingo duen taldean 26 lagun egongo dira, baina ikasle gehiagok ere hartuko dute parte. "Eurek jotzen dituzten pieza batzuetan, hizkuntza musikala ikasten ari diren ikasleek dantza egingo dute, eta ehun bat izango dira", zehaztu du Madinak.

**Kalean**
Astean aurkeztu du Udaleko Kultura Sailak udako kultura eskaintza eta gaurko emanaldiak zabalduko du egitaraua. Aurreko urteetan moduan, estilo eta gustu ezberdinetako kontzertu eta ikuskizunak egongo dira Oñatin uztailean eta abuztuan, eta, espazioei begiratuta, toki berri bat estreinatuko dute aurtengo Kalean egitasmoan: Kirrukua lorategia.

Hain zuzen ere, Ganbara Faktoriak hilaren 29rako prestatu duten musika ikuskizuna egingo dute Kirrukua loraategian. Euskal mitologiari buruzkoa izango da. 125 pertsonako lantaldea osatu dute ordu eta erdi iraungo duen ikuskizuna aurrera eramateko: 40 abeslari, bost musikari eta 20 aktore eta beste 20 produkzio lanak egiten. Mitologiako 12 pertsonaia ere agertuko dira. Bi modu daude sarrerak erosteko: *online* bidez, *www.ganbara.sacatuentrada.es* atarian; eta Txokolateixian. Aurrez erosiz gero, nagusiek hamabost euro ordaindu beharko dute eta haurrek, berriz, hamabi. Egunean bertan, hemezortzi eta hamabost.

**EMANALDIAK ESPAZIO IREKIETAN ETA ASTE BARRUAN ZEIN ASTEBURUAN IZANGO DIRA**

**Kalean**
Kalean egitarauaren barruan joko duen beste oñatiar bat Juan Valls musikaria da. Horiez gain, baina, Gari&Maldanbera zuzenean ikusteko aukera ere izango da, baita Portugalgo fadoak abesten dituen Soraluzeko Ventos de Saudade taldea ere.

Irailaren 2ra arteko egitaraua prestatu dute. "Aurtengo ekitaldiak ere herriko espazio irekietan eta aste barruan zein asteburuan izango dira", dio Nerea Zubiak, kultura zinegotziak.

## "Oso eskertuta nago Oñatitik jasotzen dugun laguntzagatik"

**MARI KARMEN MARKULETA** MISIOLARIA
Mesedetako moja oñatiarra eta medikua Kariben

**O.E.** OÑATI
Dominikar Errepublikan du egoitza nagusia Markuletak, baina beste zazpi herrialdetako osasun arduraduna da. Bi urtean behin etortzen da jaioterrira. Gaur, misio taldearen elkartasun afarian egongo da, Bidaurretan.

**Hamar urte egin zenituen Oñatin, baina ez zinen ohitu eta hara bueltatu zinen.**
Gurasoak zaintzen egon nintzen hemen hamar urtez, bai, baina herrialde haiek gehiago betetzen naute.

**Zein lan egiten duzu han?**
Dominikar Errepublikako ospitale bateko zuzendaria naiz. Aldi berean, Peru, Kolonbia, Bolivia, Kuba, Haiti, Panama eta Puerto Ricoko gure ospitaleetako arduraduna ere banaiz. Herrialde horietan osasun etxe asko eraiki ditu Elizak gobernuko laguntza heltzen ez den eskualdeetan, eta horien ardura dut. Zortzi herrialde horietako osasuna, geriatria eta gizarte ekintzak dira nire ardura. Hala, batetik, medikamentuendako laguntza lortzea da nire lana, baina baita gizarte mailako proiektuak egitea ere.

**Zein proiektu, adibidez?**
Kolonbian, prostituzioan lan egiten duten emakumeei formakuntza ematen diegu eta euren seme-alabekin ere egiten dugu lan. Baita mehatxatuta dauden indigenekin ere. Haitin, lurrikarak utzi zituen umeendako aterpetxe bat ari gara egiten.

**Laguntza handia jasotzen duzue?**
Hemengo botika guztiak eramango nituzke hara, baina mugetan kontrol zorrotzak pasatzen ditugu eta ez da erraza. Oñatiko Udalak eta misio taldeak diruz asko laguntzen digute eta oso eskertuta nago.


Markuleta bere jaiotetxe aurrean.


NIRE USTEZ
**MIEL GURIDI**

## Oñatiko hamaikakoa jendaurrera

Lerro hauek argia ikusiko duten egun berean aurkeztuko zaio ofizialki Euskaraldia Oñatiko herriari. Hobeto esanda, hamaikakoa da aurkeztuko dena. Eta, zer da hamaikakoa? Futbol taldea? Egia esan, munduko txapelketa jokatzen ari den honetan, nahasgarri samarra gerta daiteke.

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean, Euskaraldia izango da martxan Euskal Herrian. Dagoeneko 350 udal inguruk eman dute izena ekimen horretan parte hartzeko eta Oñati horietako bat izango da. Ekimena urte amaieran egingo den arren, motorrak berotzeko garaia da. Hamaikako hori herrian aurki daitezkeen hainbat hizkuntza-profiletako lagunek osatzen dute eta Euskaraldian parte hartzera gonbidatuko gaituzte. Pertsona horien artean aurkituko ditugu euskaraz hitz egiten duenak, euskara ulertu bai, baina hitz egiteko zailtasunak dituztenak, nagusiak, gazteak, ospetsuak, hain ospetsuak ez direnak… baina guztiak ahalegina egiteko prest. Animo, opor ostean etorriko dira-eta etapa berriak.

# "Garaipena asimilatzen ari naiz oraindik"

**XABI MURGIONDO** TXIRRINDULARIA

23 urtez azpiko Euskadiko Txapelketa irabazi berri du Ampo taldeko txirrindulari oñatiarrak; hasieran sinestea kostatu zitzaion arren, "oso pozik" dago lortutakoarekin

**Eneko Azurmendi** OÑATI

Espainiako Txapelketa lehiatuko du Murgiondok. Gaur erlojupekoa eta bihar errepidekoa.

**Zer sentitzen du batek Euskadiko txapeldun izanda?**

Momentuan, poza eta emozioa. Denboraldi hasiera gogorra eduki dut, eta horrelako garaipen bat lortzea oso hunkigarria izan da niretzat eta nire familiarentzat. Hasieran, sinestea kosta egin zitzaidan, baina, egunak aurrera joan ahala, lortu dudana asimilatzen ari naiz. Egia esan, oso pozik nago.

**Nola joan zen lasterketa?**

Hasieran, hamabost txirrindulari inguruko ihesaldia egon zen, eta nire taldeko hiruk lortu zuten ihesaldi horretan sartzea. Atzetik etorrita, hiru indartsuenak gelditu ginen eta harrapatu egin genituen ihesaldiko guztiak, Unai Cuadrado taldekidea izan ezik. Azkenengo igoeran, aurrera egin eta Cuadradorekin bat egin nuen. Biok batera iritsi ginen helmugara.

**Eta irabazten utzi zizun. Zergatik?**

Urte osoan zehar itzulietako sailkapen nagusia lehiatzen ibili da, eta ni berari laguntzen egon naiz lasterketa guztietan. Beraz, laguntza hori eskertzeko modu bat izan da niri irabazten utzi izana, eta benetan eskertzen diot, detaile polita izan da. Iaz berak irabazi zuen Euskadiko txapelketa eta aurten nire txanda zela esan zidan, txantxetan.

**Lau egun lehenago Gipuzkoako erlojupeko txapelketa eduki zenuen, eta bigarren postua eskuratu.**

Castelloko itzulitik oso nekatuta iritsi nintzen. Hala ere, lasterketa txukuna egin nuen eta bigarren sailkatu nintzen, nahiz eta irabaztetik urrun ikusi nuen neure burua.

**Iazko garaipena ezin izan zenuen errepikatu, beraz?**

Ez, eta, alde horretatik, amorru apur bat ere eman zidan. Nire helburua zen erlojupeko txapeldun izatea bigarren urtez jarraian. Hala ere, taldekide batek irabazi zuen, Mikel Azparrenek, eta asko pozten naiz beragatik.

**Gero, ordea, sari potoloago bat eskuratu duzu.**

Hala da. Euskadiko txapelketa irabazita, Gipuzkoako erlojupekoa itzalean bezala geratu da, eta, egia esan, nahiago dut modu honetara, alderantziz baino. Denboraldi hasieran, sinatuko nuen Gipuzkoako erlojupeko txapeldunorde eta Euskadiko txapeldun izatea.

**Aipatu duzu denboraldi hasiera gogorra izan duzula.**

Bai. Denboraldia ondo hasi nuen. Espainiako Kopan parte hartzen ari nintzen. Hamar lasterketa inguru izaten dira eta martxo hasiera zen, Kopako laugarren lasterketa, Murtzian. 20 bat txirrindulari gindoazen, eta jaitsiera batean erori egin nintzen. Eskuan puntuak eman behar izan zizkidaten. Horrez gain, belaunean kolpe txar bat hartu nuen, eta asko hazi zitzaidan. Ez zekiten zerbait apurtuta nuen edo ez, eta hamar egun geldi-geldi egon behar izan nuen. Hezur barruan odolbildu bat nuen eta horrek min egiten zidan. Zorionez, ondo errekuperatu naiz.

**Hain gaizki pasa ostean, maila honetako garaipen bat lortzeak indarra emango zizun, ezta?**

Bai; momentu gogorrak izan dira. Neguan ordu asko pasa nituen entrenatzen, denboraldia ondo hasteko. Ilusio handiarekin nengoen, eta hasi bezain laster halako lesio bat izateak min handia eman zidan, fisikoki zein psikologikoki. Baina benetan berezia izan da arantza hori Euskadiko txapelketa irabazita kentzea.

**Orain, Espainiako Txapelketa, Castellon. Ze helbururekin zoaz?**

Erlojupekoan ea lehen hamarretan sartzen naizen, iaz moduan. Errepidekoa loteria da. Interes asko nahasten dira: taldekideak, batetik, eta selekzioa, bestetik. Baina ea aurrealde horretan ibiltzerik daukadan.


Xabi Murgiondo, Oñatiko plazan. ENEKO AZURMENDI

## "BEREZIA IZAN DA LESIOAREN ARANTZA EUSKADIKO TXAPELKETA IRABAZITA KENTZEA"

# "Pozik" da Aloña Mendi denboraldiak emandakoarekin

Pasa den egubakoitzean egindako batzar orokorrarekin amaitutzat eman zuen denboraldia futbol sailak

**E.A.** OÑATI

Erregional Preferente mailako taldeak lehen itzuli bikaina egin arren, bigarren buelta eskasak jarraipena eman zion, eta horrek liga laugarren postuan bukatzea ekarri du. Ondorioz, datorren denboraldian ere maila berean jarraitu beharko du aurrerantzean Endika Ruizek zuzenduko duen taldeak. Arlo ekonomikoari dagoenez, kontuak saneatuta daude; izan ere, 8.000 euroko etekinak lortu dira.

**Emakumeen taldea, "bikain"**

Emakumezkoen lurralde mailako taldearen "denboraldi bikaina" ere nabarmendu gura izan zuten egubakoitzeko batzarrean. "Talde horrek, bai joko mailan, baita ekipoak izan duen giro bikainaren ondorioz, denboraldi honetako albiste pozgarrienak eman dizkigu".

**Beste zenbait gai**

Batzar orokorrean, zuzendaritza batzordeak bestelako zenbait gai ere mahai gaineratu zituen: datorren denboraldian Udaleko ordezkariekin futbol zelaia berritzea eta aldagela zaharren egoeraren azterketa egin beharra; Azkoagainen aparkalekuekin dagoen arazoa berraztertzea; Erregional Preferente mailako taldearen ardura Endika Ruizek hartzeaz gain, prestakuntza fisikoaren ardura Aimar Lizarrak izan dezakeela eta koordinatzaile nagusi lanetan Julen Barrena eta Aritz Garmendia arituko direla. Azkenik, Oñatiko bi futbol jokalariren egoeraren berri eman zen: Elene Guridi Eibar taldetik Realera joan dela eta, bestalde, Andoni Ugarte, hainbat urtetan Realean aritu ondoren, hurrengo denboraldirako baja izango dela.

## Abian da 2018ko herriko pilota txapelketa

Dagoeneko martxan da txosna batzordeak eta Aloña Mendiko pilota sailak antolatutako herriko pilota txapelketa. Izan ere, astelehenean jokatu zituzten lehenengo partiduak eta aste osoan beste zenbait partidu ere jokatu dituzte.

Ekainean eta uztailean, astean hiru partidu jokatuko dituzte: astelehenetan, eguaztenetan eta egubakoitzetan, guztiak 17:30ean hasita, plazako pilotalekuan.

Gizonezkoetan, 29 bikote ariko dira, bost bikoteko bost eta lauko multzo baten banatuta. Horietatik 16 bikotek egingo dute aurrera, final-zortzirenetara.

Emakumezkoetan, berriz, hamar bikotek eman dute izena, eta bost bikoteko bi multzotan banatu dituzte. Horietatik lauk, multzo bakoitzeko bi onenek, egingo dute aurrera, finalerdietara. Finala irailaren 30erako aurreikusten dute.

## Astelehenean hasiko dute udako 'Bizi kirola' kanpaina

Astelehenean, ekainak 25, hasiko dute *Bizi kirola* kanpaina, eta Zubikoatik hori gogorarazi nahi izan dute. "Udaleku irekiak uztailaren 2an hasiko dira eta aurreko urteetan jendea nahastu eta berandu etorri izan da uda kanpainara. Horregatik, aurten gogoratzeko mezu bat zabaltzea pentsatu dugu". 775 gaztek eman dute izena aurten.

## The Nekrobabies taldearen kontzertua gaur, Pako tabernan

The Nekrobabies talde legazpiarrak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, 22:00etan, Pako tabernan. *The Tour Of Selfdestruction* izeneko biraren baitako emanaldia izango da gaur gauekoa. Hain zuzen ere, disko berria aurkezteko egiten ari dira bira. *The Process of Selfdestruction* izena du azken disko horrek. Sarrera doan da.



Haurrak kontzejupen pilotan jokatzen. GOIENA

# Badator Kontzejupe Pilota Txapelketa

Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatuta, udaletxe azpiko arkupeetan jokatzen den eskupilota txapelketaren hamaseigarren edizioa izango da aurten. Goizean gazteek jokatuko dituzte partiduak eta arratsaldean, berriz, nagusien txanda izango da

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Zapatuan jokatuko da Kontzejupe Pilota Txapelketa. Goizean, 10:00etatik aurrera, 9 eta 12 urte bitartekoen, 13 eta 15 urte bitartekoen eta emakumezkoen txapelketak jokatuko dira, eta 15:30etatik aurrera gizonezkoen txanda izango da; 16 urtetik gorakoena, hain zuzen ere. Izenematea egunean bertan egin beharko da, txapelketa hasi aurretik, kontzejupean bertan.

### Ohitura gal ez dadin

Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatutako ekimena egiten dela badira hainbat urte, eta aurtengoa hamaseigarren edizioa izango da. Aspaldi, egiten zen txapelketa, eta berriz antolatzen hasi ziren Atxorrotx Kultura Elkarteko kideak; izan ere, lehengo garaietatik gaur egunera arte, kontzejupean pilotan jokatzeko ohitura galtzen ari zela ikusi zuten. Hori horrela, San Pedro jaien aurretik, urtero antolatzen dute, ohitura gal ez dadin.

### Gakoa, trukoak jakitea

Eskoriatzako udaletxe azpiko txokoa frontoi bitxia da eskupilotan jokatzeko. Bertan asko jokatu duenak badakizki aurkariari irabazteko dauden trukoak, eta, horiek zeintzuk diren jakinez gero eta jokaldiak ongi irtenez gero, garaipena eskuratzeko puntu asko dituztela badakite parte-hartzaileek. Esaterako: udaletxeko atera pilota botata, atzeko paretan pilota errebotatuz, eskuin aldeko horma saihestuz pilota plaza aldera botata, besteak beste.

Antolatzaileen esanetan, egunean bertan eman behar da izena, baina hainbat herritar etorri zaizkie izena emango dutela esanez. Honela adierazi du

**AURTENGOA KONTZEJUPE PILOTA TXAPELKETAREN HAMASEIGARREN EDIZIOA IZANGO DA**

Enrike Iregik, antolakuntza taldeko kideak: "Urtero animatzen direnez gain, emakumezkoetan lau bikotek emango dute izena aurten. Txapelketan parte hartzera animatu nahi ditugu herritarrak, edo partiduak ikustera etor daitezela, giro aparta izaten baita…".

### Izen-ematea handitu guran

Txapelketa horretaz gainera, *Pilota berpiztuz* ekimenarekin ere hasiak dira Tortolis ludotekakoak eta Arizmendi kirol elkartekoak. Txikienak pilotara hurbiltzeko helburua du ekimenak, eta, bide batez, kontzejupean pilotan jokatzeko zaletasuna piztu nahi da. Hain zuzen, Kontzejupe Pilota Txapelketan aurreko edizioetan baino gazte gehiago izan daitezen nahi dute antolatzaileek. Izan ere, iaz, emakumezkoen bi bikote eta gizonezkoen zortzi bikote izan ziren gazteen sailean. Helduenean, berriz, bederatzi bikote izan ziren.



Ikastaroa amaitu zutenean, *selfie*-a atera zuten. I.B

# Nagusiei mugikorrak erabiltzen erakusten aritu dira nerabeak

Hiru eguneko ikastaroa jaso dute Olazar erretiratu elkartekoek Almen-Arizmendiko ikasleen eskutik

**I.B** ESKORIATZA

Ikasturtea amaitu berri, proiektu ezberdinak lantzen ari dira Almen-Arizmendi ikastolako DBHko 3 eta 4. mailetako ikasleak, eta aste honetan, taldetxoa batu da Eskoriatzako Olazar erretiratuen elkartekoei mugikorrak erabiltzen irakasteko.

Nerabeek, irakasle paperean behar bezala sartuta, irakatsi beharrekoak ongi prestatu dituzte ikastaroa eman baino lehen. Hala, ostean, astelehenetik eguaztenera bitartean, Udal Bibliotekan batu dira nagusiekin, eta haiek zituzten zalantzak argitzen eta beste hainbat gauza berri irakasten izan dira.

### "Oso balorazio positiboa"

Iñaki Agiriano Eskoriatzako bibliotekariak proposatu zion ideia Olazar erretiratuen elkarteko lehendakariari, eta adierazi du ikasleek eta erretiratuek begi onez hartu dutela proiektu hori: "Denak oso gustura aritu dira saioetan, eta gazteek, irakastera joan arren, nagusiengandik ere ikasi dutelakoan nago. Denak irteten dira irabazten; aurrera begira, halako saio gehiago egingo ditugulakoan nago".

**EUSKARALDIA**




ESKORIATZAKO UDALA

# Euskaraldiaren murala

Kultura etxeko eraikinaren alboko paretan –Zarauztarra tabernaren parean– Euskaraldiaren murala jarriko dute gaur, horma pintatu beharrean oholean margotuta. Eskoriatzako Auritz eta Amaiur Iñurrieta ahizpek diseinatu dute irudia, eta Arizmendi Almen guneko batxilergoa bukatu berri duten sei ikasleren laguntzarekin margotu dute.

# 63 laguneko kintada, aurten, tantaia altxatzeko

Ekainaren 23an, 2001ean jaiotakoek piztuko dute San Juan sua, eta, horren ondoren, tantaia altxatuko dute. Aspaldian izan ez den bezalako kintada izango da; izan ere, 63 neska-mutikoko talde handia arduratuko da horretaz

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Ekainaren 23a San Juan bezpera da, eta, ohiturari jarraituz, Fernando Eskoriatza plazan tantaia altxatu eta sua piztuko dute datorren urtean Santa Ageda neska-mutil izango diren gazteek. Hain zuzen, 2001ean jaio ziren herriko gazteek.

Urte asko dira halako kintada handirik ez zegoela Eskoriatzan; izan ere, 63 gazteko taldetxoa izango da aurten –27 emakumezko eta 36 gizonezko–. Hala, lehenbizi, beraiek arduratuko dira txopoa bota, herrira jaitsi eta San Juan bezperan altxatzeaz.



Iaz, 2000n jaiotakoek piztu zuten San Juan sua eta tantaia altxatu. I.B

**Gaur ikusi, zapatuan ekarri**

Aurten San Juan sua eta tantaia altxatuko duten taldeko kide Leire Lezetak adierazi duenez, gaur joango dira tantaia ikustera: "Bolibar auzoko Zabalarekin batera joango gara gaur txopoa ikustera, eta nola jaitsi dezakegun ikusiko dugu. Aurten, kintada ederra gara, eta eskuz altxatzea ere eskatu diegu Udaleko ordezkariei, baina ezezkoa eman digute, arriskutsua izan daitekeelako. Zapatu goizean, txopoa jaitsi eta plaza ondoan utziko dugu; gero, afaritxoa egingo dugu; eta, sua piztu eta txopoa altxatu ondoren, Arrasateko jaietara joango gara".

## San Juan bezperako egitaraua

Zapatuan, tantaia jasotzearekin eta San Juan sua piztearekin batera, hainbat ekintza izango dira.

**Fernando Eskoriatza plazan**

- **18:00** Txorimaloaren bila. Herriko plazan elkartuko dira txorimaloaren bila joateko eta datorren urterako lore-sendorra prestatzeko.
- **19:00** Buruhandiak aterako dira.
- **22:00** 2001ean jaiotako herriko gazteek tantaia jasoko dute.
- **22:30** San Juan sua. Aurtengo sua 2001ean jaiotakoek piztuko dute.
- **Ondoren** Erromeria txistulariekin.

## Kirol sariak banatu dituzte

Pasa den zapatuan, denboraldi amaierako bazkaria izan zuten Eskoriatza Kirol Elkarteko kideek, Arrasateko Al Andalus elkartean. Egun ederra pasatzeaz batera, kirol sariak banatu zituzten elkarteko kirol sail guztien arteko jokalarien artean. Horrez gain, Joseba Iñurrategi zenaren emazte Maria Jose Landari eta Gregorio Palaciosi oroigarri bana eman zieten.



ESKORIATZA KE



Gatzagako Museotik irtenda Aretxabaletara heldu zireneko momentua. GOIENA

## Gatz Museotik Aretxabaletara, 'Gatz bidie' aldarrikatzera

Puntaik Punta ekimenera 'Gatz bidie, Leintz lotzen' lelopean iritsi ziren ibilbidea egin zuten 126 lagunak

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

126 lagun batu ziren pasa den zapatuan Leintz Gatzagako Gatz Museoan, bertatik Aretxabaletako Puntaik Punta jaialdira batzeko asmoz. Leintz Gatzaga "mugikortasun aldetik ahaztuta" dagoela aldarrikatu zuten hainbat lagunek, eta, besteak beste, bidegorria bailarako herri txikienera ere heltzea eskatu zuten, *Gatz bidie, Leintz lotzen* lelopean.

Gatz Museotik irtenda, PR-100 bidetik egin zuten ibilbidea ekimenera batu zirenek, eta Gatzaga mugikortasun aldetik bailarako beste herriekin lotzea ezinbesteko ikusten dutelako egin zuten. "Herri txikiena izanik, ahaztuta dago Leintz Gatzaga, eta mugikortasun aldetik bailarako beste herriekin lotzea ezinbesteko ikusten dugu", aldarrikatu zuten.

**Iritsiera bikaina**

Debagoieneko bidezidorren jaialdira elkarrekin heldu ziren Leintz Gatzagatik Aretxabaletarainoko ibilbidea egitera animatu zirenak –*Gatz bidie, Leintz lotzen* pankarta aurretik zutela–, eta plazan bertsoa abestu zuten guztiek batera.

## Andramaixetarako kartel lehiaketa martxan da

Leintz Gatzagako Andra Mari jaietarako kartel lehiaketarako oinarriak ezarrita, uztailaren 6ko 14:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira lanak euskarri fisikoan, udaletxean.

Kartelaren irudia librea izango da, eta honako testu hau agertu beharko da: *Andramaixak 2018, Leintz Gatzaga, irailak 7,8 eta 9*, hain zuzen ere. DIN A-3 neurrian egin beharko dira, nahi diren kolore eta teknikak erabilita, eta, kartel bakoitza kartazal itxi batekin aurkeztuta, kartazalean lelo bat duela. Kartazalaren barruan, egilearen izen-abizenak, helbidea, adina eta telefonoa jarri beharko dira. Saria 100 euro da.

## 'Aquí la tierra' saiokoak Leintz Gatzagan izan dira

Pasa den domekan, astelehenean eta eguaztenean, TVE1 katean Leintz Gatzaga ezagutzeko aukera izan da. Izan ere, *Aquí la tierra* telebista saiokoak bertan izan dira, herria ezagutzen, eta, batez ere, Juanito Bengoak egiten dituen baserriko lanak ezagutu dituzte.

Mar Villalovos aurkezle almeriarra Bengoa alkatearen Olaun baserrian izan da, eta gatzagarrak ardiekin egiten duen lana erakutsi dio. Bengoak 24 ardi ditu, eta, ardi guztiak eskuz jetzi ostean, ardi latxaren esnearekin Idiazabalgo gazta egiten izan dira. Saioa ikusi ez duenak *RTVE1 a la carta* helbidean bilatu dezake.



AGURRA

JOSE RAMON ZUBIZARRETA
ESKORIATZAKO ALKATEA

## Jaiak errespetuz goza ditzagun

2015, 2016, 2017, 2018, aurten ere herriko jaiak ate joka ditugu. Badatoz sanpedroak, hemen daude. Herritarrok sarri egiten dugun moduan, elkartzeko, ondo pasatzeko eta antolatuta dauden ekintzez disfrutatzeko erabiliko ditugunak.

Aurten ere beste saiakera bat egin dugu guztiontzako jaiak antolatzeko, eta jende askoren ekarpenek balio izan dute egitarau oparoa egiteko. Antolaketa lanetan ibili zareten guztioi eskerrik asko, lan isil horri esker ekintzaz beteriko egitaraua dugu eta.

Beste behin, argi eta garbi esan behar dugu guztiok dugula jaiez disfrutatzeko eskubidea; beraz, erabat baztertzen dugu edozein indarkeria mota, eraso sexistak barne. Jaiak beldurrik gabe ospatu ditzagun. Jaiak bai, errespetua ere bai!

Azkenik, aurten ikurrinari omenaldi berezia egingo diogunez, eskaera berezia egin nahi dizuet: atera ezazue ikurrina zuen etxeko balkoietara.

Gora Eskoriatza! Gora sanpedroak!

# EGITARAUA

## EGUENA 28

### SAN PEDRO BEZPERA

**12:00** Umeentzako MARRAZKI LEHIAKETA, herriko plazan (4-12 urte).

**13:00** *Paper margotuak: Ganuza etxeko ezkutuko altxorra.* ERAKUSKETA aurreko egunean inauguratuko da, ekainaren 27an, 19:00etan, Ibarraundi museoan.

**17:30** *KOLORE* IKUSKIZUNA, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoekin, Gorosarri plazan –euria egiten badu, Zaldibar antzokian–.

**18:00** IKURRINARI OMENALDIA Gernika plazan.

**18:30** ARIENTZAKO KANPAI JOLEEN SAIOA kanpandorretik.

**19:00** Jaiei hasiera emateko TXUPINAZOA eta PREGOIA herriko plazan. Aurtengo pregoia Angel Bañaresek, musika eskolako bandaren zuzendariak, egingo du. Ondoren, bandaren ekitaldia plazan, txistulari taldearekin eta buruhandiekin kalejira eta Arrasateko Erraldoien Konpartsaren kalejira.

**19:30** Parrokiako abesbatzak Eduardo Gorosarriren *SALBEA* abestuko du San Pedro elizan.

**19:30** KANTU KALEJIRA Atxabalta Kantuen Bizirik taldearekin.

**22:30** NAGUSIEN DANBORRADA. Aurten, danborradak omenaldia egingo dio Idoia Sudupe zenari.

**00:30** DJ KI, plazan.

## EGUBAKOITZA 29

### SAN PEDRO EGUNA

**10:00** DIANA Eskoriatzako TXISTULARI TALDEAREKIN.

**11:00** GOITIBEHERA JAITSIERA herrikoia Elorretan behera –8 urtetik aurrera–.

**11:00** Harearekin jolasteko eta eskulturak egiteko aukera, Gernika plazan.

**11:45** ELIZBIRA.

**11:50** UDALBATZA ELIZARA joango da txistulariek lagunduta.

**12:00** MEZA NAGUSIA San Pedro elizan, parrokiako abesbatzarekin.

**13:00** Musika Eskolako BANDAREN KONTZERTUA, herriko plazan.

**17:00** Kuadrillen arteko jokoak –8-12 urte, PLAZAN; eta 12-17 urte, GERNIKA PLAZAN–.

**18:00** KUADRILLEN ARTEKO JOKOAk, VII. Banderia, Santa Marina plazan.

**18:30** OIHAL AKROBAZIA erakustaldia, Gorosarri plazan.

**18:30** ESKUPILOTA partiduak, Joseba Iñurrategi pilotalekuan. Sarrerak: 5 euro. Lehen partidua: Aritz Zubia eta Mikel Etxezarreta, Asier del Camporen eta Aimar Marquezen aureka. Bigarren partidua: Xala eta Gorrotxategi, Lasaren eta Berozen aurka.

**19:30** *Niño Costrini* KALE IKUSKIZUNA, plazan.



GOIENA

**Oxabi taldearen emanaldia**
Galdakaoko erreomeria taldea, jendea dantzan jartzeko gertu.
*Plazan, zapatuan, 23:45ean*

**21:00** AFARIA, Gaztelekuan –12-17 urte–.

**22:30** NIKO ETXART eta DOM EARL & KIKI GRACIET, Gorosarri plazan –euria egiten badu, kiroldegian–.

**00:00** DANTZALDIA Puro Relajo taldearekin, plazan.

## ZAPATUA 30

**11:00** DIANA Eskoriatzako TXISTULARI TALDEAREKIN.

**12:00** Herriko hildakoen aldeko MEZA.

**12:00** ENTZIERRO TXIKIA Apotzagako bidetik Intxaurtxuetako plazara. Bertan, errekortadore eskola ibiltaria.

**13:00** SONIDOS DE MEXICO mariatxi taldea, plazan –euria egiten badu, Zaldibar antzokian–.

**16:00** 27. MUS TXAPELKETA, erretiratuen tabernan. Izena ematea: 30 euro bikoteko –15:30-16:00–.

**18:00** HAURREN DANBORRADA.

**19:30** CASTELLERS FALCONS DE VILLAFRANCA IKUSKIZUNA, herriko kaleetan eta plazan.

**22:30** *SAGARTU* IKUSKIZUNA – musika, antzerkia eta dantza–, Gorosarri plazan –euria egiten badu, kiroldegian–.

**23:45** DANTZALDIA OXABI taldearekin, plazan.

## DOMEKA 1

### EUSKAL JAIA

**11:00** DIANA Eskoriatzako TXISTULARI TALDEAREKIN.

**12:00** Musika Eskolako DANTZA TALDEA, plazan.

**12:30** TALOGILEAK ETA SAGARDO KUPELAK, herriko plazan.

**13:00** TRIKITILARIEKIN KALEJIRA.

**14:30** HERRI BAZKARIA, herriko plazan.

**19:00** BURUHANDIEN TXIRRINDULARI LASTERKETA, plaza ondoan –16 urtetik gorakoentzat–. Ondoren: Garilak 26 taldearekin dantzaldia.

**22:00** GARILAK 26 taldearekin dantzaldiak jarraituko du.

**00:00** BANDERA JAITSIERA eta suzko erruberak–suak Gernika plazatik botako dituzte–. Ondoren: dantzaldiak jarraituko du.

**12:00** 14:00ak arte eta 17:00etatik 20:00ak arte, WIPEOUT PARKEA: *salto egin, bola eroak* eta *barredora.* Dibertsioa tonaka umore laruarekin –Gorosarri eta Zaldibar antzokiko plazetan–.

MIRVAT
ESTALKETA ELEKTROLITIKOAK
Ondo ibili jaietan!



Aingeru Guarda pasealekua 41 - Eskoriatza. Tel.: 943 71 45 06
www.mirvat.com



Eskoriatzako bandako kideak Jose Arana kalean kalejiran. ESKORIATZAKO UDALA

# Txupinazoa eta pregoia, musika bandaren esku

San Pedro bezperan, ekainaren 28an, emango zaie hasiera herriko jaiei. 19:00etan izango da hori, Fernando Eskoriatza plazan, eta Angel Bañares musika eskolako bandako zuzendariak izango du txupinazoa eta pregoia botatzeko ardura

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Aurtengo pregoia Beheko Errota musika eskolako bandako zuzendari Angel Bañaresek egingo du. Bandako zuzendari izateari uztea erabaki du, 35 urteren ostean, eta, ibilbide luze horri aitortza emateko, hari eman diote Eskoriatzako Udaleko ordezkariek jaiei hasiera emateko ohorea.

1980an sortu zuten Eskoriatzako musika eskola Maria Esther Oregik eta Mari Cruz Oiangurenek. Haiekin batera, Angel Bañares eskolak ematen hasi zen bertan. Eskola sortu eta bost urtera, musika eskolako bandako zuzendari hasi zen Bañares, gaur arte, eta, hemendik aurrera, kargu horrekin jarraituko ez duen arren, musikarekin daukan lotura ez du etengo; izan ere, bandan saxofoia jotzen jarraituko du.

San Pedro bezperan, ekainaren 28an, emango diete jaiei hasiera, 19:00etan. Hala, Fernando Eskoriatzako plazara jendea gerturatzeko gonbidapena egin dute udal ordezkariek, txupinazoarekin eta pregoiarekin 2018ko San Pedro jaiei hasiera emateko.

## Bañares familia eta musika

Gaur egun, 30 musikarik osatzen dute Eskoriatzako banda, eta horietatik hamar Bañares-Bengoa familiakoak dira. Hala, aurrera begira, jende berriaren aldeko apustua egin nahi dute, azken urteotan ez baitira kide berriak sartu musika bandan.

Betiko hitzorduetan soilik hartzen du parte musika bandak, eta, ilusioa ez galtzeko eta motibazioa pizteko, hitzordu gehiagotan parte hartzea da hurrengo erronka, banda suspertzeko.

## Pauso berriak ematen hasiak

Herritik askorik ez irten arren, herrian bertan domekero jotzen zuen, lehen, Eskoriatzako bandak, herriko plazan. Gaur egun, hainbat emanaldi jotzen dituzte urteko egun berezietan; Gabonetan, Santa Sezilia egunean, musika eskolakoen ikasturte amaierako jaialdian... Aurten, gainera, Aratusteetan lehenengo aldiz jo dute kontzertua, inurrien antzera ari dira pausoak ematen, eta hala jarraitu nahi dute ibilbide berri honetan.

## "Bandak nik egin ditudan beste urte egin ditzala nahiko nuke"

**ANGEL BAÑARES** BANDAKO ZUZENDARIA

Angel Bañares igoko da udaletxeko balkoira txupinazoa eta pregoia botatzera.

**Ohore handia txupinazoa eta pregoia botatzea, ezta?**
Bai, noski. Pozik nago, baina banda osoaren izenean hitz egingo dut, denok merezi dugulako aitortza, eta ez nik bakarrik.

**Jaiei hasiera emateko pregoirako baduzu ezer prestatuta?**
Egia esan, ez. Nire semeetakoren bat igoko da nirekin batera udaletxeko balkoira, eta eurek hitz egin dezatela. Edo, bestela, prestatuko didate zerbait esateko modukoa. Nik neuk esango dudana da bandan egon naizen beste urte bete ditzala taldeak. Jarrai dezala indarra hartzen, eta gazteek ilusioz hartu dezatela bandan jotzearen ardura.



GOIENA

**Zuzendari ibilbidea amaituta, orain zer?**
Zuzendari kargua utzi dudan arren, musikari segituko dut, bandan saxofoia jotzen, hain zuzen. Edozelan ere, urte asko egin ditut lan horretan, eta erretiratzeko ordua zen. Konpromiso handia da, eta gazteei utzi behar zaie bidea egiten. Orain, nire ikasle izandako Jesus Urrutia izango da zuzendari berria, eta ni hor egongo naiz beti, laguntzeko prest.



# Danborradarako gogotsu daude parte-hartzaileak

Zortzi konpainia, zortzi pieza eta 200 pertsona inguruk hartuko dute aurten parte Eskoriatzako danborradan. 22:30ean hasiko dira herriko kaleak zeharkatzen, eta aurten zuzendari berria izango dute: Andoni Moto, hain zuzen ere

**hImanol Beloki** ESKORIATZA

San Pedro jaien bezperako ekitaldi nagusienetakoa izaten da danborrada, eta aurten ere ez du hutsik egingo. Hain zuzen, 22:30ean hasiko da ekitaldia, eta, urteroko ibilbidea eginez, herriko kaleak danbor hotsez beteko dira –San Pedro auzotik, Olazarrera; handik, Dorletara; eta, Aranburuzabala kalean barrena, Fernando Eskoriatza plazan bukatuko da–.



Iaz presoen aldeko batailoiak ateratako talde argazkia. GOIENA

**Andoni Moto, zuzendari**

Cirilo Perea izan da danborradako zuzendaria hainbat urtetan. Azkeneko urteetan, berriz, Garbiñe Nuñez izan da, eta aurten, Andoni Motok hartuko du agintе-makila: "Danborradako lehenengo batzorde batzarrera joan nintzen Eskoriatza Kirol Elkarteko konpainiaren izenean, eta zuzendari baten beharra zutela esan zidaten. Bada, niri proposatu zidatenean, gustura hartu nuen kargua. Orain, ea ondo irteten den...", adierazi du Andoni Motok.

**Zortzi konpainia eta zortzi pieza**

Iaz, 200 danbor jole izan ziren, eta aurten ere antzerako kopurua batuko da. Horrez gain, zortzi konpainiak hartuko dute parte: Elizostek, Egokienak, Gu Geuk, Amuskak, Eskoriatza Kirol Elkarteak, Eguzkilorek, Presoen Konpainiak eta Dorleta Elkarteko sukaldariek. Gainera, konpainia beste pieza joko dituzte: *Marcha San Sebastian, Diana, Tatiago, Iriyarena, Gau Ibilera (Txis Pun), Katiuska, Viejas martxa* eta *Debako martxa.*

**Idoia Suduperi omenaldia**

Eguzkilore konpainiakoekin irten izan da, urteetan, urtarrilean zendu zen Idoia Sudupe eskoriatzarra. Hala, aurtengo danborradan gogoan izango dute konpainiako lagunek, eta baita beste batailoiek ere.

Sudupez gain, aurten pregoia botako duen Angel Bañares bandako zuzendariak kargua utziko du bandan, eta, hari ere keinua egiteko, bandan aspaldi izandako musikariak batuko dira danborradara, Bañaresi sorpresa emateko.

**Berehala bazkaldu eta martxa**

Urtero moduan, 20:00etarako Joseba Iñurrategi pilotalekura joango dira afaltzera, eta honako menu hau izango dute: pasta-entsalada, oilasko-izterra patatekin eta piperrekin eta pasteltxoa. Edateko, berriz, ardo beltza eta zuria, sagardoa, freskagarriak eta ura. Eta, amaitzeko, kafea, infusioak eta txupitoa. Ostean, ibilbidean zehar egingo dituzten geldialdietarako xanpain botilak hartu –Jose Arana zaharren egoitza, Tren estazio zaharra eta Elizoste elkarte parea–, eta 22:00etarako San Pedrora joango dira. 22:30ean hasiko dute ibilbidea.



Argazkioinaxxx. ARGAZKIJABEAXXX

## Entseguetan fin-fin aritu dira

Astelehenero eta eguaztenero entseguak egin dituzte Joseba Iñurrategi pilotalekuan danborradako parte-hartzaileek, ekain osoan. Hainbatek urtero jotzen dute, eta, beste batzuen lehen aldia bada ere, maila ona dutela argi geratuko da.

## Andoni Moto, zuzendari berria

Aurtengo nagusien danborradako zuzendari berria Andoni Moto da. Beretzat egindako moduko kargua da; bandako kidea, Eskoriatza Kirol Elkartean entrenatzaile lanetan ari dena, eta edozer aurrera emateko prest dagoena. Hala, aurreikuspenak betetzen badira, urte askoan egongo da danborradako zuzendari, seguru.



Mondragon Unibertsitatea
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Ondo pasatu San Pedro jaiak!

Eskoriatzako campusa
Dorleta auzoa, z/g
20540 Eskoriatza

Aretxabaletako campusa
Otalora 31
20555 Aretxabaleta

943 71 41 57
harrera.huhezi@mondragon.edu
www.mondragon.edu

# Abiaduraren zirrara bizi izateko aukera dute

Goitibeheran parte hartzeko, izena eman beharko da; horretarako epea ekainaren 25era arte, astelehena, egongo da. Elorretan behera izango da jaitsiera, eta nabarmendu dute ez dela txapelketa izango. 8 urtetik gorakoei zuzenduta dago

**Arantzazu Ezkibel** ESKORIATZA
Herriko gaztetxoen eskaria aintzat hartuta, goitibehera jaitsiera egingo dute San Pedro jaietan, Elorretatik behera. Ekainaren 29an, egubakoitza, izango da, 11:00etan. “Honek ez du esan nahi irailean Apotzagan egiten dena bertan behera geratuko denik, hau osagarria izango da”, azaldu du Jose Angel Urrutia antolatzaileak. Nabarmendu dute ez dela txapelketa izango, saio herrikoia izango dela, 8 urtetik gorako umeek aukera izan dezaten goitibeherekin gozatzeko.

Parte hartzeko derrigorrezkoa izango da aurrez izena ematea –asegurua egiteko ezinbestekoa–. Izena emateko aukera ekainaren 25era arte egongo da. Urrutiak gaineratu du derrigorrezkoa izango dela segurtasun eta babes neurri guztiak betetzea: kaskoa, eskularruak, praka luzeak, eskeletoa... eraman beharko dituzte pilotuek.

### Bi mailatan banatuta

Bi mailatan banatuko dituzte parte hartzaileak: errodamenduzkoak eta *biktrike*. Azken maila horretan parte hartzeko oraindik erabaki barik dute PVC eraztuna erabili edo ez; abiadura moteltzeko erabiltzen da hori, baina, kasu honetan, Bolibarko jaitsiera ez da aldapa handia duen ibilbidea.

### Ikusteko leku "onak"

Parte hartzaileak bata bestearen atzetik irtengo dira, 30 segundoko tartearekin. "Elorretan behera, etxe berriak dauden tokia eta zubi ingurua izan daitezke ikuskizuna ikusteko leku aproposak", azaldu du Urrutia antolatzaileak.

Ekitaldia girotzeko, joan zen eguaztenean, hilaren 20an, goitibehera tailerra egin zuten herriko plazan. Goitibeherak konpontzeko edo egokitzeko erremintak eta laguntza jaso zituzten gaztetxoek.



Apotzagan jokatutako goitibehera txapelketa, 2017an. GOIENA

## Aurtengo jokoetarako taldeak zozketa bidez egingo dituzte

Ekainaren 29an, egubakoitza, jokatuko dute kuadrillen arteko VII. Banderia, 18:00etan, Santa Marina plazan

**A.E.** ESKORIATZA
Kuadrillen arteko jokoak –VII. Banderia– jokatuko dituzte egubakoitzean, ekainaren 29an, 18:00etan Santa Marina plazan. Orain arteko ekitaldiekin alderatuta, aldaketa txiki bat izango dute aurtengo jokoek: ez dute kuadrillaka egingo. Izena eman behar da egunean bertan, eta izena emango dutenen artean egingo dituzte taldeak. "Jende gutxiko kuadrilla batzuk ezin parte hartuta ibili izan dira, eta horregatik erabaki dugu beste modu honetara egitea. Gura duten guztiek izango dute aukera parte hartzeko", azaldu du Maite Santamaria antolatzaileak.


Kuadrillen arteko jokoak, 2016an. ESKORIATZAKO TXOSNA BATZORDEA

Egingo dituzten jokoak izango dira: *beer pingpong*, bingoa, binakako makillaje lehiaketa, *twister* erraldoia, lokotxak... Ondo pasatzeko aukera paregabea egongo da, eta amaieran sariak banatuko dituzte. Caipiriña eta mojitoa prestatuko dituzte, besteak beste, parte hartzaileak saritzeko.



San Juan kalea 12 ESKORIATZA Tel.: 652 77 53 58
MARTIN frutategia
Frutan eta txarkuterian espezialista
Ondo ibili sanpedrotan!



*Sagartu* ikuskizuneko pasarte bat. HIKA TEATROA

# Musika, dantza eta antzerkia, 'Sagartu'

"Umorez, alaitasunez eta bizi-bizi, sagarrak gure herrian ez ezik, paradisuko garaietatik hona izan dituen esanahi guztiak plazaratuko dituen kaleko ikuskizuna" da Hika Teatroak eta Oinkari dantza taldeak San Pedro biharamunean aurkeztuko dutena

**Julen Iriondo** ESKORIATZA
Jaietako zapatuan, askotariko diziplina artistikoak baten biltzen dituen emanaldiarekin gozatzeko aukera izango da Gorosarri plazan –euria egiten badu, kiroldegian–. Zuzenekoa izango da musika, eta antzerkiak eta dantzak osatuko dute saioa.

Sagarra du ikuskizunak oinarri; Agurtzane Intxaurraga zuzendariak hau dio jatorriari buruz: "Ni neu sagarzale amorratua izan naiz beti, eta, bestetik, Donostian bizita, pentsarazten zidan Gipuzkoan zein indar daukan sagarrak, baita Gipuzkoako ekonomian ere. Hor sakontzen hasi nintzen, sagardotegien inguruan, zein indar izan duten sagarraren edo dolarearen inguruan eraikitako baserriek. Eta Euskal herrian sagarrak izan duen indarraz gain, hor dago zenbat esanahi izan duen sagarrak historian zehar: paradisutik hasita, sagar perfektu hura, edo sagar ustela, Edurne Zuriren ipuina, Newtonen sagar inspiratzailea...".

Esanahi horietako asko, gainera, "emakumezkoei lotuta" zeudela eta horrek ere beragan eragina izan zuela dio Intxaurragak: "Eta gero, ikusita elementu bezala hain dinamikoa, hain borobila, hain dantzaria, pentsatu nuen hauxe zela aukera, eta horrela jaio zen *Sagartu*".

**Intxaurragaren estilokoa**

"Ikuskizun bisualak, poetikoak, kontzeptutik abiatutakoak" ohi dira Intxaurragarenak, eta horrek ere badu horretatik: "Gertatzen dena da oraingoan plazara goazela, bizi-bizi, freskotasunez, alaitasunez eta atmosfera poetiko bat ere sortu nahian; ibilbide bat dauka, sagastitik hasi eta sagarra sagardo bihurtu arte. Ibilbide hori plazan ere ikusiko du ikusleak, eta dantzariak hainbat erritmotan murgilduko dira".

Ikuskizuneko musika Iñaki Dieguezek espresuki ikuskizun horretarako sortutakoa da –Iker Telleriarekin batera interpretatzen duena–; aktore lanetan, berriz, Miren Gojenolak dihardu; testuak Arantxa Iturberenak dira; eta Eneko Gil da koreografiaren sortzailea.

Hika Teatroa konpainiaren eta Oinkari dantza taldearen ikuskizuna 22:30ean hasiko da.

## Kataluniatik bertatik, baina giza egiturak egiteko beste modu bat

Ohiko 'castell'-ekiko desberdinak diren formak egiten dituzte Falcons de Vilafranca taldekoek, beste era baten

**J.I.** ESKORIATZA
Giza egiturak egiteko modua eta azkenean hartzen duten itxura, biak dira ohiko *castell*-ekiko desberdinak Falcons de Vilafranca taldekoek egiten dutenaren kasuan. Formak askotarikoak izan daitezke, eta, egiteko moduari dagokionez, ez dira soilik batzuen hankak besteen sorbalda gainetan jarriz eraikitzen; bizkar gainean ere jartzen dituzte, esate baterako. Oinarrian ere ez dute jende multzorik behar.



Taldearen egituretako bat. FALCONS DE VILAFRANCA

Giza egituren aldaera horrek Txekoslovakian du jatorria, eta duela 80 urte inguru iritsi zen Kataluniara. Indar handia hartu zuen, gainera, eta 50eko hamarkadan 200 talde inguru zeuden herrialde osoan. Gaur egun, 11 dira gimnasia eta kirol kutsu handiagoa duen aldaera horretan diharduten taldeak.

Musika izaten dute lagun ikuskizunok. Honela, 19:30ean hasita –hilaren 30ean–, kalejiran jardungo dute aurrena, eta plazan egingo dute ikuskizuna gero.



# Ekaineko erromerietan murgilduta, Garilak 26

Garilak 26 da aurtengo Debagoieneko jaietako taldea, zalantzarik barik. Bergarako Pazkoetan izan ziren; Arrasateko sanjuanetan izango dira oraingo asteburuan; eta hurrengo astean, Elgetako Ferixa Nagusietan eta Eskoriatzako sanpedroetan

**Eneko Azkarate** ESKORIATZA
Uztailaren 1ean, Euskal Jai egunean, izango dira plaza ondoan. Jaietako azken eguna alaitzeko eta herri bazkarikoak zein bestelakoak dantzan jartzeko ardura izango dute bizkaitarrek -Sudupen dute entsegu lokala-. 2011n sortu zuten taldea eta plazarik plaza dihardute; batez ere, Bizkai aldean, baina, azkenaldian, lurraldetik kanpo ere bai: Parisen, Irlandan eta Munichen egonak dira. Urtean 40 bat emanaldi eskaintzen dituzte; batik bat, uda partean. Sasoi betebetean daude, hortaz.

Maddi Elortza uberarra (22 urte) da taldera batutako azken kidea. 2017a ezkero dihardu. Bergarako jaietan izan zen Pazkoetan eta amaren herrian, Eskoriatzan, izango da sanpedroetan. "Plaza bereziak dira Bergarakoa eta Eskoriatzakoa; badaukat harreman espeziala amaren jaioterriarekin", dio. Taldeko soinu-jolea da. Bergaran, "hasieran nerbioso samar", baina oso gustura moldatu zen. Iaz Errege bezperan Altsasuko gaztetxean egin zuen debuta Garilak 26rekin.

### "Ez da ohiko talde bat"

"Garilak 26 ez da ohiko talde bat. Erromeria taldea da, baina harantzago doa, rockari egiten dio keinua eta alboka ere izateak are eta bereziago egiten du". Gainera, oso talde "kementsua" dela dio, "zerbait ezberdina eskaintzen duena". Diskoa ere badute, 2016an argitaratua: *Adrenalinaren zain*.

Zuzenbidea ikasten dihardu Maddi Elortzak Leioan eta kurtso amaierako azken azterketetan bete-betean murgilduta dago une honetan, baina asteburuetako emanaldietarako gertu dago. Garilak 26 lehen dantzaldi-taldea da harentzat; lehenago, kalerik kale eta auzoetako jaietan aritu izan da soinua eskuan: "Oso ezberdina da eta hasieran zaila egin zitzaidan, lotsati samarra ere banaizelako; orain, gainera, ez zara zu bakarrik, besteen erritmora moldatu behar duzu, baina hartu diot puntua".


Maddi Elortza bergararra da Garilak 26 taldeko trikiti jotzailea. Argazkian, iaz irailean, Derion. AITZOL DIEZ


Niko Etxart, agertokian, duela urte pare bat. GOIENA

# "Izan gira Euskal Herrin rock and rollin" entzuteko gertu

Niko Etxartek kontzertua eskainiko du datorren barikuan Gorosarri plazan, beste musikari bik lagunduta

**E.A.** ESKORIATZA
Aspaldian ez da Debagoieneko plazetan aritu Niko Etxart zuberotarra (Altzürükü, 1953). Kontu zaharrak dira dantzaldi formatuan, beti goi mailako musikariz lagunduta, plazarik plaza aritzen zenekoa. Eskoriatzan izango da datorren barikuan, Gorosarri plazan. "Azkeneko urteotan bagabiltza ahalegin berezia egiten kontzertu ezohikoak, zainduak, ekartzeko Gorosarri plazara. Edozein adin eta gustukoren gozagarri. Oraingoan, Niko Etxartekin akordatu gara". Arantxa Unzueta Kultura teknikariaren berbak dira.

Oparoak eta askotarikoak dira Niko Etxarten musika erregistroak. Gaztaroa Parisen eman zuelarik, han arnastutako eta mamitutako musika joera berriak, rock-and-rolla, euskal kulturarekin uztartzen lehenetakoa izan zen. Euskal rocka Iparraldean sortu zela esan daiteke, Niko Etxarten beraren eta haren Minxoriak taldearen eta Errobiren eskutik, batik bat. 1975 aldean, Frantzian goreneko zerrendetara iritsi zen *Euskal rock and roll* mitikoa, urte batzuk geroago, 1979an, haren lehen disko luzean argitaratu zena.

### Hiruko formatuan

Abestiarekin lortutako arrakastarekin, 1980ko hamarkada izan zen Etxarten urrezkoa euskal plazetan. Gerora, Dominika aitarekin-eta egin izan ditu emanaldiak, soilik ahotsa lagun zuela, eta Debagoienean ere egin zuten geldialdirik aita-semeek. Zuberoako kanta zaharrak ekarri zituzten jendartera.

Datorren barikuan hiruko formatuan helduko da Eskoriatzara. Dominic Earl (gitarra, ahots) eta Kiki Graciet (ahoko soinua) lagun dituela.

LENIZ
ESKORIATZA
KONPONKETAK:
Txapa
•
Margoa
•
Mekanika
Ondo pasa sanpedrotan!
Aingeru Guarda pasealekua 31. • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 40 10



Etxalde elkarteko emakumeak Ane Gorosabelen Bergarako Elkoro baserriko oilategian, auzolanean. JOKIN BEREZIARTUA

# Elikadura burujaberako auzolanean, feminismotik

Elikadura burujabea, agroekologia eta feminismoa ardatz hartuta, Etxalde elkarteko emakumeak oilategi bat eraikitzeko eta berotegien ateak muntatzeko auzolanean aritu dira Ane Gorosabel nekazari arrasatearraren Bergarako Elkoro baserrian

**Jokin Bereziartua** BERGARA

"Elikadura burujabearen, agroekologiaren eta feminismoaren bueltan elkartu garen emakume elkartea da Etxalde. Emakume batzuk herrigunetik datoz eta beste batzuk, nekazaritza mundutik, baina erdigunean jartzen duguna da emakume baserritarren eskubideen defentsa. Hain justu, baserriaren munduan ikuspegi feminista txertatu nahi dugu eta alderantziz; mugimendu feministaren barruan elikadura burujabetzaren garrantzia azpimarratu gura dugu". Etxalde elkarteko militante eta barazki ekoizle Nadia Lopezek hitz horiekin azaldu du joan den zapatuan Bergarako Elkoro baserrian egin zuten auzolanaren filosofia.

**Hiru auzolan saio dagoeneko**

Historikoki baserrietan gauzatu izan den eta galbidean dagoen auzolanaren praktika berreskuratzea garrantzitsua dela uste dute Etxalde elkartekoek: "Elkar ezagutzeko eta koordinatzeko modu bat da auzolana eta badaroagu urtebete helburu horrekin lanean", gaineratu du Lopezek.

Oraingoz, hiru hilabetean behin saio bat egin dute: lehena Arratia inguruan egin zuten, sagarrak batzen: bigarrena Pikunieta baserrian egin zuten, gazta ekoizle bati askotariko lanetan laguntzeko; eta hirugarrena Ane Gorosabel nekazari arrasatearraren Bergarako Elkoro baserrian egin zuten. "Oilategi bat eraikitzen aritu gara eta gutako askok ez du sekula halako lanik egin. Baina hori ere bada helburua: gauza berriak egiten ikastea eta orain arte gizonezkoek egin izan dituzten lanak ere guk geuk egitea", dio Lopezek.

## LOPEZ: "ELIKADURA BURUJABEAN IKUSPEGI FEMINISTA TXERTATU NAHI DUGU, ETA ALDERANTZIZ"

**Oilategi bat eta berotegiko ateak**

Ane Gorosabel nekazari arrasatearrak duela hilabete inguru jaso zuen Etxaldekoen proposamena. "Auzolan saio bat nire baserrian egitea proposatu zidaten, eta, buruan nuenez oilategi bat egitea, aukera aprobetxatu dut. Lagun giroan askotariko emakumeak elkartzeko aukera eman digu eta, bide batez, Etxaldeko proiektuari bultzada eman ahal izan diogu; beraz, oso pozik. Oilategiak zuen lehentasuna, baina, jende askotxo geundenez, lanak banatu ditut eta berotegiko ateak muntatzen aritu gara".

Bestalde, udaberri euritsuak ez du batere lagundu baserrian. "Lan handia ematen du baserriak, baina gustura nabil". Amaitzeko, esker on hitzak izan ditu Gorosabelek: "Etxaldeko emakumeei eskerrak eman gura dizkiet eta herritarrei dei egiten diet halakoetan parte hartu eta bertako baserritarrekin harreman zuzena izan dezaten".



Hondeamakinak, harmailetan lanean. B.U.

# Urte amaierarako estalkia eta igogailua izango ditu frontoiak

Goitu Eraikuntzak enpresako langileak asteon hasi dira lanean, 286.079 euroko aurrekontuarekin (BEZa barne)

**J.B.** BERGARA

Goitu Eraikuntzak enpresak jarriko dio estalkia Boluko frontoiari, 286.079 euroko aurrekontuarekin (BEZa barne). Estalkia jartzeaz gain, mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonen irisgarritasuna bermatzeko igogailu bat jarriko dute; lanok bost hilabete iraungo dute, eta, beraz, urte bukaerarako amaituta egotea aurreikusten da. Udal Gobernuak gogora ekarri duenez, proiektu horrek Boluko auzotarren babesa jaso zuen iaz egindako galdeketan. "Helburua da auzoari eta herriari urte osorako azpiegiturak eskaintzea, kirol, aisialdi edo bestelako erabileretarako. Auzotarrek aukeratutako proiektua auzotarrek batzar irekietan, modu parte-hartzailean, egindako ekarpenekin aberastu zuten".

Estalkia egur laminatuko egitura bat izango da, *deck* estiloko akaberarekin. Hego-ekialdeko fatxada erdizka itxiko da horma gortina eta kristal bikoitzarekin eta gainontzeko aldeek ez dute itxiturarik izango. Igogailuak bi metro eta erdiko tartea izango du, eta 250 kiloko zama jasotzeko gaitasuna.

## Aranzadiren ikasturte amaierako jaia gaur, Udal Pilotalekuan

Aranzadi Ikastolak ikasturte amaierako jaialdia egingo du gaur, Udal Pilotalekuan, 18:30ean hasita. HHko, LHko eta DBHko ikasleen ikuskizuneko askotariko abesti ezagun dantzagarriez gain, Moises Aspiazu dantza taldeko dantzarien emanaldirik eta ekitaldiak sortzen dituen gastuei aurre egiten laguntzeko zozketarik ez da faltako; bertako jakiez osatutako saskia zozketatuko dute. Gainera, segurtasun arrazoiengatik, eskatu dute umekotxerik gabe joatea. Bestalde, aurten ez dute San Juan su festarik ospatuko, San Juan bezpera zapatua delako eta seminarioko karpa Mahonero Asteburua dela-eta okupatuta dagoelako.

## OHARRAK

### Dynamo zinekluba

Kartzela zaharreko ziega baten zinema aretoa jartzeko proiekturako zozketa antolatu du Dynamo zineklubak, eta 244, 531, 467 eta 612 izan dira zenbaki sarituak. Kontaktua, facebook: *@dynamogaztetxea*.

### 'Trampantojo' pintxoa

750. urteurreneko pintxoa dastatzeko aukera: hilaren 27an azokan, hilaren 28an pintxo-potean eta hilaren 29an Poligonoko tabernetan.

### Sanmartinetako txosna

Irailaren 15eko San Martin jaietako talo txosna jartzeko lehiaketarako izen-ematea zabalik dago, uztailaren 5era arte (12:00); udaletxera jo.




Txirrindulari bat, martitzen arratsaldean, Urarte kaleko bidegorria amaitzen den lekuan. JOKIN BEREZIARTUA

# Sei hilabete bidegorriaren kilometro berri baterako

Asteon hasi dira Ernai kaleko biribilgunetik Buruñaoko Zubiberrirainoko bidegorria eraikitzeko eta antolatzeko lanak; 950 metro berri izango dira, obrek sei hilabete iraungo dute eta horiek iraun artean oinezkoendako itxita egongo da Ugarte kale osoa

**Jokin Bereziartua** BERGARA
Asteon hasi dira Ernai kaleko biribilgunetik Buruñaoko Zubiberrirainoko bidegorria eraikitzeko eta antolatzeko lanak. Sasoi Eraikuntza enpresak egingo ditu, eta 950 metroko tramu horretako lanek 345.726 euroko aurrekontua izango dute (BEZa barne). Sei hilabete inguru iraungo dute.

**Hitzarmenak hiru enpresarekin**
Bidegorri zati horren plangintzan kontuan hartu dira tramu horretan dauden Marmoleria Bergaresa, Dikar eta Metagra enpresak. Hala, hiru enpresek hitzarmen bana sinatu zuten Udalarekin bidegorriaren lanak errazteko eta, kasu batzuetan, finantzatzen laguntzeko. Marmoleria Bergaresak 40.967 euroko diru sarrera egin dio Udalari (BEZ barne), lantegira sartzeko guneko asfaltoaren azpian indargarri batzuk eraikiko direlako hormigoizko zoladurarekin. Dikar enpresak 47.189 euroko ekarpena egin dio Udalari (BEZa barne), errei bat eraikitzea aurreikusten delako; bidegorriaren zabalerakoa izango da, lantegira doazen ibilgailuek sarbide lehenetsia izan dezaten. Azkenik, Metagra enpresaren jabetzako partzelan, Ugarte kaletik sartzeko dagoen arrapala ezabatzea eta eustorma bat eraikitzea aurreikusten da.

**Eragina beste lantegi batzuetan**
Obrek iraun artean, Ugarte kalea itxita egongo da oinezkoendako; hortaz, bidegorriko erabiltzaileek Arrillaga kalea erabili beharko dute. Bestalde, bertako enpresekin harremanetan jartzen ari da Udala, enpresa bakoitzarekin lanen nondik norakoak azaldu eta eragina ahalik eta gehien txikitzeko.

## San Martin Agirreko patioa, martxan

"Aspaldiko eskaera" bati erantzunez, San Martin Agirre eskolako patiorako estaldura jartzeko lanak hasita daude eta uztail erdirako bukatuta egongo dira. Udalak Aragonesa de Carpas SL enpresari esleitu dizkio lanak, 62.045 euroko aurrekontuarekin (BEZa barne). Eskola egutegian ikastetxeak erabiliko du estaldura hori, eta egutegi horretatik kanpo bestelako erabilerak izango ditu.

Estaldurak aluminiozko egitura izango du eta estalkia telazkoa izango da. 480 metro karratu izango ditu, eta led argiak jarriko dizkiote. Ikastetxeko arduradunak pozik daude "aspaldiko behar" bat zena betetzeko martxan dagoelako. Bestalde, Udalak azpimarratu du azpiegitura horrek ahalbideratuko duela herriko "hainbat ekintza" gune horretan ere egin ahal izatea.

NIRE USTEZ



ANDRES OSA 'SAKONA'

## Hitza hitz

Estatuko aurrekontuak eta PPri jarritako zentsura-mozioak hitz jarioa sortu du. Euskaldunon bertute handienetakoari zaplaztekoa ere eman zaio. Duela 45 urte, Argentinako Buenos Aires hirian, bi gizon albotik pasatzerakoan "Palabra de vasco" esaten entzun nien. Itzuli, eta galdegin nien: "Beti entzun duguna, hitzaren balioak berebiziko konpromisoa duela Euskal Herrian". Ea gure altxorrik bedeinkatuena zaintzen dugun, sandios!

Aurrekontuei batzuek baietza eman zioten. Biharamunean, tropelean, turuta hotsean Euskal Herriko mikrofono guztiak, publikoak zein pribatuak, txistu zipriztinez epelduak izan ziren. Esateko gutxi dagoenean zurrunbilo handia. Komunikabideetako tertulia giroa gogaikarria. Oilategia zirudiena arrautzarik egin gabe. Euskal kolorea urri, eta bestaldekoak ugari. Ohikoa. Makurrak gaituk. Katalanak eta euskaldunak, ordena horretan, zentsura-mozioa aurrera atera zen. Aurrekontuetan baietz eman zutenek, katalanek zer esango zuten zain. Ezetza ezin eman. P(SO)Ek zer? *S* eta *O* berreskuratu eta *E* tenplatzen badu, tira. Baina Marlaska, Borrell... Zer espero liteke?



MIGUEL ALTUNA

## Sarituak EuskoSkills lehiaketan

**Goiena komunitatea** / Miguel Altuna Lanbide Heziketa / BERGARA
Lanbide Heziketako EuskoSkills txapelketan oso lan txukuna egin dute aurten ere Miguel Altunako ikasleek. Mekatronikan, Edurne Badillo eta Daniel Martins txapeldunak izan dira; CNC torneatze-alorrean, Sergio Miguelek hirugarren egin du; eta kontrol industrialean, Julen Urreta izan da irabazlea. Zorionak!

## Jaiak San Juan auzoan eta Solstizio Gaua gaur San Martin plazan

San Juan auzoko jaien hasiera suziri jaurtiketarekin iragarriko dute gaur (21:00), eta gero, auzoko afaria izango dute Tartufon. Bihar, lizarra eta eliza loreak jarrita apainduko dute (18:00) eta baserrietan San Juan suak egingo dituzte. Egun handia domekakoa izango da: meza, San Joxepe elkarteko koruaren kontzertua eta trikitilariek alaitutako luntxa (12:00); VII. lore sorta lehiaketa (13:00); auzoko 80 urtetik gorakoei eta jaioberriei omenaldia eta VIII. ortu lehiaketako sari banaketa (13:15); eta erretiratuendako bazkaria Tartufo jatetxean –bazkalostean opariak zozketatuko dira–. Asteburu osoan zehar ortu lehiaketako argazkien erakusketa egongo da ikusgai.

Bestalde, Xaxau jai herrikoien konpartsak antolatuta, Solstizio Gauaren ospakizuna egingo dute gaur San Martin plazan (22:30).

# "Agorrosin Berria egitea nahi dugu, lehenbailehen"

**IOSU ELORZA** BERGARA KIROL ELKARTEKO FUTBOL SAILEKO PRESIDENTEA 2022RA ARTE

Ekainaren 7an hauteskunde prozesu bat abiatu ostean eta beste hautagaitzarik ez denez aurkeztu, atzo egin zen ofizial Elorza BKEko presidente izango dela 2022ra arte

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Elorza buru duen eta berretsi berri den BKEko futbol saileko zuzendaritza taldearen lehentasunen artean dago Agorrosin Berria "lehenbailehen" egitea.

**Atzo egin zen ofizial BKEko Futbol Saileko presidente izango zarela 2022ra arte. Gogotsu zaude erronka berriari heltzeko?**

Nirekin batera talde osoak errepikatzen du eta ilusioz gaude agintaldi berri bati eusteko.

**Zeintzuk izango dira lehentasunak?**

Hiru urte hauetako aldaketekin jarraitzea eta Agorrosin Berriaren proiektua sendotzea da gure erronka; gure hautagaitza berriro aurkeztearen arrazoietako bat hori izan da. Sinetsita gaude Agorrosin Berriaren alde lanean jarraitu behar dugula.

**Milioi eta erdi eurotik gorako proiektua izanik, eman da aurrerapausorik finantziazio-bideetan?**

Bergarako Udalarekin, Diputazioarekin, Gipuzkoako Federazioarekin eta Realarekin harremanetan gaude eta aurkezpen ofizialak egin dizkiegu. Aurreproiektuaren zirriborroak aurkeztu genituen, eta orain, finantziazio bideak aztertzen ari gara. Oraindik ez daukagu ezer ofizialik, eta lau eragile horien konpromiso maila norainokoa izango den jakiteko zain gaude.



Iosu Elorza, Agorrosin futbol zelaiaren atarian. JOKIN BEREZIARTUA

Hala ere, espero dugu 2022ra arteko epealdian proiektua ia amaituta uztea. Gure helburua da obrak lehenbailehen hastea.

**Gogora ekartzeko: zergatik gura duzue belar artifiziala jartzea?**

Belar naturalak oso erabilera txikia eta mantentze-lan kostu handia dauka. Entrenamendutarako leku barik gabiltza; instalazioei ahalik eta etekin handiena ateratzeko bidea da naturalaren lekuan artifiziala jartzea.

**Leku barik zabiltzatela diozu. Neska jokalarien gorakadak ere eragina izan du erabakian?**

Sartu ginenetik hona, sekulako gorakada izan da emakumezkoen futbolean. Joera horri eutsi gura diogu, eta, beraz, instalazio falta ezin da arrazoi bat izan futbolean egin gura duten neska-mutiko gazteei ateak ixteko. Agorrosin Berria sendotzeko apusturako beste motibo bat ere bada nesken futbola sustatzea.

**Bestalde, gaur eta bihar, Mahonero Asteburuan murgilduta egongo zarete. Garrantzitsua da?**

Bai; denboraldiari merezi duen amaiera emateko modu bat da. Aurtengoa hirugarrena da eta aurreko biak oso arrakastatsuak izan ziren. Prestaketek eragin dituzte buruhauste batzuk, baina gustura egiten den lana da.

**Nobedaderik badago aurten?**

Aurten, Musika Eskolarekin akordioa egin dugu asteburuko ekintza kultural guztiak eurek antola ditzaten. Bestalde, Aspagonirendako 10.000 euro lortzeko erronka jarri genion gure buruari eta zapatuan [bihar] egingo da zozketa.

**Lortuko dituzue 10.000 euro horiek?**

Ez dakit esaten zein izango den azken emaitza. Esan didatenez, nahiko ondo doa eta ziur zenbaki polita irtengo dela. 10.000 euro horietara ez bagara heltzen ere, oso gertu egongo gara. Aspanogikoek asko eskertu dute erronka hori hartu izana.

**Asteburua bukatu eta astelehenean hasiko da Ander Capa jokalari profesionalak kudeatzen duen campusa. Zer eman dio ezaugarri horietako ekimen batek BKEri?**

Halako campus bat antolatzeko beharra ikusi genuen eta badirudi asmatu dugula, plaza guztiak di-da agortu ziren eta. Neska-mutikoek nahi dituzte halako ekintzak, eta, guretzat, harrobia lantzeko, aukera ederra da.

**Udako Torneoa martxan dago...**

Herrian oso errotuta dagoen txapelketa da. Zuzendaritzak eta gizonezkoen lehen taldeak antolatzen dute eta urtero giro ederra egoten da. Futbola lagata dutenak dira asko eta ziur finaletan maila handia egongo dela.

**"INSTALAZIO FALTA EZIN DA ARRAZOI BAT IZAN FUTBOLEAN EGIN NAHI DUTEN GAZTEEI ATEAK IXTEKO"**



## 2022ra arteko zuzendaritza taldekoak

2022ra arteko zuzendaritza taldea, ezkerretik eskuinera eta goitik behera: Irune Alberdi, Antonio Pato, Antonio Retes, Iñaki Leizeaga, Iosu Elorza, Garbiñe Elorza, Jose Luis Arietaleanizbeaskoa, Jabi Ibarra, Oscar Navarro, Angel Jimenez, Vicen Piñero eta Enrike Nieto.

# Zortzi domina Gipuzkoakoan

Bergarak zortzi domina lortu zituen: Julen Gardokik, brontzea estilo libreko 100 metrokoan; Marta Melendezek, zilarra eta bi brontze 100 eta 200 metro estilotan eta 50 metro bizkar estiloan; Josu Morrasek, brontzea 50 metro bizkar estiloan; Peru Alustizak, brontzea 50 metro tximeleta estiloan; Ziortza Ibaibarriagak, brontzea estilo libreko 800 metrokoan; eta Uxue Azkaratek, brontzea 50 metro tximeleta estiloan.



IMANOL SORIANO

EUSKARALDIA

## Hamaikakoaren aurkezpena hilaren 18an Iralan (20:00)

Hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duen Euskaraldia ekimenaren barruan, Bergarako hamaikakoa aurkezteko ekitaldi "laburra eta bizia" egingo dute ekainaren 28an Iralan (20:00). Hamaika herritarrak ezagutzera emateko ekitaldia izango da, *ahobizi*-ak eta *belarriprest*-ak.



750. urteurreneko kontzertuan parte hartuko duten kideetako batzuk, udal ordezkariekin. BERGARAKO UDALA

## "Emanaldi sinfoniko korala izango da"

**VALEN MOÑUX** IKUSKIZUNAREN DISEINATZAILEA



GOIENA

Ideiaren sortzailea eta ikuskizunaren diseinatzailea da Valen Moñux. "Bergarak daukan onena" erakustea izango da ikus-entzunezkoaren helburua.

**Bada denbora bat ideiarekin zabiltzala?**

Modu berezi batean izan nuen efemeridearen berri; seme-alaben ikastetxeko bilera batean, opari moduan, hiri-gutuna eman ziguten eta konturatu nintzen urte gutxi barru beteko zela 750. urteurrena.

**Eta lanean hasi zinen.**

Hori ospatzeko, sei proposamen ezberdin egin ditut udaletxean; iaz onartu zidaten formatu honetan egitea: plazan eta aire librean izango da ikuskizuna. Emanaldi sinfoniko korala izango da, dantzariekin batera egingo dena. Udaletxeko horma erabiliko da irudiak proiektatzeko.

# Bergara zena eta dena, plazan

San Pedro eta San Martzial jaiak gogora ekarriko dituen ikuskizuna eskainiko dute hilaren 29an, San Martin plazan, 22:30ean, eta dagoeneko agortu dira ikuskizuna ikusteko gonbidapenak. Herritarrek parte hartuko dute emanaldian –330 bat–

**Arantzazu Ezkibel Galdos** BERGARA

San Martin Agirre plaza agertoki erraldoi bilakatuko dute datorren barikuan, hilaren 29an. Bergarak hiri-gutuna jaso zuela 750 urte pasa direla ospatzeko "errepikaezina" izango den emanaldia eskainiko dute. Herritarrek parte hartuko dute ikuskizunean; guztira, 350 bat lagunek. Emanaldia doan izango den arren, gonbidapenak banatu dituzte. Hain zuzen, 900 atera zituzten, eta dagoeneko agortu dira gonbidapen guztiak.

Valen Moñux eta Alfredo Gonzalez Chirlaque ibili dira ikuskizuna antolatzen; lehenengoak diseinatu egin du eta bigarrenak musika aukeraketa egin du.

### Emanaldi jendetsua

"San Pedro eguna jai izango dela aprobetxatuta, San Pedro eta San Martzial jaiak gogora ekarri nahi izan ditugu", dio Gonzalez Chirlaquek. Lehengo garaietara itzuliko gara: Bandak emanaldi tradizionala egingo du, Usandizagaren piezekin, sanpedrotan egiten ziren emanaldiak gogoratuz", gaineratu du.

Ondoren, euskal bakarlarien txanda izango da: *Udazken koloretan*, *Xalbadorren heriotzean* eta *Baga, biga, higa* eskainiko dute Orkestrak, Orfeoiak, Orfeoi Gazteak eta Aritzeta Abesbatzak. Azken abesti horretan, Edu Muruamendiarazek dantza egingo du. Bergaran hain errotuta dagoen San Martzial jaiak ere bere lekua izango du ikuskizunean: Miguel Gonzalez Bastidaren *Euskal estanpak* eskainiko dute. Musika Bandak, Orkestra Sinfonikoak, Orfeoiak, Aritzeta Abesbatzak, Orfeoi Gazteak, Bergarako Musika Eskolak, Txistulari Taldeak, Xamatz Dantza Taldeak eta Bergarako Erraldoi Taldeak parte hartuko dute momentu horretan. Gainera, *Euskal estanpar*-en bertsio sinfoniko koralaren estreinaldia izango da. Izan ere Maddi Iñarrak idatzitako letra izango du abestiak: "Zuzendariak eskatu zidan gaur egun San Martzial dena irudikatzeko: egun hasierako emozioa, ondo pasatzeko eguna dela, jaitsierako balantze positiboa...", dio Iñarrak. San Martzial jaian ohikoak diren irudiak sartu ditu letran: gurdia, trikitia... "Bergararrek erraz identifikatu dituzten irudiak dira", dio. Iñarrarentzat berezia izan da letra idaztea: "San Martzial egun handia da, niretzako; aitaita auzotarra zen, eta barrutik bizi dudan jaia da".

> **"GAUR EGUN SAN MARTZIAL DENA IRUDIKATU DUT LETRAREKIN"**
>
> MADDI IÑARRA, LETRAREN EGILEA

Ikuskizuna amaituko dute James Horner-en *Finale* piezarekin; eta, nola ez, amaieran, Bergarako ereserkia joko dute.

### Wolframioaren pasartea

Emanaldia, baina, ez da ikuskizun musikala bakarrik izango. Udaletxeko horma erabiliko dute proiekzioak egiteko. Moñuxek 15 minutuko ikus-entzunezko bat gertatu du: "Bergarako historia jasoko du, labur. Bergarako mugarri garrantzitsuak azalduko ditugu: hiriaren fundazioa, gudak... eta, nola ez, ilustrazioak zati berezia izango du", azaldu du. Elhuyar anaien lana eta wolframioaren aurkikuntza birsortuko dute. "Hain zuzen, zati horrek minutu eta erdiko iraupena izango du", gaineratu du. Hori egiteko, Mikel Laskurain eta Pedro Mujika aktoreen laguntza izan dute. Herriko paisaia eta arkitekturak ere bere lekua izango du emanaldian. Horretarako, Bergarako pintoreen eta argazkilarien lanak erabiliko dituzte. "Daukagun onena erakustea izango da helburua", dio Moñuxek.

> **"BEREZIA DA, ETA OHOREA, NI AINTZAT HARTU IZANA IKUSKIZUNERAKO"**
>
> EDU MURUAMENDIARAZ, DANTZARIA

### Herriko artistak

Muruamendiarazek dantza egingo du: "Laboaren abestian izango da, tarte batean irtengo naiz dantza egitera. Berezia da niretzako, eta ohorea da ni aintzat hartu izana". Horrez gain, Manex Alberdik eta Saioa Vivancok dantzan parte hartuko dute; eta Aitor Garitanok, Argiñe Agirrezabalek eta Aitzol Mujikak abestu egingo dute.

## Egitaraua

**Ikurrin dantza**
- *Agintariena*
- *Bergarako agurra*

***Hor konpon***
***Euskal festara***
***Mendi mendiyan***
***Udazken koloretan***
***Xalbadorren heriotzean***
***Baga, biga, higa***
***San Martzial***
- *Egunsentia eta letania*
- *Kalejira*
- *Ave María*
- *Festara*
- *Aurreskua*
- *San Martzialgo maitasun kanta*

***Finale***

# 2019ko udaberrira arte iraungo dute lanek

Torresoroako lehen solairuko kalteen zerrenda egin du Antzuolako Udalak; kalteen balorazioa egiteak, baina, luze joko duela dio Valen Moñuxek, Hirigintza teknikariak. Orain, ur-mangerekin garbiketa sakona egingo dute kaltetutako altzariak botatzeko

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Ekainean gertatutako uholdeek eragindako kalteak zerrendatu ditu Antzuolako Udalak. Balorazioa egitea, baina, zailagoa izango dela dio Hirigintza teknikari Valen Moñuxek. Hasierako garbiketa lanak egin dituzte eta bertan pilatutako harriak eta lokatza kendu dituzte. Urak bustitako liburuak eta dokumentuak salbatzen ere saiatu dira. Orain, baina, garbiketa sakona egingo dute: "Orain arte ezin izan dugu lokala sakon garbitu mangerarekin. Izan ere, paper asko zegoen. Behin liburuak jasota eta paper hondatuak kenduta, garbiketa sakona egingo dugu erakina, paretak eta lurra garbitzeko. Eta hor ikusiko dugu zein altzari dagoen botatzeko eta zein mantentzeko". Kalteen balorazioa egiteak, ordea, luze joko du: "Liburutegian galdu diren liburu guztiak berriro eskuratzea ezinezkoa izango da. Hor eragindako kaltea zenbatu ezina da", azpimarratu du Valen Moñuxek.

Hala, behin lokala guztiz garbituta dagoela, perituek berriro ikuskatuko dute egoitza eta berregokitzeko proiektu zehatza egingo dute. Torresoroa egin zuen arkitektoak eta aseguruen perituek jardungo dute lan horretan zehazki. Prozesu luzea eta obra handia egin beharko dela iragarri du Hirigintza teknikariak. 2019ko udaberrian Torresoroako berritze lanak amaituta izatea da Udalaren helburua. "Lizitazio deialdira aterako ditugu obrak. Jakin administrazio konkurtsoak oso luzeak direla, eta, ondoren, lanak adjudikatuta, obra egin beharko da". Eraikinaren egiturak kalterik ez duen arren, lan handia dagoela egiteko azaldu du. Aretoan, harmailek ere ez dute kalterik jasan, baina lurra aldatu beharko da. Txikizio handiena, baina, liburutegiak jasan du eta berriro goitik behera berritu beharko da. Liburutegia izan baita ezbeharraren *zero gunea*. 2019ko udaberrirako berritze lanak amaitu gura dira.



Hirigintza teknikari Valen Moñux liburutegiko apalak ikuskatzen. MAIDER ARREGI

### TORRESOROA ERAIKINAREN EGITURAK EZ DUELA KALTERIK JASAN DIO PERITUAK

## Errotak geldi eta ur gabe jarraitzen du

Antiguako presak ere kalte handiak jasan ditu eta oraindik konponbidea bilatzen saiatzen ari direla azaldu du Hirigintza teknikariak.

Helburua, baina, presa konpontzea dela dio eta Ur Agentziarekin harremanetan badihardutela. Lehentasuna ura errotara bideratzea da, bertako zisne eta ahateen biziraupena bermatzeko



Antiguako presa kaltetua uholdeen ostean. VALEN MOÑUX

# "Elkarbizitzarako memoria kritikoa egitea garrantzitsua da"

**JONAN FERNANDEZ** BIZIKIDETZA SAILEKO IDAZKARIA

Olaranen aretoa bete egin zen solasaldia entzuteko

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Jonan Fernandez Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetza Saileko idazkari nagusia Antzuolan izan berri da. Elkarbizitza eta bakea lortzeko oraindik egin beharreko urratsez eta erronkez jardun du, besteak beste, Jonan Fernandezek.



Jonan Fernandez, Olaranen. M.A.

**Memoria zabala eta partekatua izan behar dela diozue; gizartearen isla. Hori da helburua?**

Bai. Elkarbizitzarako, iragana gogorra izan denean, oso garrantzitsua da memoria kritikoa egitea. Nork bere memoria dauka, eta subjektiboa da; errespetatu beharra dago bakoitzarena. Partekatu behar direnak, aldiz, minimo etikoak dira: giza eskubideak ezin direla urratu, alegia.

**Eusko Jaurlaritzaren eta biktimen artean zelako harremana dago?**

Ona. Lan asko egin da azken urteetan. Biktimen artean aniztasun handia dago, baina, orokorrean, harremana eta jarrera ona da; elkarlanean gauza asko egiten ari gara.

***Memoria plaza* ekimena abiatu duzue, belaunaldi berriei gertatu denaren berri emateko.**

Gazteek ez dute indarkeriaren garaia bizi izan eta garrantzitsua da horren inguruan gertatutakoa ezagutzea eta gogoeta kritikoa partekatzea.

**Presoen korapiloa ere hor dago. Bakea lortzeko askatu beharrekoa.**

Bai, bizikidetza normalizatzeko askatu beharreko korapiloetako bat da kartzela politika. Beharrezkoa da presoak hurbiltzea, giza eskubideen ikuspuntutik. Gobernu berriarekin, espero dugu posible izatea. Presoen birgizarteratzea ere helburua da, noski.

**Presoak etxetik 250 kilometrora hurbiltzeko plana zertan da?**

Rajoyren Gobernuak ez zuen jarrera positiborik azaldu horren aurrean. Orain, berriro aurkeztuko diogu Sanchezi.

**Minimo etiko batetik oso gertu zaudete. Zer falta da?**

Iraganari buruzko irakurketa partekatua falta da. Iragana kudeatzea da zailena. Zatiketak, ardurak, zauriak... daude, eta hori da zailena.

**Kontaketa bakarra ezinezkoa da.**

Onartu egin behar da askotariko kontaketak egon behar direla. Minimo etikoak partekatu behar dira, esan bezala, bakea eta bizikidetza lortzeko.

## Kalebarrengo jaiak eta San Juan bezpera batera ospatuko dira

Kalebarrengo jaiak gaur hasiko dira. 19:00etan, gaztetxoen danborradak emango die asteburu osora luzatuko diren festei hasiera. 19:30ean, berriz, elkartasun pintxoak banatuko ditu Anelkarrek. Joxe Rotetarekin dantza egiteko aukera ere izango da. Irutxulo Folk taldeak jarriko du musika. 22:30ean, haurren sagar dantza egingo da.

Zapatuan, aldiz, San Juan bezpera ospatuko da eta aurten arbola bi lekutan altxatuko da: lehena, Kalebarrenean, 19:00etan; ondoren, 20:00etan, Herriko Plazan jasoko da arbola eta Oinarin taldearekin soka dantza eta aurreskua izango dira. Ondoren, herri afaria, Zurrategin.

Aurtengo berrikuntza, baina, San Juan sua Zurrategin piztuko dela da. 22:30ean, suaren bueltan Oinarin taldekoek zortzikoa egingo dute –egitaraua osorik 46 eta 47. orrietan–.




Elgetako hamaikakoa aurkezteko ekitaldia, martitzenean. L.Z.

# Euskaraldiak badu hamaikakoa Elgetan ere

Hamaika lagunek baino gehiagok osatu dute, azkenean, Elgetako hamaikakoa. Martitzenean egin zuten agerraldia, herriko plazan, hainbat eragileren babesarekin. Euskaraldian parte hartzera deitu dituzte elgetarrak

**Goiena komunitatea**
Euskaraldia batzordea / ELGETA

"Elgetarrok martitzenean aurkeztu genuen *Euskaraldia: 11 egun euskaraz* ekimenaren herriko hamaikakoa. Enbaxadoreek herriko plazan egin zuten agerraldia. Azkenean, hamaika lagunekoa baino handiagoa izan da Elgetako hamaikakoa eta hainbat herritar gerturatu dira haiekin batera talde argazkia ateratzera. Udal ordezkariak, Goibeko Euskaltzaleen Topaguneko kideak, merkatariak, Kantsatzeke mendi taldeko ordezkariak, guraso elkarteko kideak, herriko berbalagun dinamikako lagunak... Adin eta eragile talde askotariko herritarrek egin dute dei Euskaraldian parte hartzeko.

Lehenengo agerraldi horren ostean ekitaldi gehiago etorriko dira. Azaroaren 23ra bitartean Euskaraldia zer den eta *ahobizi* zein *belarriprest* figurak zer diren ondo azaltzea izango da batzorde horren egiteko nagusia. Martxan gara eta herritar guztiak zaudete parte hartzera gonbidatuta. Hizkuntza ohituretan eragitea dugu helburu!".



**MARTA TORRES**
EUSKARALDIKO ENBAXADOREA

"Zaragozakoa naiz eta argi dut euskara ikasi behar dudala. Banoa aurrera. Euskaraz bizi naiz eta semeekin ere euskaraz egiten dut. Garrantzitsua da".



**ELEDER LOZANO**
EUSKARALDIKO ENBAXADOREA

"Euskaltegian, barnetegian eta emaztearen familiakoekin ikasi dut euskaraz. Nire ikuspuntua da errespetu kontua dela euskaraz hitz egitea".



**PAULA PALACIOS**
EUSKARALDIKO ENBAXADOREA

"Ekimen interesgarria iruditzen zait Euskaraldia. Gaztelerarako ohitura gero eta zabalduago dago Elgetan ere. Parte hartzera animatzen dut jendea".

## Gaizka Morales elgetarra dantzari profesionala izango da

Urrats garrantzitsua egin du 21 urterekin eta irailetik aurrera Bartzelonako ITDansa konpainiarekin hasiko da

**L.Z.** ELGETA

Hiru urtean egin du lau ikasturteko dantza formakuntza Madrilen, eta ekainaren 30ean graduatuko da. Bide onetik doa elgetarra eta graduatzearekin batera iritsi zaio lehen lan-kontratu garrantzitsua. Maiatzean lau probako audizio bat egin zuen Bartzelonako Institut del Teatre-ko gazte konpainiarendako. "Mundu osoko 200 pertsona aurkeztu ginen eta ez nuen finalean sartzeko probak gainditzerik espero. Hamabi finalistetako bat nintzela jakiterakoan, ordea, agian posible zela pentsatu nuen, eta hiru neska eta bi mutil sartu gara konpainian", esan du Moralesek.

Dantzari gazteendako konpainia dela azaldu du: "17 eta 23 urte bitartekoa izan behar duzu eta graduondo moduko bat da, baina bi urteko kontratuarekin eta Europa osoko bira batean parte hartzeko aukerarekin. Koreografo handien errepertorioak landuko ditugu eta asko ikasiko dudalakoan nago. Nire ustez, garrantzitsua izango da baita ere zuzeneko emanaldietan esperientzia hartzeko".



Gaizka Morales dantzan. CARLOS BOSCH

## Erretiratuak, Añanan

Xalbadorpe elkarteak antolatuta, eguaztenean gustura ibili zen elgetar talde bat Añana inguruan. Gatz harana bisitatu zuten eta bertatik bertara ikusi zuten gatza nola egiten duten. Añana gatz haranak dituen berezitasunak eta balioa ere azaldu zizkieten. Egun osoko txangoa egin zuten herriko erretiratuek. Añanako kuadrillan dagoen Ur Museoa ere ikusi zuten.



JOSE ANTONIO OJANGUREN

### Ikasturte amaiera gaur eta San Juan sua bihar bolatokian

Gaur amaitzen dute ikasturtea Herri Eskolako ikasleek. Bazkari berezia dute aurten ere. Biharko, berriz, San Juan bezperako ekintzak iragarri ditu guraso elkarteak. Disko festa egingo du Jabi Sanper DJak, 19:00etatik 21:00etara. Jarraian, ogitartekoak banatuko ditu guraso elkarteak eta iluntzean sua piztuko dute neska-mutikoek.

## OHARRAK

### Musika emanaldia

Lorea Larrañagaren ikasleek ikasturte amaierako saioa bihar, 12:00etan, antzokian.

### Gaubeila gaztelekuan

Beldurrezko edukiekin gaurko 19:00etatik biharko 08:00etara.

### Udalekuak, martxan

Astelehenean hasteko, gaur, barikua, gurasoendako batzarra, 19:15ean, udaletxean.

AGURRA

ELGETAKO JAI BATZORDEA

## Gora Ferixa Nagusiko jaiak!

Urtarrilean hasi ginen 2018ko Ferixa Nagusiko jaiak antolatzen. Batzorde irekiak izan dira, eta berauetan erabaki dugu Elgetako festetako programan nahi genuena, eta ahaleginak egin ditugu errealitate bihurtzeko.

Lan kolektibo handia da jaien antolakuntza, baina lau egunez alaitasuna, jai giroa eta elkarlana nagusitzean, merezi izan duela konturatzen gara urtero. Mila esker, bihotzez, jaiak antolatzen lagundu duzuenoi, laneko txandak egingo dituzuenoi eta festak diruz lagundu dituzuenoi ere.

Jaiak modu parekidean bizitzeko gonbidapena luzatu nahi dizuegu, eta argi adierazi ez dugula inolako erasorik onartuko. Euskaraldia gerturatzen doan heinean, berriz, ahoak bizi eta belarriak prest, jaietan ere euskaraz gozatzera animatu!

Lepokoa jantzi eta gozatu Ferixa Nagusiko jaiak!

# JAIETAKO EGITARAUA



GOIENA

**Mozorroen jaitsiera**
Elgetako jaiei hasiera emateko, herritarrak mozorrotu eta kalera atera ohi dira parrandara. Festak bertan direla iragarriko dute mozorroek.
*Elgetako kaleak, 19:30ean.*

## EGUENA 28

### MOZORRO EGUNA

**12:00** BURUHANDIEI ONGIETORRIA plazan. Udalekuak.

**19:30** MOZORROEN JAITSIERA Elgetako trikitilariekin. Brindisa, alkate txikia izendatzea eta kartel lehiaketako saria ematea.

**20:00** EONIAN elektrotxaranga.

**23:00** Erromeria GARILAK 26 taldearekin.

**00:00** LARRAIN DANTZA. Ondoren, erromeriak jarraituko du.

## EGUBAKOITZA 29

### UMEEN ETA ERRETIRATUEN EGUNA

**11:00** UMEENTZAKO PUZGARRI ETA JOLASAK Salbador kalean.

**11:15** Ozkarbi elkarteak SALDA banatuko du.

**13:00** MEZA NAGUSIA, iazko jaiak ezkero hil diren erretiratuen alde. Xalbadorpek antolatuta.

**13:45** ERRETIRATUEN ARGAZKIA.

**14:00** ERRETIRATUENTZAKO BAZKARIA Espaloian (10 euro). Ondoren, bingo jolasa eta erromeria.

**14:00** UMEENTZAKO BAZKARIA plazan (5 euro).

**15:30** PUZGARRIAK ETA JOLASAK umeentzako.

**18:30** BURUHANDIAK.

**19:00** TIO TERONEN SEMEAK dantza ikuskizuna.

**23:00** ZEZENSUZKOA.

**23:15** Kontzertua plazan, SKASTI + ondoren DJ BULL.

## ZAPATUA 30

### HERRI EGUNA

**11:15** ESNA DEIA.

**11:30** KUADRILLEN HAMAIKETAKOA Intxorta elkartean.

**12:00** JAIOBERRIEI HARRERA udaletxean.

**13:00** SOKA DANTZA ETA ELGETARA ETORRI BERRIEI HARRERA. Ondoren, euskal dantzak Elgetako dantzarien eskutik.

**14:30** HERRI BAZKARIA plazan. Paella, ogia, kafea (5 euro). Aukera beganoa egongo da. Ondoren, *photocall* feminista Amantalak-en eskutik.

**16:00** Erromeria JAINAGA ETA NARBAIZArekin.

**18:00** ATALDE-JOLAS PARTE-HARTZAILEAK. Izena emateko, idatzi *danonartian@elgeta.eus*-era.

**18:30** USTEKABE TXARANGA.

**19:30** TXITXI-BURRUNTZIAK Intxortako Lehoiak lagunartearen eskutik.

**20:00** BURUHANDIAK.

**20:00** Erromeria INGOU taldearekin.

**23:00** ZEZENSUZKOA.

**23:05** ERROMERIA: Mugi panderoa.

**01:00** HELDUENTZAKO PUZGARRIAK ETA OREKA JOLASAK Salbador kalean.

## DOMEKA 1

### FERIXA NAGUSIA

**09:00** FERIXA NAGUSIA: ganadu erakusketa, artisauak...

**17:00** BURUHANDIAK.

**17:30** KARAOKE LEHIAKETA, Amaia Txintxurretarekin eta Gauargi taldearekin. Bi kategoria: 14 urtera arte eta 15 urtetik gora. Saria: gitarra elektriko bat. Izena emateko, idatzi *danonartian@elgeta.eus*-era.

ZORIONAK ELGETAR GUZTIOI!
LAIBE
MAKINA ERREMINTA SL Elorrio bidea z/g, Elgeta

# Gorputza astintzeko doinu dantzagarri ugari

Garilak 26, Skasti, Mugi Panderoa... erromeria taldeak izango dira aurten nagusi Ferixa Nagusiko jaietan. Txaranga eta elektrotxaranga ere izango dira, eta barikuan dantza emanaldia egingo du Tio Teronen Semeak taldeak

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Egunero izango da musika edo dantza emanaldia Elgetako Ferixa Nagusiko jaietan. Eguenean, Garilak 26 erromeria talde bizkaitarrak egingo du kontzertua; eta barikuan, Skasti talde zarauztarrak rock, pop, indie eta funk doinuak ekarriko ditu. Luze joko du bariku gauak; izan ere, DJ Bull-ek hartuko die lekukoa Skasti taldekoei.

Herri Egunean, urtero moduan, Jainaga eta Narbaiza trikitilariek girotuko dute bazkalostea. Plazako erromeria, berriz, Mugi Panderoak taldeak egingo du.

Txaranga eta elektrotxaranga ere izango dira aurten jaietan.



**Skasti taldea emanaldia egiten.** SKASTI

Eguenean, Eonian elektrotxarangak girotuko du mozorro jaitsiera eta Herri Eguneko kuadrillen arteko jokoetarako Ustekabe txaranga dago iragarrita. Hasi berria den Ingou talde bergarararrak ere tartea izango du zapatuan.

**Dantza ikuskizuna barikuan**

2018ko Ferixa Nagusiko jaietan ez da zezenik izango. Horren ordez, barikuan, emanaldia egingo du euskal dantza tradizionala eta umorea uztartzen dituen Tio Teronen Semeak musika eta dantza taldeak. *FreshCool* ikuskizuna egingo dute.

**Karaoke lehiaketan bi kategoria**

Domeka arratsalderako, eta iaz izandako harrera ona ikusita, aurten ere karaoke lehiaketa antolatu du jai batzordeak. Berrikuntza da oraingo honetan bi kategoria izango direla: 14 urtera artekoak eta 15 urtetik gorakoak, nagusiak ere anima daitezen. Parte hartzaileek kantu zerrenda bat izango dute abestiak aukeratzeko. Izena emateko, *danonartian@elgeta.eus* helbidera idatzi behar da.

## Emakume taldeak parekidetasuna aldarrikatuko du

Martxoaren 8an eman zuen bere sorreraren berri Elgetako Emakume Taldeak. Parekidetasuna lortzeko oraindik ere zer egin asko dagoela gogora ekartzeko hainbat ekimen iragarri dituzte jaietarako. *Elgetan ere parekidetasuna lortu arte* lelopean horma irudi erraldoia ipiniko dute kultura etxean. Emakume taldeko kideek eta Izar Irazabal Gillegik egindako irudiak izango dira aldarri horren seinale.

Eraso matxistak zer diren eta horien aurrean nola jokatu jasotzen duten eskuorriak ere banatuko dituzte herrian. Arreta telefonoak eta gomendio orokorrak aurkituko dituzte bertan herritarrek.

**'Photocall' feminista zapatuan**

Herri Eguneko bazkarian, bestalde, *photocall* feminista egingo dute, herritarrei more koloreko osagaiekin talde argazkiak ateratzeko aukera emanez. Argazki horiekin, aurrerago, erakusketa bat egitea da asmoa.




GOIKOETXE HARATEGIA
Zorionak!
Ondo ibili jaixetan!
Salbador kalea 1 ELGETA
Tel.: 943 78 82 06

# Helduen dantza saioa ere izango da, aurten, jaietan

Gregorio Santa Cruz dantza maisu eibartarrak 50eko hamarkadan Elgetarako sortutako 'Egoarbitzako makil dantza' eta 'Arratera begira' prestatu ditu herritar talde batek. Ez da lan erraza izan partiturak eta pausoen gaineko informazioa lortzea

**Larraitz Zeberio** ELGETA

"Iazko jaietan neska-mutikoen dantzak ikusten ari ginela irten zen gaia. Alegia, helduek ere dantzara irten behar genuela", azaltzen du Eli Arantzabal elgetarrak. "Gabonetan berriz aipatu zuten kontua eta *Egoarbitzako makil dantza* eta *Arratera begira* izan zitezkeela adostu genuen". Hainbat lagunek makinatxo bat bueltan eman du ordutik hona. "Kosta zaigu dantzen pausoak eta partiturak lortzea. Jendea animatzea ere ez da erraza izan. Mutilen kasuan, laster osatu zen taldea, baina hamabi neska behar ziren *Arratera begira* egiteko eta ez da samurra izan", azaldu du Miguel Arantzetak.


*Arratera begira* eta *Egoarbitzako makil dantza* egitekoak diren kideetako batzuk.

Arantzetak eta Arantzabalek gogoan dute Elgetako Euskal Jaietan egiten zirela bi dantza horiek. "Elgetarrok bakarrik egiten genituen. Bestela, ez ziren dantzatzen", azaltzen dute. Indar handia izan zuen Elgetako dantza taldeak, baina desagertu egin zen, eta taldearekin batera bi dantza horiek ere bai.

Zortzi mutilek egingo dute Herri Egunean *Egoarbitzako makil dantza* eta hamabi neskak *Arratera begira*. "Batzuk dantzari izandakoak dira, baina ez guztiak eta esan behar da denak moldatu direla ondo dantzak ikasteko", esan du Arantzetak.

**Neska-mutikoen emanaldia**

Aurten ere herriko neska-mutikoen emanaldia izango da Herri Egunean. Irati Kortabitarteren gidaritzapean, maiatzean hasi ziren 40 bat neska-mutiko jaietarako euskal dantzak prestatzen. Interes handia sortzen duen emanaldia izaten da.

Helduen talde eta guzti, euskal dantzen emanaldia 13:30 aldera izango da, Herri Egunean.

## Ongietorria jaioberriei eta Elgetara bizi izatera etorri berriei

Jaietako Herri Egunak ekintza seinalatu ugari ditu eta horien artean esanguratsuenetako bat aurreko urteko jaiak ezkero jaiotako neska-mutikoei eskaintzen zaien ongietorri ekitaldia da. Iaz, hemeretzi umek jaso zuten jaietako zapia, eta aurten, hamabi familia daude parte hartzera deituta. Oraingoan ere, udaletxeko areto nagusian egingo dute ekitaldia, 12:00etan. Udal ordezkariek jaietako zapi bana jarriko diete jaioberriei.

Amaitutakoan, 13:00etan, udalbatzak soka dantza egingo du herritarrendako. Eguraldi ona bada, plazan egingo dute, eta, bestela, Udal Pilotalekuan. Ekitaldi horretan parte hartzera gonbidatuta daude iazko jaietatik hona herrian erroldatu diren gizon eta emakume guztiak.

Udalak emandako datuen arabera, 43 lagun dira hamabi hilabeteotan herrian erroldatu diren gizon-emakumeak. Guztiak daude soka dantzan parte hartzera gonbidatuta.





Idiak, Ferixa Nagusiko bereizgarria. GOIENA

# 24 idi-pare egongo dira aurtengo Ferixa Nagusian

Idiak dira Elgetako jaietako azokako bereizgarria eta aurten 48 buru eroango dituzte. Herrikoek ere hartuko dute parte Ferixa Nagusian; ez, ordea, idiekin. Haiek ganadua, ardiak, ahuntzak, barazkiak eta eskuz egindako artisau produktuak eroango dituzte

**Miren Arregi** ELGETA

Uztailaren 1ean, domeka, egingo da herriko jai nagusiei izena ematen dien Ferixa Nagusia Elgetan. Feriak, urtero moduan, bi gune nagusi izango ditu: bata, plazan eta inguruetan –artisauak eta bestelako saltzaileak egongo dira han–, eta Berraondokoan bestea –han ganadu feria kokatuko da–. Artisau postuei dagokienez, 60 postu inguru egongo dira. 24 bat egurra, zilarra, telak... lantzen dituzten artisauenak eta beste 35 inguru, saltzaileenak. Pastelak, ogia, berdurak eta bestelakoak eroango dituzte horiek. Horietatik guztietatik bederatzi bat izango dira elgetarrak. Sei artisau postuetan egongo direnak –Pili Arin, Sonia Miranda, Lorena Ibeas, Salba Blanco, Felix Larrañaga eta igor Herce– eta beste hiru, jakien postuetan. Lorea Aranzetak eztia eroango du eta beste bi lagunek, Marokoko produktuak.

## Idiak, berezitasun

Elgetako ganadu feria ezaguna da bertako eta inguruko baserritarren artean, salerosketarako gune tradizionalki ezaguna baita. Baina zerbaitek bereizten badu Ferixa Nagusia, horiek idiak dira. Aurten, 24 idi-pare ikusi ahal izango dira herrian; guztira 48, beraz. Egongo dira Angiozarkoak eta Basalgokoak tartean. Gainerakoak kanpoko herrietatik eroango dituzte. Gainera, beste hiru ganadu talde ere egongo dira, horietatik bi herrikoak: Oilakorta baserrikoak eta Barrenenguakoak. Bestetik, ahuntzak, ardiak, behorrak eta astoak ere egongo dira. Elgetako Enrike Ormaetxeak ardiak eroango ditu; Julen Beretxinagak, berriz, ahuntzak. Ganaduetan 40 buru inguru egongo dira eta beste horrenbeste ahuntz, ardi, behor eta astoak batuta.

Goizeko bederatzietan hasita, ganaduzale, artisau eta bestelako saltzaileak euren postuetan egongo dira egun horretan. Horixe izango da eguneko protagonista, baina bestelakoak ere izango dira. 17:00etan, esaterako, buruhandiak aterako dira kaleak girotzera eta 17:30ean karaoke lehiaketa egongo da Amaia Txintxurretarekin eta Gauargi taldearekin. Saria gitarra elektriko bat izango da.

JAI ZORIONTSUAK ELGETAR GUZTIOI!
CIE Recycle
Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
www.cieautomotive.com

*Elena Elkorok zorionik beroenak opa dizkizue elgetar guztioi eta bertaratzen zaretenoi.*
*Ondo pasatu!*

# Mediterraneoko Jokoetan izango da Maialen Axpe

**ATLETISMOA** Ekainaren 27tik 30era bitartean jokatuko dituzte 28. Mediterraneoko Jokoak, Tarragonan, eta maiatz hasieran lortutako 4,25eko markari esker lortu du pertika jauzilari arrasatearrak aukeratuen artean egotea

**X.U.** ARRASATE

Aspaldiko atletismo denboraldi borobilena egiten dabil Maialen Axpe (Arrasate, 1993). Pista estalian 4,40 marka ikusgarria lortu zuen, eta, hasiera batean Europako Txapelketara joateko gutxieneko marka lortu zuela uste izan bazuen ere, ondoren baieztatu zioten Berlinera joateko marka 4,45ekoa zela.



Maialen Axpe, pertikari bultzada ematen dion unean. GOIENA

**Merezitako saria iritsi zaio**

Amorerik eman barik, kolpe horretatik lehenbailehen errekuperatu zen Atletico San Sebastian taldeko atleta, eta orain, aire zabalean iritsi zaio saria: Maialen Axpek Espainiako selekzio absolutuarekin egingo du debuta ekainaren 27tik 30era Tarragonan egingo dituzten Mediterraneoko Jokoetan. Txapelketa horretarako aukeraketa COEko eskakizunen arabera egiten dute, eta Arrasatekoak bere alde izan du maiatz hasieran Iruñean –han bizi eta entrenatzen da– egindako marka ona (4,25). Bada, ondoren beste atleta batzuek marka hori ondu dute –esaterako, Malen Ruiz de Azuak 4,35 egin du asteburuan Valladoliden, baita Monica Clementek ere–, baina atleta horiendako berandu iritsi dira marka on horiek eta ez dira Tarragonan izango.

Hain zuzen ere, lehenengo aldia izango da Debagoieneko atleta batek maila absolutuan Mediterraneoko Jokoetan parte hartzen duena.

## Ruiz de Azua, Valladoliden onena



Ruiz de Azua, trofeoarekin. A.A

Joan den astean Valladoliden jokatutako txapelketa erabakigarria izan zen Espainiako maila gorenean kategoriari eusteko, eta, bertan egindako txapelketa borobilari esker, Super Amara Bidasoa taldeak Ohorezko Mailan jarraituko du. Lorpen horretan parte-hartze nabarmena izan zuen Malen Ruiz de Azuak, pertika saltoan onena izan zen eta.

Txapelketan lehia polita izan zuen Monica Clementerekin. Arrasatekoak akats bakarra egin barik 4,20ko marka gainditu zuen, eta 4,35eko marka egin ahal izan zuen hirugarren saiakeran –marka pertsonala–. Clementek ere marka hori lortu zuen, baina, lehenago baliogabeko hainbat salto egin zituenez, arrasatearrarendako izan zen garaipena. Gainera, txapelketako atleta onenaren MVA Iberdrola saria eman zioten Ruiz de Azuari.

## Lau atleta, Espainiako txapelketara

Joan den astean, Arrasateko atletak batean eta bestean ibili ziren txapelketan. Salamancan Ibai Fernandez nabarmendu zen, 100 metrokoan 10.77ko denbora egin zuen –marka pertsonala ondu zuen, eta Arrasateko inoizko marka onena da–. Txapelketa berean izan zen Eneko Carrascal zazpi metrora gerturatu zen luzera saltoan (6,96) eta hura ere Murtzian izango da asteburuan. Bada, bi atleta horiek 20 urtez azpiko Espainiako Txapelketan izango dira, Murtzian.

Eta Espainiako Txapelketan lehiatzeko gutxieneko marka dute, baina 18 urtez azpikoen mailan, Mikel Agirrek eta Alex Agirianok. Agirrek 6,73 egin zuen Anoetan luzera saltoan. Gijonen egingo dute txapelketa.

# Aitor Fernandez atezainarekin harremanetan jarri da Reala

**FUTBOLA** Besteak beste, Betis, Levante eta Real Sociedad taldeek erakutsi dute interesa

**X.U.** ARRASATE

Aitor Fernandez (Arrasate, 1991) atezain arrasatearrak Numantziarekin egindako denboraldi onak Lehenengo Mailako taldeen interesa piztu du. Azken egunetan, komunikabideek Levante eta Betis taldeen izenak nabarmendu dituzte, eta aste barruan *Mundo Deportivo*-k aurreratu du Asier Garitanoren Reala Arrasatekoarekin harremanetan jarri dela.

Bada, dagoeneko oporretan dagoen atezain arrasatearrak GOIENAri informazio hori baieztatu dio; hau da, Realak interesa erakutsi duela, baina hortik aurrera ez dakiela gehiago.



Aitor Fernandez. YOUTUBE

**Mailaz igotzeko pauso batera**

Gorengo mailara igotzeko pauso batera geratu da Jagoba Arrasateren Numantzia, eta taldeak egindako denboraldi onaren erantzuleetako bat izan da Fernandez. Arrasatekoa fitxatzeko Lehenengo Mailako taldeek ez dute aparteko esfortzurik egin behar, Fernandezen klausula 1,5 milioikoa da-eta –duela gutxi berritu du kontratua Numantziarekin–. Hala ere, Realak atezain berri bat fitxatu aurretik, etxean dituen atezainen gainean hainbat erabaki hartu behar ditu; izan ere, Moya, Rulli eta Toño Ramirez ditu postu hori betetzeko eta Sanseko Zubiaurrek kontratua berritu du.



ARRASATE-ARLUTZ XAKE TALDEA

# Gaztedi torneoan txapeldunorde

**XAKEA** Joan den asteburuan jokatu zituzten, Azkoitian, Gaztedi txapelketako finalak, eta 16 urtetik azpikoen eta 12 urtetik azpikoen finaletan Arrasate-Arlutzek hiru talde izan zituen. Nagusiak txapeldunorde izan ziren, finala Grosen kontra galdu eta gero.

# Udanako Igoerak txanda bat gehiago izango du

**AUTOMOBILISMOA** Bihar, zapatua, lasterketa ohi baino goizago hasiko dute, 14:30ean, Federazioaren proposamena onartuta lasterketak txanda bat gehiago izango du eta. Irteera puntuan 70 pilotu baino gehiago batuko dira, horietako hamar oñatiarrak

**Xabier Urzelai** OÑATI

Zapatuko Udanako Igoeraren 13. edizioak nobedade nabarmen bat ekarriko du (14:30), ohi baino luzeagoa izango dela, Udana Racing taldeko lagunek entrenamendu txanda bat gehiago jarriko dute eta: "Federazioaren proposamena izan zen eta onartu egin dugu. Hala, pilotuek bi txanda izango dituzte entrenamenduetarako, eta ondoren beste bi txanda ofizial", adierazi du Koldo Txintxurretak.

Modu horretan, pilotuek kilometro gehiago egingo dituzte lasterketan, eta ikusleek ere txanda bat gehiago izango dute gozatzeko: "Oso egingarria da, txanda bat 30 minutu baino ez dira eta. Istripuak daudenean etortzen dira arazoak, eta lasterketa komeni baino gehiago luza daiteke, baina espero dezagun halakorik ez gertatzea", dio Federazioko prentsa arduradun Eduardo Maturanak.



BMW autoa hasierako metroetan, 2016ko lasterketan. I.SORIANO

**70 pilotu baino gehiago**

Hala, Federazioak baieztatu du 70 pilotu baino gehiago izango direla irteera puntuan, eta Udana Racingekoek nabarmendu dute horietako hamar oñatiarrak izango direla: "Badago jendea autoa Udanako Igoerarako bakarrik prestatzen duela. Esaterako, hori da Josu Olalderen kasua, BMW Compact autoarekin etxeko lasterketan egingo du debuta". Hala, txantxikuen artean hauek dira lasterketan izango direnak: Asier Mugarza (Clio Sport), David Ardions (Mitsubishi EVO), Ruben Nogueiras (Silver Car), Josu Olalde (BMW Compact), Julen Altuna (BMW E36), Jagoba Txintxurreta (BMW E36), Andoni Boyero (Golf GTI), Josu Agirre (Ibiza Cupra), Asier Samaniego (BMW E36) eta Javier Mugarza (Clio Sport).

**BI TXANDA ENTRENAMENDUKOAK IZANGO DIRA ETA BESTE BIAK, OFIZIALAK**

**Ikusleendako oharrak**

"Komisarioei kasu egiteko eskaera egin gura dugu –lasterketan 40 izango dira– eta Udanako bazterrak zeuden moduan uzteko; hau da, garbi".

## Parke itxia ez da plazan egongo

Lasterketa amaituta, Udanako Igoeran esku hartu duten autoek parke itxirako bidea hartuko dute, komisarioek autoak egiaztatu ditzaten. Plazan beste hitzordu batzuk izango direnez, baina, sari banaketa ekitaldia gazteleku parean egingo dutela adierazi dute Udana Racingekoek, eta parke itxia plazaren lehengo aparkalekuan jarriko dute.



Parke itxia ez da Oñatiko plazan egongo, baina bai ondoan. I.SORIANO

# 'La Dolorosa' lasterketa irabazi du Argider Isasti oñatiarrak

**MENDIKO BIZIKLETA** Ultramaratoi kategorian nabarmendu zen, 205 kilometro 10 ordu eta 40 minutuan eginda

**X.U.** OÑATI

Argider Isasti oñatiarra bizikleta gainean ondo moldatzen dela jakinekoa da, eta baita distantzia luzeetara ondo egokitzen dela ere. Orain arte egindako ironman probetan zaildua –hamarretik gora egin ditu–, 2015ean Kantabrian lortu zuen lorpen handiena, *Soplaoman* lasterketa entzutetsua irabazita.

Kirolariek horrenbeste gorrotatzen dituzten lesioak etorri ziren gero, eta baita operaziogelatik pasa behar izatea ere. Bada, korrika egiten hasteko presarik ez badu ere, bizikleta gainean lehengo mailara bueltatzen dabil, eta asteburuan erakutsi du hori, Isuerren (Zaragoza) egiten duten Espainiako mendiko bizikleta proba gogorrenetakoa irabazita.

Oñatiarrak 10 ordu eta 40 minutu erabili zituen 205 kilometroko ibilbidea egiteko –5.000 metroko desnibelarekin: "Arantza ondo kendu dut! Egutegian gorriz markatutako eguna zen, eta barruan neukan guztia aterata lortu dut bila nenbilena!", adierazi du Isastik sare sozialetan.



Isasti bizikleta gainean. A.I.

### ATLETISMOA Nere Arregi, Santander Hiria lasterketan bigarren

Joan den astean jokatu zuten Santander Hiria lasterketa –Espainiako Txapelketa– eta Nere Arregi podiumeko bigarren postura igo zen, 50 kilometroko lasterketan 3.38ko denbora egin eta gero. Marka horrekin, irailaren 8an Kroazian egingo duten 100 kilometroko Munduko Kopan egoteko aukeratu du Espainiako hautatzaileak.

### ESKALADA Kaleko boulder txapelketa, domekan

San Juan jaien barruan, street boulder edo kaleko boulder txapelketa egingo dute domekan Arrasaten (17:00). Izen-ematea txosnetan egin beharko da, ordu erdi lehenago, eta antolatzaileek herriko kaleetan prestatutako guneak gainditzen ahalegindu beharko dute eskalatzaileek: "Kirol hori herrian ezagutaraztea da helburua".

### TXIRRINDULARITZA 'QH'-n batuko dira ehunka debagoiendar bihar

Urtero moduan, ibarreko ehunka zikloturista batuko dira bihar goizean (Sabiñanigo, 07:15) Quebrantahuesos proban, bizikleta gainean 200 kilometro egiteko gertu. Joan den astean Otsagabian Iratixtreme proba egin zutenek ez moduan –euria eta hotza izan zuten kilometro askoan–, asteburuarako giro ona eman dute Pirinioetan.

### PILOTA Udaberri Txapelketako finalak Oñatin, gaur

Ordizian, Astigarragan eta Oñatin jokatuko dituzte gaur, egubakoitza, Udaberri Txapelketako finalak. Zubikoan jokatuko dituzten partiduei dagokienez (19:15), eskuz binaka, bigarren urteko alebinen kategorian Aloña Mendikoek Azkoitiko pilotariak izango dituzte aurrean. Infantiletan, berriz, zestoarren arteko lehia izango da.

# "Zientzia fikziozko filma egin dut familia irudiekin"

**IBAN DEL CAMPO** ZINEMA ZUZENDARIA

78 film laburren artean zazpi aukeratu dituzte 21. Kimuak katalogorako; horien artean dago Iban del Campo arrasatearraren 'Espedizio handia' zientzia fikziozko lana

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE

Bigarrenez dago Etxepare Institutuaren eta Euskadiko Filmategiaren laguntzarekin antolatutako Kimuak programan; 2009an, *Dirty Martini* izan zuen.

**Zorionak! Pozik?**

Oso pozik, lantaldeak egindako lan guztiari zentzua ematen diolako, eta, ilusioarekin, toki askotan erakutsiko dutelako.

**Zer kontatzen du filmak?**

Nire aitak orain dela urte asko idatzi zuen ipuin baten moldaketa da. 3001ean abiatuko den izarren arteko espedizio bat kontatzen du, unibertsoaren erdigunera heltzea dute helburu; ez dugu esango, noski, lortzen duten edo ez.

**Zerk bultzatu zaitu zientzia fikzio generoa egitera?**

Batez ere, aitaren ipuinak; aspalditik nuen istorioarekin zerbait egiteko gogoa. Era berean, Stanley Kubrickek *2001: Odisea en el espacio* filma egin zuela 50 urte bete dira aurten, eta film esanguratsu horri keinua egin gura izan diot.

**Diozu zientzia fikzioa genero konplikatua dela; zergatik?**

Hasteko, ez dagoelako Lurrean girotuta; hor hasten dira konplikazioak, nola jantzi irudiekin eta zer soinu erabili. Asmatu egin behar izan dut guztia.



Iban del Campo zinema zuzendaria. I. C.

**Irudiei dagokienez, gehienbat, aurretik zenituenak erabili dituzu. Zelakoak?**

Hainbat iturritakoak nahastu ditut: batetik, Australian bizi den osaba batek grabatutako familia irudiak; Super 8 kamera batekin irudiak hartzen zegoen beti. Egia esan, zaila da zinema familiarrarekin zientzia fikzioa egitea. Izututa daukat familia!

**Zer diote etxekoek?**

Harrituta eta oso pozik daude, garai batean grabatutako irudiekin film bateko aktore bihurtu direlako [Barreak]. Horrez gainera, zientzia fikziozko beste film batzuetako irudiak erabili ditut, eta badaude honetarako espresuki grabatutakoak ere. Hori guztia, soinu bandak eta *off* ahots batek lotuta.

**Lehenengo aldiz egin duzu horrela kontakizuna.**

Bai; alde horretatik ere, zerbait berria egin nahi nuen. Egun batean, autoan irratia entzuten nindoan, nolabait nire buruan *casting*-a egiten, eta hala aurkitu nuen bila nenbilen ahotsa, Arrasate Irratian. Lagun baten etxe-estudioan grabatu genuen istorio osoa arratsalde batean.

**Soinu banda zelakoa da?**

Bitxia da hori ere; lehenago aipatu dudan osabaren musika artxibotik atera nuen gehiena; Ingalaterran bizi zenean irratietan grabatutakoetatik. Horrez gainera, *Blade Runner* filmaren kanta zati bat ere badago; nolabait eskertzeko egin zuten lana.

**Zure bizipenetan oinarrituta, zer da Kimuak-en egotea?**

Ia bi urtez zure filma munduan zehar mugitzea; ikaragarria da! Azken lanak egiten ari gara orain: kartela, trailerra eta azpitituluak zazpi hizkuntzatan.

**Lanez lepo, hortaz, baina pozik.**

Duda barik! Esperimentu bat izan da, eta begira, Kimuak-era iritsi gara!



Marimotos eta Pirritx pailazoak Aretxabaletako Puntaik Punta jaialdian. I. S.

## Antolatzaileak, "pozik" Puntaik Punta jaialdiko giroarekin

Urte bukaeran zehaztuko dute jarraipena izango duen Mankomunitateak antolatutako bidezidorren jaialdiak

**A. A.** ARETXABALETA

"Giro aldetik oso ondo egon da, jende asko ibili da asteburuan Aretxabaletan, herriko jaien itxura hartu du herriak; aztertzeko daukagu oraindik ekitaldiz ekitaldi erakarri duen jende kopurua, baina ez dakigu zenbateraino lortu dugun kanpotik jendea gurera erakartzea. Bertakoek, herrikoek zein Debagoieneko beste herrietakoek ere oso ondo erantzun dute, lagun askok hartu dute parte, orokorrean, ekitaldi guztietan; baina Puntaik Punta jaialdiaren helburua, azken finean, ez da bakarrik ondo pasatzeko jaialdi bat antolatzea, Debagoiena ezagutaraztea ere asmo nagusien artean dago, eta, alde horretatik, hobeto aztertu beharko dugu, eta horretan ari gara orain, datu guztiak biltzen azterketa zehatzagoa egiteko", azaldu du Aretxabaletako alkate Unai Elkorok.

Jaialdiaren etorkizuna urte bukaerarako zehaztuko dutela dio Elkorok: "Datuak eskuetan, ikusiko dugu laugarrenik izango den eta zein herrik hartu duen antolatzeko erronka".

**Ibilaldi guztiak, bat izan ezik**

Aurreikusten zuten moduan, kultur ekitaldiak arrakastatsuak izan direla dio alkateak: "Egubakoitzean eguraldiak ez zuen askorik lagundu; hala ere, ez zen traba izan Herriko Plaza jendez betetzeko. Era berean, asmatu genuen zapatu eguerdirako kontzertua programatzen".

Ibilaldi eta tailerrei dagokienez, zera dio Elkorok: *"Nording walking*-a izan ezik, beste guztiak egin ziren; jende gehien Murrukixorenak batu zuen, urtero legez: 200 lagun. Senderismo Azokan izan zirenak ere pozik daude; beste jaialdietan baino liburu gehiago saldu zituztela zioten" .



# Dagoeneko eskuragarri 'Biblioporrak' gida berria

Debagoieneko Biblioteketan eta 'on-line' ere bai –udal atarietan eta sare sozialetan– irakur daitezke liburuzainek udarako proposatu dituzten euskarazko eta gaztelerazko liburuak, filmak eta diskoak; oraingoan ere, askotariko genero eta gaietakoak daude

**A. Aranburuzabala** ARETXABALETA

Uda da gehien irakurtzen den sasoia, eta irakurle asko izaten dira liburutegietara gomendio eske joaten direnak. Helburu horrekin kaleratzen dute, 2005a ezkero, Arrasateko, Aretxabaletako, Eskoriatzako, Bergarako, Oñatiko, Aramaioko eta Legazpiko udal bibliotekek *Biblioporrak* gida.

### Aretxabaletakoak, koordinatuta

Bi bileratan finkatzen dituzte bildumaren osagaiak. "Haurrendako eta gazteendako proposamen batzuk eramaten ditu biblioteka bakoitzeko ordezkariak lehenengo bilerara, eta bigarren bileran, helduentzako proposamenak lantzen ditugu modu berean; horietatik guztietatik egindako aukeraketatik osatzen dugu *Biblioporrak,* udarako; eta negurako, berriz, *Neguko gida",* dio Aretxabaletako bibliotekari Joseba Armentiak; eurei egokitu zaie azkenekoa koordinatzea.



*Biblioporrak 2018* gidaren azala. N. I.

Gomendioen zerrenda osatutakoan, gidari forma emateko, ilustratzailearekin elkartzen dira. Urte askoan giden diseinua Iraide Olaizolak egin badu ere, Antzuolako Nagore Igartza arduratu da aurten lan horretaz.

### 6.800 ale argitaratu dituzte

Ikastetxeetan banatu dituzte dagoeneko ale berriak, eta liburutegietan ere hartzeko moduan daude; horrez gainera, formatu digitalean nahi duenarentzako, dagokion herriko edo liburutegiko atarian daude eskuragarri.

### Adinaren arabera banatuta

Aurreko aldietako formatuari edo egiturari jarraituz, hiru sailetan banatuta dago biblioteken gida berria: liburuak, musika eta filmak.

Lehenengoan, adinaren arabera banatutako proposamenak daude; euskarazkoak eta gaztelerazko argitalpenak daude adin tarte guztietarako. "Aukeratu ditugun gehienak lan berriak dira, hau da, 2018an argitaratuak; eta iragarri edo eskainitako ekoizpen guztiak Debagoieneko udal biblioteketan hartzeko moduan daude. Saiatzen gara ahalik eta liburu berri gehien ekartzen gurera".

# Hor Konpon musika taldeak agur esango die agertokiei

Bihar, zapatua, Donostiako Doka Kafe Antzokian egingo dute azken kontzertua, Lenao eta Jabi Zolarekin batera

**Miren Arregi** OÑATI

Oñatiko Kilometroak 2017ko bideokliparen aurkezpen ekitaldiaren aitzakian, taula gainera bueltatu ziren Hor Konpon taldeko kideak –Xabier Yaniz, Andoni Kanpos, Oskar Arlanzon eta Koldo Lizarralde–, 21 urtez agertokirik zapaldu barik egon ostean. Abesti bat jo zuten ekitaldi hartan, eta gehiagoren gogoz gelditu ziren. Orduan, lau kontzertuz osatu den bira bat hasteko konpromisoa hartu zuten. Bihar Donostiako Doka Kafe Antzokian 20:00etan hasiko duten kontzertuarekin agur esango diete agertokiei, betiko. Urte honetan bizi izandakoaren zapore gozoa gelditu zaie, eta nostalgia barik doaz, "uzteko momentua" dela iritzita. "Oso polita izan da, asko disfrutatu dugu, eta, nolabait, lehengo garaiak berriz bizi ahal izan ditugu. Gugatik itzuli ginen kontzertu hauek egitera, gugatik eta maite gaituztenengatik. Seme-alabak aurrean ikustea oso berezia izan da", dio taldeko abeslari Xabier Yanizek, urte honetako esperientziaz galdetuta.

Urte honetan zehar, gauzak nola aldatu diren ikusteko aukera izan dutela nabarmendu dute taldekideek. "Alde batetik, onerako, gaur egun dagoen aniztasuna gure garaikoa baino askoz handiagoa baita". Baina horrek badu bere alde txarra, Yanizen esanetan: "Eskaintza oso zabala da, eta jotzeko aukerak asko zaildu dira".

### Agur kontzertua, bihar

Hor Konponeko taldekideek Dokako agertokia elkarbanatuko dute bihar Lenao talde oñatiarrarekin eta Jabi Zola bakarlari donostiarrarekin batera. Jabi Zolak, bidea hasten ari den musikariak, emango dio hasiera kontzertuari. Bukatu, Hor Konponen emanaldiarekin bukatuko da. Oñatiko Lenao taldeak osatuko du egitaraua.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko ekaineko sariak!




Doninorrez taldearen CDa
Parte hartzeko sariaren izena: doninorrez




15 produktu sorta ditugu zozketatzeko
Parte hartzeko sariaren izena: LACTURALE

Esne Behien Interpretazio Zentroa bisitatzeko gonbidapenak ditugu zozketatzeko
Parte hartzeko sariaren izena: LACTURALE_BISITA



Sarrerak
Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz
ARRIKRUTZ



Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

PARTE HARTZEKO:
Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Irabazi bi lagunendako otordua
ETXAGI JATETXEARI ESKER
Begiratu Puntua aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte!
943 25 05 05 kluba@goiena.eus
KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.




*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...




Bazkidetu zaitez: 2018 (Ekainetik aurrera): 31€
Deitu: 943 25 05 05. kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

## HILDAKOAK

**Juan Igartua Erostarbe.** Oñatin, ekainaren 7an. 91 urte.

**Aurori Cereceda Ortiz.** Arrasaten, ekainaren 8an. 86 urte.

**Jacinto Santos Calvo.** Arrasaten, ekainaren 9an. 94 urte.

**Txomin Jauregi Diaz de Mendibil.** Bergaran, ekainaren 14an. 89 urte.

**Eugenia Untzilla Araña.** Bergaran, 15ean. 85 urte.

**Eugenio Zubia Iñurrategi.** Aretxabaletan, 15ean. 88 urte.

**Manuel del Rio Liste.** Arrasaten, ekainaren 19an. 83 urte.

**Anton Ansoategi Iribekanpos.** Arrasaten, 20an. 69 urte.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| **ARRASATE** *EGUNEZ* | |
|---|---|
| **Egubakoitza, 22** | ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30 |
| **Zapatua, 23** | ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15 |
| **Domeka, 24** | M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99 |
| **Astelehena, 25** | MUSAKOLA: Gipuzkoa etorbidea 11 / 943 79 22 26 |
| **Martitzena, 26** | IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39 |
| **Eguaztena, 27** | SANCHEZ ALVAREZ: Santa Marina 32 / 943 79 09 74 |
| **Eguena, 28** | ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65 |

| **BERGARA** *EGUNEZ* | |
|---|---|
| **Egubakoitza, 22** | MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15 |
| **Zapatua, 23** | URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74 |
| **Domeka, 24** | URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74 |
| **Astelehena, 25** | ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87 |
| **Martitzena, 26** | OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05 |
| **Eguaztena, 27** | ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63 |
| **Eguena, 28** | MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15 |

| **OÑATI** *EGUNEZ BAKARRIK* | |
|---|---|
| **Egubakoitza, 22** | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |
| **Zapatua, 23** | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |
| **Domeka, 24** | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |
| **Astelehena, 25** | GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58 |
| **Martitzena, 26** | GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58 |
| **Eguaztena, 27** | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 |
| **Eguena, 28** | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 |

**ARRASATE** *GAUEZ EGUNERO*
*(22:00etatik 09:00etara)*
**2018ko abenduaren 31ra arte:**
IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39

**BERGARA** *GAUEZ EGUNERO*
*(22:00etatik 09:00etara)*
**2018 osoan:**
MOZOS: Iparragirre 2
943 76 12 15

**Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:**
*COF Gipuzkoa* aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

### ESKER ONA

## Eugenio Zubia Iñurrategi



2018ko ekainaren 15ean hil zen, 88 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2018ko ekainaren 22an.

### OROIGARRIA

## Eugenio Zubia Iñurrategi



Agurtzane Gainzarain lankidearen aitaginarreba

2018ko ekainaren 15ean hil zen, 88 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

goiena

Goiena Komunikazio Taldea.
Aretxabaletan, 2018ko ekainaren 22an.

### URTEURRENA

## Ignacio Bikuña Arrazola



2017ko ekainaren 22an hil zen, 89 urte zituela.

Urteurreneko meza ekainaren 30ean, zapatua, izango da, 19:00etan, Oñatiko Mikel Deunaren parrokian.

—

*Zure maitasuna*
*eta zure esaldiak*
*gurekin gelditzen dira.*

Zure familia

Aldez aurretik, mila esker.
Oñatin, 2018ko ekainaren 22an.

### OROIGARRIA

## Anton Ansoategi Iribekanpos



2018ko ekainaren 20an hil zen, 69 urte zituela.

*Agur lagun, adiskide*
*agur eta bai, betira arte*
*begiak busti, samina nagusi*
*sentimena zimurturik.*
*Hire hutsunea beteko duanik*
*etxaukau-eta besterik.*

Hire kuadrillia.
Arrasaten, 2018ko ekainaren 22an.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
edo *eskelak@goiena.eus*

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**

**ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

**BERGARA** Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**ELGETA** Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.



**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Jakin ezazue nahiz eta heriotz asegurua izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.*



*Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.*

*maribi 617 44 21 55*
*BERGARA*

## TXUTXU-MUTXUAK


















**1. 100 urte bete ditu!**
Maria Luisa Barandiaran arrasatearrak 100 urte bete zituen ekainaren 16an. Udal ordezkarien eta etxekoen bisitak jaso zituen egun berezi hartan. Zorionak!

**2. 50 urte ezkonduta**
Bergarako Pello Garitanok eta Arantzazu Askasibarrek urrezko ezteiak bete zituzten ekainaren 12an. "Zorionak, etxeko guztien partetik! Ondo pasa!".

**3. Elgeta, zuri-gorri jantzita**
Jose Angel Iribar, Koikili Lertxundi eta Carmelo Cedrun jokalari ohiak egon ziren Elgeta Zurigorri Egunean, Intxortako Lehoiak lagunartearen 10. urteurrena ospatzeko.

**4. Kobazuloz kobazulo**
Superlegor, Itxu Legor eta Arku Atxa kobazuloak bisitatu zituzten Aloña Mendikoek ekainaren 17an. Urigoitin hasi zuten ibilbidea, eta Pagokamurren bukatu.

**5. Antzuolako pilota txapeldunak**
Aimar Linzoain, Auritz Iturbe, Ekaitz Labaien, Jon Tena, Ander Mihai, Oier Aldasoro, Unax Errasti eta Imanol Gabilondo izan ziren irabazleak.

**6. Ikasturte bukaerakoa, Gaztelugatxera**
Bergarako Helduen Eskolako ikasleak eta irakasleak Bizkai aldera joan ziren ekainaren 14an. Ikasturtea bukatzeko modu bikaina. "Egun zoragarria pasa genuen", diote.

**7. Mugarrien birako bigarren etapa**
Pol-Poleko lagunek Uberatik Osintxurainoko ibilbidea egin zuten. Eguraldi txarra eginda ere, 21 lagun animatu ziren. Hirugarrena Osintxutik Elosura egingo dute, uztailaren 9an.

**8. Aranzadikoak, Duruko txaboletan**
Bergarako Aranzadi Ikastolako LHko lehen mailako ikasleak Oñati aldera joan ziren. Hango txaboletako aitona-amona batzuei egin zieten bisita.

## ZORION AGURRAK



BERGARA
**Markel Garitano Atxa**
Ekainaren 27an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, familia osoaren partetik. Ondo pasatu eguna!



ARETXABALETA
**Ainhitze Kerejeta Abril**
Ekainaren 27an, 12 urte. Zorionak, printzesa! Oso-oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean, zure etxekoen partetik.



ARRASATE
**Maren Hernandez Navarro**
Ekainaren 27an, 3 urte. Zorionak, Maren! Familiaren eta laguntxo guztien partetik, patxo handia, sorgintxo!



OÑATI
**Markel Cortabarria Zubizarreta**
Ekainaren 26an, 10 urte. Zorionak, Markel! Ondo-ondo ospatu zure eguna. Patxo potolo bat! Maite zaittugu!



ARETXABALETA
**Markel Barandiaran Otxoa**
Ekainaren 26an, 6 urte. Zorionak, mutil handi! Muxu mordo bat! Etxekoak.



ARRASATE
**Ana Espinosa Arrocha**
Ekainaren 25ean, 50 urte. Zorionak, amatxo! Ondo pasatu zure egunean, etxekoen partetik.



BERGARA
**Unax Mujika Beistegi**
Ekainaren 25ean, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure egunean, maittia. Patxo handi bat, etxekoen partetik.



BERGARA
**Erika Yue Borge Murillo**
Ekainaren 24an, 14 urte. Zorionak, politt hori! Ondo pasatu zure eguna!



OÑATI
**Paul Montero San Vicente**
Ekainaren 24an, 10 urte. Zorionak, txapelduna! Munduko laztanik beruena zuretzat! Asko maitte zaittugu!



BERGARA
**Jon Maiztegi Uribesalgo**
Ekainaren 22an, 2 urte. Zorionak, Jon!



ARAMAIO
**Jakes Valoria Garcia**
Ekainaren 22an, 6 urte. Zorionak, bihotza! Mila muxu eta besarkada erraldoi bat, etxekoen partetik!



BERGARA
**Unai San Vicente Aizpiri**
Ekainaren 22an, 5 urte. Zorionak, maittia. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzian eta muxu asko etxeko danon partetik!



ANTZUOLA
**Lore eta Peru Kortabarria**
Zorionak, bikote! Lorek 21ean, 10 urte eta Peruk 30ean, 6 urte. Ondo-ondo ospatu zuen egunak eta muxu asko, denon partetik!



OÑATI
**Iker Arenaza Arriaran**
Ekainaren 21ean, 3 urte. Zorionak, mutikote! Patxo handi bat, etxeko danan partetik!



ARAMAIO
**Markel Palacios**
Ekainaren 21ean, 4 urte. Zorionak, begi polit! Lau urte jada! Zelako handia ein zaren! Muxu potolo bat, familia osoaren partetik! Asko maite zaitugu!



OÑATI
**Elene Urzelai Larrañaga**
Ekainaren 20an, 4 urte. Zorionak, politt hori! Patxo potolo-potolo bat, maitte zaitugun guztion partetik!



ARETXABALETA
**Markel eta Julen Larrinaga Sierra**
Ekainaren 20an, 9 urte. Zorionak, potxoluok. Besarkada eta patxo potolo-potolo bana, etxeko danon partetik. Mua!



BERGARA
**Nora Otaño Uriarte**
Ekainaren 19an, 8 urte. Zorionak, Nora! Egun zoragarria pasatu lagunekin eta etxekuekin. Eta patxo handi-handi bat, batez be Enekoren eta Laiaren partetik.



BERGARA
**Unai Sotil Domenech**
Ekainaren 19an, 6 urte. Zorionak, maitte! Oso ondo pasatu! Patxo erraldoia familiakoen partetik. Bereziki, Sara eta Aratz.



BERGARA
**Ekaitz Elkoro Urzelai**
Ekainaren 19an, 6 urte. Zorionak, maittia! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta segi irribarre polit horrekin. Muxu potolo-potoluak, etxeko danon partetik.



BERGARA
**Lur Mujika Catalan**
Ekainaren 19an, 5 urte. Zorionak familixako danon partetik eta patxo pila bat!



OÑATI
**Jon Garitano Moiua**
Ekainaren 17an, 5 urte. Zorionak, Jon! Jada bost urte! Ze handixa egin zarien! Ondo-ondo ospatuko dogu merendolan! Patxo handi bat, familixakuon partetik!



ESKORIATZA
**Unai Arana Romero**
Ekainaren 16an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Asko maite zaitugu! Besarkada handi bat amamaren, Marioren, Beñaten, aitatxoren eta amatxoren partetik.

# Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

**Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.**

**Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**

# AGENDA

**EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 22

**ELGETA Ikasturte amaierako bazkaria**
Herri Eskolakoen ekitaldia.
*Frontoi zaharrean, 12:30ean.*

**OÑATI 'Ekoudaltx' zerbitzua**
Landareak, haziak... erosi eta ortugintzari buruzko kezkak argitzeko aukera.
*San Martingo ortuak, 16:30ean.*

**OÑATI 6. mailakoen azken festa**
Ikasturte bukaerako festa.
*Kuboan, 17:00etan.*

**OÑATI San Juan lore sortak egiteko ikastaroa**
Maixol Bolinagaren eskutik.
*Lagun Lekun, 17:00etan.*

**ARRASATE Arrasate Musikaleko ikasleen emanaldia**
Ikasturte bukaerako saioa.
*Amaia antzokian, 18:00etan.*

**ARAMAIO San Juan jaiak Azkoagan**
18:00etan, *Gora txopue!* eta 21:00etan, afari musikatua.
*Azkoagan.*

**OÑATI Ikasturte amaierako kontzertua**
Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleen azken saioa.
*Foruen plazan, 18:30ean.*

**ELGETA Gaubeila**
Beldurrezko ipuinak eta filmak, jolasak, afaria...
*Gaztelekuan, 19:00etan.*

**ARETXABALETA Leizarra musika eskola**
Bandaren emanaldia.
*Herriko Plazan, 19:00etan.*

**BERGARA Mahonero Eguna**
19:00etan, karparen irekiera; 20:00etan, musika eskolakoen emanaldia; 21:00etan, afaria eta musika eskolakoen saioa; eta 23:00etan, Wave taldearen saioa.
*Seminarioko karpan.*

**ANTZUOLA Kalebarrengo jaiak**
19:00etan, danborrada; 19:30ean, elkartasun pintxoak Kongoko eta Senegalgo proiektuetarako; 22:00etan, haurrendako sagar dantza; 23:00etan, Talka taldea; eta 01:00etan, aulki jokoa.
*Kalebarrenean.*

**ELGETA Udalekuak: batzarra**
Gurasoendako.
*Udaletxean, 19:15ean.*

**OÑATI Euskaraldia: hamaikakoaren aurkezpena**
Ekitaldi irekia egingo dute.
*Foruen plazan, 19:30ean.*

**ARRASATE Herrixa Dantzan**
Dantzaldia Patxi Monterok gidatuta.
*Herriko Plazan, 19:30ean.*

**OÑATI Elkartasun afaria**
Mari Karmen Markuleta Oñatiko misiolariak parte hartuko du. Dirua Maliko proiektura bideratuko da.
*Bidaurretan, 20:00etan.*

**ARETXABALETA Bidelapurrak bikotea**
Folk doinuez betetako *Gorriak eta bi* diskoa aurkeztuko dute.
*Kixkor tabernan, 20:00etan.*

**BERGARA San Juan auzoko jaiak**
21:00etan, jaien hasiera eta 21:30ean, afaria Tartufo jatetxean.
*San Juan auzoan.*

**OÑATI The Nekrobabies taldea**
Rock-and-roll doinuak.
*Pako tabernan, 22:00etan.*

**ARRASATE Libertad Condicional eta Nafarroa 1512 taldeak**
San Juan jaiak.
*Txosnagunean, 22:00etan.*

## ZAPATUA 23

**OÑATI Udalekuak: begiraleendako formazio saioa**
Bigarren eta azken saioa egingo dute.
*Gaztelekuan, 09:00etan.*

**ESKORIATZA Kontzejupe Pilota Txapelketa**
Haurren txapelketa 10:00etan hasiko da –adinaren arabera bi maila– eta nagusiena, 15:30ean.
*Kontzejupean.*

**BERGARA Mahonero Eguna**
10:00etan, askotariko ekintzak; 13:00etan, triki-poteoa; 17:00etan, txapelketak; 18:00etan, karaokea; eta 21:00etan, afaria.
*Seminarioko karpan.*

**OÑATI XII. Udanako auto igoera**
10:30etik 12:30era, autoen egiaztapenak Foruen plazan eta 15:00etan, entrenamenduak.
*Oñatin.*

**OÑATI Ate irekiak Gomiztegin**
Aurrez izena eman behar da: 943-25 10 08.
*Gomiztegin, 11:00etan.*

**LEINTZ GATZAGA 'Zirku txiki' ikuskizuna**
Irekia.
*Dorleta baselizan, 12:00etan.*

**ESKORIATZA 'Txorimaloaren bila'**
San Juan bezperako jolasa, umeendako.
*Ludotekan, 12:00etan.*

**ANTZUOLA Kalebarrengo jaiak**
12:00etan, ginkana; 19:00etan, arbola jasoko dute; 20:00etan, soka dantza Oinarin taldearekin; 21:00etan, afaria; 22:30ean, San Juan su txikia, San Juan zortzikoarekin; eta 00:00etan, sagar dantza.
*Kalebarrenean.*

**ELGETA Musika ikasleen emanaldia**
Ikasturte amaierako emanaldia.
*Espaloian, 12:00etan.*

**OÑATI San Juan jaiak Garagaltzan**
13:30ean, jaien hasiera; 14:00etan, bazkaria; eta ostean, soinu-joleekin dantzaldia eta haurrentzat jolasak.
*Garagaltza auzoa.*

**BERGARA San Juan auzoko jaiak**
18:00etan, lizarra eta eliza apainduko dituzte eta 21:00etan, San Juan suak baserrietan.
*San Juan auzoan.*

**OÑATI Udako solstizioa**
18:00ean, txorimaloak; 22:00etan, traste zaharrak sutara botatzeko aukera; 22:30ean, San Juan sua, dantzariekin eta musikariekin; eta 23:00etan, dantzaldia.
*Foruen plazan.*

**ELGETA San Juan bezpera**
19:00etatik 21:00etara, disko festa bolatokian; 21:00etan, ogitartekoak afaltzeko; eta ostean, San Juan sua.
*Elgetan.*

**ARAMAIO San Juan jaiak Azkoagan**
19:00etan, hegazkin jaurtiketa; 20:00etan, parrilada; 22:00etan, Santagedatxora kalejira eta San Juan sua.
*Azkoagan.*

**ARRASATE San Juan sua eta errementari dantza**
Herriko euskal musika eta dantza taldeek parte hartuko dute.
*Herriko Plazan, 22:30ean.*

**ESKORIATZA San Juan sua eta tantaia igotzea**
22:00etan, 2001ean jaiotakoek tantaia jasoko dute; eta 22:30ean, San Juan sua.
*Fernando Eskoriatza plazan.*

**ARRASATE Garilak 26 taldea**
San Juan jaiak.
*Txosnagunean, 23:00etan.*

## DOMEKA 24

**OÑATI Kuboko futbol txapelketa**
8-12 urte artekoendako txapelketa.
*Larrañan, 10:00etan.*

**ANTZUOLA Kalebarrengo jaiak**
10:00etan, txistularien kalejira; 11:00etan, meza, eta ostean, salda eta txorizoa; 12:00etan, dantzari gazteak; eta 19:00etan, Joxe Mendizabalekin dantzaldia.
*Kalebarrenean.*

**OÑATI San Juan jaiak Garagaltzan**
12:00etan, meza; ostean, luntxa.
*Garagaltza auzoan.*

**ARRASATE Arrasate Musikaleko bandaren kontzertua**
12:00etan hasiko dute sanjuanetako kontzertua. Aurretik, 11:00etan hasita, kalejira egingo dute gaitariekin eta kilikiekin.
*Monterronen.*

**BERGARAI San Juan auzoko jaiak**
12:00etan, meza; 13:00etan, lore sorta lehiaketa; 13:15ean, 80 urtetik gorako auzotarrei omenaldia eta ortu lehiaketako sari banaketa; eta 14:00etan, bazkaria.
*San Juan auzoan.*

**ARAMAIO San Juan jaiak Azkoagan**
13:00etan, meza; ostean, parrilada; 17:00etan, jolasak eta puzgarriak; eta 18:00etan, mus eta briska txapelketak.
*Azkoagan.*

**ELGETA Gaztelekutik, zinemara**
Eibarrera joango dira LHko laugarren mailakotik gorakoak.
*Mendizaleen plazan, 15:30ean.*


LAST INFUSION

**ARAMAIO Last Infusion taldea**
Sastiñako musika festibalaren barruan, musika beltzari eta soul musikari keinu egiten dion Gasteizko taldeak *Between the lines* diskoa aurkeztuko du. Labetik atera berri den lana.
*Gaur, egubakoitza, Sastiñan, 20:00etan.*

**BERGARA Sutargiren eta txistulari bandaren kontzertua**
San Juan eguneko emanaldia. Doan.
*Santa Marinan, 19:00etan.*

**ARRASATE Demode Quartet taldea**
San Juan jaiak.
*Monterronen, 23:30ean.*

**ARRASATE Oihan Vega**
Disko festa egingo du Gaztea irratiko esatariak.
*Herriko Plazan, 23:30ean.*

**ARRASATE The Big Mac**
DJ emanaldia.
*Txosnagunean, 01:00etan.*

## ASTELEHENA 25

**OÑATI Udako kirol kanpainaren hasiera**
Lehenengo txanda hasiko da.
*Zubikoan, 09:00etan.*

**ESKORIATZA Hontza Extremera irteera**
8-12 urte artekoendako.
*Ludotekan, 09:00etan.*

**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*Foruen plazan, 12:00etan.*

**ARRASATE Eguzkilaruri ongietorria**
Makal txikia igoko dute.
*Biteri plazan, 12:45ean.*

**ANTZUOLA Erretiratuen bazkaria: izen-ematea**
Bazkaria uztailaren 8an egingo dute, baina gaur da izena emateko lehen eguna. Landatxopeko bulegoan. Txartelaren prezioa sei euro da.
*Landatxopen, 16:00etan.*

**ARRASATE Pirritx, Porrotx eta Marimotots**
*Borobilean* ikuskizuna egingo dute.
*Monterronen, 19:00etan.*

**ARRASATE Bertso jaialdia**
Unai Gaztelumendi, Oihana Bartra, Maddalen Arzallus eta Iñaki Viñaspre bertsotan.
*Seber Altuben, 20:00etan.*

**ARRASATE Sonidos De Mexico mariatxia**
San Juan jaiak.
*Herriko Plazan, 20:00etan.*

**ARRASATE Glaukoma eta Anita Parker**
San Juan jaiak.
*Txosnagunean, 23:00etan.*

## MARTITZENA 26

**ANTZUOLA Erretiratuen bazkaria: izen-ematea**
Bazkaria uztailaren 8an egingo dute, baina gaur da izena emateko lehen eguna. Landatxopeko bulegoan.
*Landatxopen, 16:00etan.*

**OÑATI Bingo jokoa**
Erretiratuendako, sariekin.
*Lagun Lekun, 17:00etan.*

**ARETXABALETA 'Haur eta gazteen transexualitatea'**
Chrysallis elkarteko kide Bea Serverrek eta Elaia Jimenezek egingo dute berba.
*Arkupen, 18:00etan.*

**ARRASATE 'Chef nature' ikuskizuna**
Markeliñe taldearen emanaldia, umeendako.
*Arkupen, 18:00etan.*

**ARETXABALETA Eskulanen ikastaroa**
Rosa del Aguilarekin ikastaroa egin dutenen bilduma ikusgai.
*Arkupen, 18:00etan.*

**ARRASATE Izaro bakarlaria**
San Juan jaiak.
*Arkupen, 18:00etan.*

## EGUAZTENA 27

**OÑATI Udaleku irekiak: gurasoendako batzarra**
Bi egingo dituzte: 18:00etan euskaraz eta 19:00etan gazteleraz.
*Gaztelekuan.*

**ARETXABALETA 'Etxeko kontuak' antzezlana**
Txotxongilo emanaldia. Mariak, Marianok, Martinek eta Mirentxuk osatzen duten familian gertatzen direnak kontatuko ditu Bihar Taldeak. Debalde.
*Santa Rita lorategian, 19:00etan.*

**OÑATI Corpusari buruzko erakusketa**
Alicia Tebarren, Arantza Arranzen, Jose Mari Arrigainen, Josu Fernandezen, Juan Antonio Untzurruntzagaren, Maribel Gartziaren, Marilo Zubizarretaren eta Natxo Castellanosen argazkiak.
*Kultura etxean, 20:00etara arte.*

## EGUENA 28

**ESKORIATZA San Pedro jaien bezpera**
12:00etan, marrazki lehiaketa; 17:30ean, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak; 18:00etan, ikurrinari omenaldia; 18:30ean, Areantzako kanpai-joleen erakustaldia; 19:00etan, txupinazoa; 19:30ean, kantu kalejira; eta 22:30ean, danborrada.
*Eskoriatzan.*

**ARETXABALETA Sexu Askapenerako Nazioarteko Eguna: elkarretaratzea**
Bailara mailako ekitaldi nagusia egingo dute.
*Herriko Plazan, 19:00etan.*

**OÑATI Sexu Askapenerako Nazioarteko Eguna: erakusketa eta tailerra**
*Orientazio sexuala eta genero identitateak* izeneko tailerra eta erakusketa egingo dituzte. Gorroto delituei begirako begirada orokor bat egitea dute helburu.
*Gaztetxean.*

**ARAMAIO 'Eta orain zer?' kontzertu musikatua**
Papargorri abesbatzaren azken lana. Debalde. Musika eta antzezlana bateratuko dituzte.
*Kultura etxean, 19:00etan.*

**ANTZUOLA Txotxongilo ikastaroa: izen-ematea**
*Muppet* teknika erabiltzeko ikastaroa egingo du Iñaki Matak uztailaren 18an eta 19an. Izenak emateko: 655 70 96 34.
*Laskurain baserrian.*

## ZINEMA

### OÑATI

KULTURA ETXEA

**Jurassic World**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

### GASTEIZ

BOULEVARD

**El hijo de Bigfoot**
Zapatua eta domeka: 16:00.

**Pocoyo**
Zapatua eta domeka: 18:00.

**Con amor, Simon**
Egunero: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30.

**Hereditary**
Egunero, martitzena izan ezik: 16:30, 19:05, 21:40, 00:15.
Martitzena: 16:30, 19:05, 00:15.

**Superagente canino**
Egubakoitzetik domekara: 16:20, 18:20, 20:20.

**Jurassic World**
Egubakoitzetik domekara: 16:00, 18:35, 21:10, 23:45.
Astelehenetik eguenera: 18:35, 21:10, 23:45.
Martitzena: 17:40.
Eguenea: 16:25, 21:55.

**Jurassic World 3D**
Astelehenetik eguenera: 16:00.

**¡Que guapa soy!**
Egubakoitzetik domekara: 17:40, 19:55, 22:10.
Astelehenetik eguenera: 20:20, 22:40.

**No dormiras**
Egubakoitza: 15:45, 17:55, 20:05, 22:15.
Zapatua eta domeka: 19:30, 21:45.
Astelehenetik eguenera: 15:45, 18:05.

**Deadpool 2**
Egunero: 19:45, 22:15.

**Verdad o reto**
Egubakoitzetik domekara: 22:20.
Astelehenetik eguenera: 22:50.

**Han Solo**
Egunero: 15:45, 18:30.

**Campeones**
Egunero: 21:15.

**Colmillo blanco**
Egubakoitzetik domekara: 15:50.

**El malvado zorro feroz**
Egunero: 16:00.

**Sherlock Gnomes**
Egunero: 17:50.

GORBEIA

**El mundo es suyo**
Egunero: n16:40, 18:35, 20:30, 22:20.

**Superagente canino**
Egunero. 16:30, 18:20, 20:10, 22:00.

**Jurassic World**
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 12:15, 17:30, 20:00, 22:30.

**¡Que guapa soy!**
Egunero: 17:30, 22:30.

**Deadpool 2**
Egunero: 20:00.
Domeka: 12:00, 20:00.

**Campeones**
Egunero: 17:20, 20:00, 22:30.

**Hereditary**
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

**Sherlock Gnomes**
Egunero: 17:20.
Domeka: 12:15, 17:20.

**Han Solo**
Egunero: 20:00, 22:30.
Domeka: 12:00, 20:00, 22:30.

**Vengadores**
Egunero: 21:40.

**Con amor, Simon**
Egunero: 16:30, 18:20, 20:25, 22:30.

**Colmillo blanco**
Egunero: 16:30, 18:35.
Domeka: 12:00, 18:35.

**No dormiras**
Egunero: 20:25, 22:30.

## KRITIKA

**En tránsito** ★★☆☆☆
**Zuz.:** Christian Petzold. **Herr.:** Alemania eta Frantzia (2018).
**Aktoreak:** Franz Rogwski, Paula Beer, Godehard Giesse.

# Garai ezberdinak, antzeko moduak

**ANTONIO ZABALA**

Christian Petzoldek bi garai ezberdin batzen ditu, historian gauzak errepikatzen direla eta gizakien portaera ez dela horrenbeste aldatu azaltzeko. *En tránsito* Marseillan gertatzen da. Europa konkistatu nahi duen Alemaniako armada Frantzian sartzen den unea. Babesa lortu nahian, Alemaniatik etorritakoek Ameriketara ihes egin nahi dute; baina han daude harrapatuta, beharrezko dokumentuak lortu arte. Istorioa aurreko mendeko 1940ko hamarkadakoa izan arren, agertzen diren jantziak, autoak… gaur egungoak dira. Hori horrela, Petzold zuzendariak unibertso paralelo bat sortzen du, etorkinen egoera nahiko antzekoa dela erakusteko.

Ideia originala da. Ikusten da kontatzeko modu desberdin bat sortzeko gogoa duela zuzendariak. Istorioa kontatzen duen pertsonaia bat dago, eta bukaera arte ez dugu jakingo nor den. Eszena askotan, kontalariak ikusten ari garena azaltzen du. Eszena gehiago garatu beharrean, kontalariak laburtu egiten ditu iraupen handiagoa beharko luketen eszenak. Ez da ideia egokia. Zineman eskertzen dugu pertsonaien arteko harremanak ikusterakoan horiek nola garatzen doazen antzematea. Kontalariak erritmo hori apurtzen du.

Horrela, filma nahiko hotza eta abstraktua da. *En tránsito* ahalegin txalogarria da, baina ahalegin berezi horretan zerbait galtzen da.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es



## AZKEN BERBA



IDOIA ETXEBERRIA

### 'Guasap' taldea

Hartu dot lekua afaitteko/ Eskarrik asko Itzi!/ Behatz lodia gora (emotikonoa)/ A2/ Onddo (perretxikoaren emotikonoa)/ Subiak eta zapuak erre-erre! Gora San Juan! Sua (emotikonoa)/ Ni azkenian ez naiz fango. Aurpegi txarra (emotikonoa)/ Gora! Txaloak (emotikonoa)/ Berriz gaixorik, Nekane?/ Joder, ez dau animalirik erre biharrik! Igela eta bihotza (emotikonoak)/ Zistitisa/ Ez izan tikis-mikisa Ane, esaera bat da/ Gora! Sua (emotikonoa)/ Osatu!/ Ok/ Aguro osatu Nekane!/ Ze ordutan geratuko gara?/ Eskarrik asko Itzi!/ Badau menu begetarianua?/ Gora zapuak eta sugiak!/ Animo! Beso gihartsua (emotikonoa)/ Zazpiretan betiko lekuan?/ Gora armiarmak eta arratoiak! Aurpegia barrez (emotikonoa)/ A2/ Onddo (emotikonoa)/ K asko! Nazka aurkegia (emotikonoa)/ Zazpiretan ok/ Menu begetarianorik ez/ Ok/ Primeran! (emotikonoa)/ Kaka /Osatu!! Animooo!/ Ni beranduau agertuko naiz/ Eskarrik asko Itzi / Ze ordutan da sua? Oierrek dantza in biha dau. Dantzari flamenkoa (emotikonoa)/ Nere ama be zistitisakin dau/ Oso ondo/ Ez da berandu? Animo, osatu!/ Oier dantzan? Ez ebilen karaten?/ Osatu!/ Erre-erre!

43 mezu irakurtzeko. Gora San Juan!

## BUKATZEKO




**Ikasleak eta irakasleak, Aprendices Eskolaren aurrealdean.** ARRASATE ZIENTZIA ELKARTEA

# Eskola baten gainekoek jasotako harrera beroa

Ekainaren 29ra arte egongo da zabalik, Kulturaten, Aprendices Eskolaren gaineko erakusketa. Orain arte, 2.000 lagun inguru joan dira hori ikustera eta Arrasate Zientzia Elkarteko kideak pozik dira, asko dira-eta herritarrengandik jaso dituzten zorion berbak

**Miren Arregi** ARRASATE

Datorren egubakoitzera arte, ekainaren 29ra arte, egongo da ikusgai Arrasate Zientzia Elkarteak Aprendices Eskolaren gainean Kulturaten ipini duen erakusketa. Ekaineko lehen egunarekin batera zabaldu zuten hori eta ordutik hona, 2.000 lagun inguru joan dira han jasotakoak ikustera. Kopuruarekin oso pozik daude Arrasate Zientzia Elkarteko kideak, bai eta ikusleengandik jaso dituzten zorion mezuekin ere. "Jendeak kalean gelditu egiten gaitu zorionak emateko. Batzuk hunkituta ere etorri zaizkigu. Aprendices Eskolarekin lotura duen jendea da, bereziki, han ibilitakoen senitarteko eta lagunak". Ez hori bakarrik, erakusketak balio izan baitie Aprendices Eskolaren gaineko argazki eta bitxikeria gehiago batzeko. Bisitariak nondik joan diren galdetuta, diote gehienak Arrasatekoak badira ere, joan direla Debagoieneko beste herri batzuetatik ere. Hala, erakusketa sortzen ari den ikusminarekin oso pozik daudela nabarmendu dute: "Pozik gelditu gara oso, hasiera batean pentsatu genuen-eta oso gai monografikoa izanik, agian, ez zukeela horrelako harrerarik izango. Espero genuena baino askoz harrera hobea izan du", dio Xabier Bengoak.

**Oraindik ere ikusgai**

Esan moduan, datorren egubakoitzera arte egongo da erakusketa ikusteko aukera, arratsaldez, 17:30etik 20:30era. Hilaren 23an, San Juan bezperan, itxita egongo da.

Erakusketaren helburua da Aprendices Eskola bera eta 33 urtez Zerrajerako eskola moduan funtzionatu zuen eraikinean egindako lana balioan ipintzea. Hala, irakasleen, ikasleen eta eraikinaren argazki zahar asko ipini dituzte erakusgai, baita musikarekin eta kirolarekin lotutakoak ere. Herritarren laguntzarekin osatu dute hori.

SAN JUAN GAUA ZUZEN ZUZENEAN
SAN JUAN GAUA ZUZEN ZUZENEAN ARRASATEKO PLAZATIK
17:45EAN MAKALAREN IGOERA
21:15EAN ERREMENTERI DANTZA, SAN JUAN SUA ETA DANBORRADA
ZUZENEKOA TABERNA HAUETAN IKUSTEKO AUKERA:
ARRASATE, BASATI, EZKIÑA, GOIZALDE, IAMAI, ITZALA, KAJOI, MONTE, TAUPA ETA TXOKO
goiena
Zu hemen zaude.

